eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Saretze erreakzioaren kontrola proteinazko filmen eta biokonpositeen propietateak egokitzeko



Alaitz Etxabide Etxeberria

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza saila

Donostia-San Sebastián, 2017

Saretze erreakzioaren kontrola proteinazko filmen eta biokonpositeen propietateak egokitzeko

Alaitz Etxabide Etxeberria

Tesi Zuzendariak: Koro de la Caba eta Pedro Guerrero

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila

Donostia-San Sebastián, 2017

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Saretze erreakzioaren kontrola proteinazko filmen eta biokonpositeen propietateak egokitzeko

Alaitz Etxabide Etxeberria

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila

Donostia-San Sebastián, 2017

Esker onak / Agradecimientos/ Remerciements/ Acknowledgements

Bizitzako bertze fase berri bati hasiera eman dion hiru urte t`erdiko etapa honen amaierara iristeko nire ondoan egon diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

Comenzar agradeciendo a Koro de la Caba y Pedro Guerrero, directores de mi tesis-doctoral. Gracias por ofrecerme esta oportunidad de dar los primeros pasos en la investigación junto a vosotros. Un placer haberos conocido y haber compartido con vosotros ese tiempo durante los proyectos fin de grado y máster. Gracias también por la confianza depositada en mí a la hora de iniciar esta tesis doctoral dentro del grupo BIOMAT. La orientación, el seguimiento y la supervisión continua junto con el apoyo recibido a lo largo de estos años han sido esenciales para mi desarrollo profesional como personal. Gracias, de nuevo por establecer en mí unos principios de trabajo sólidos e imprescindibles.

Bertzetik, doktorego-tesi honetan jardunean, nire ondoan egon diren hasieran lankide ziren eta orain lagun direnei, beraien laguntza eta pazientzia eskertu nahi dizkiet. Aldi berean, etxekoek emandako babesa eta bereziki niganako erakutsitako konfiantza eskertu nahiko nituzke, beraiek gabe lan honen bidea aldapatsuagoa izango litzateke eta. Orain arte aipatu ez ditudan lagun minak eta kuadrillakoak ere, eskerrak aunitz hor egoteagatik. Ahaztu gabe, Jose Emilio Txoperenari “Txoltxan” tesiaren euskarazko bertsioan emandako laguntza eskertu nahiko nizuke.

Je tiens à remercier infiniment Madame Véronique Coma et Monsieur Christian Gardrat pour m’avoir dirigée pendant mon séjour scientifique dans le Laboratoire de Chimie des Polymères Organiques (LCPO), à l’Université Bordeaux 1 (France). Leurs enseignements et conseils m’ont été d’une grande aide. I would also like to thank Dr. Piergiorgio Gentile and Dr. Ana Maria Ferreira-Duarte for giving me the chance to carry out scientific stay in the School of Mechanical and Systems Engineering at Newcastle

University (UK). Their good humor and wide knowledge were important and helpful for going on advancing in my investigation.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak (UVP/EHU, PIF13/008 kontratua) eta Biomat ikerketa taldeak (UPV/EHU, GIU15/03) emandako diru-laguntza eskertzearekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundia, UPV/EHU-ko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorra (SGIker) eta NanoBioCell nahiz Enedi ikerketa taldeak eskertu nahiko nituzke.

Laburpena

Plastikoek eguneroko bizitza eraldatu dute eta onura ugari ekarri dizkiote gizarteari. Hala ere, plastikoen erabilerak eta hauen zabor-tratamenduak sortutako kezkek jasangarriagoak diren iturrien erabilera bultzatzeko ordezko materialen garapena sustatu dute, ekonomia zirkularraren kontzeptuarekin bat etorriz. Honi dagokionez, gelatina material berriztagarria eta biodegradagarria izateaz gain erabilgarria da, kostu baxua dauka, filma eratzeko gaitasuna du eta zentzumen onargarritasuna erakusten du. Testuinguru honetan, lan honen helburu orokorra, formulazioen konposizioaren eta prozesatze metodoen nahiz baldintzen arabera asmo ezberdinetarako, hala nola, paketatzeko edota aplikazio farmazeutikoetarako gelatinan oinarritutako materialak garatzea eta karakterizatzea izan da.

Lan hau 10 atalez osatuta dago. Lehenengo atala, film aktiboetan egin berri diren aurrerapenen ikuspegi orokorra da. Bertan, produktu eta aplikazio berrietarako industriako hondakinetatik eta azpi-produktuetatik lehengaiak lortzearen garrantzia azpimarratzen da. Ikerkuntza lan hau aurrera eramateko erabilitako materialak eta metodoak berriz, bigarren atalean azaltzen dira. Ondoren, hirugarren atalean, prozesatze baldintzen eragina gelatinazko filmen propietate funtzionalengan nahiz materialaren ingurumen-inpaktua aztertu dira, filmen abantailak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko helburuarekin.

Gelatinaren berezko hidrofilotasuna filmen hauskortasun altuaren eta urarekiko sentikortasunaren erantzule dela aintzakotzat hartuta, propietate funtzional hauen hobekuntza Maillard izeneko saretze erreakzioa ahalbidetzen duen laktosaren gehikuntzaren bidez aztertu da. Maillard erreakzioan, eta beraz filmen propietateetan laktosa kantitateak, berokuntzak eta soluzioaren pH-ak duten eragina laugarren eta bosgarren ataletan aztertu da. Kapitulu hauetan lortutako emaitzak kontuan izanda, seigarren atalean, pH basikoan Maillard erreakzioaren kontrola berokuntza denboraren

funtziopean burutu da. Maillard erreakzioan zehar konposatu antioxidatzaileak sortzen direnez, zazpigarren atalean saretutako gelatinazko filmen ahalmen antioxidatzailea aztertzearekin batera, filma eratzeko soluzioan gehituriko kurkumatik eratorritako konposatuak filmen propietate antioxidatzaileetan duen eragina ere aztertu da. Filmen azterketa sakon baten ostean, estrusio eta injekzio bidez lorturiko laktosarekin saretutako gelatinazko biokonpositeen propietateak zortzigarren atalean aztertu dira. Azkenik, bederatzigarren atalean ikerketa honen ondorio orokorrak laburtu dira eta testuan zehar aipatutako erreferentziak hamargarren atalean zerrendatu dira.

Helburuak

Ikerlan honen helburu orokorra, formulazioen konposizioaren eta prozesatze metodoen nahiz baldintzen arabera gelatinan oinarritutako materialak garatu eta karakterizatzea da.

Tesiaren helburu zehatzak ondorengoak dira:

- Film aktiboetan egindako hobekuntzen ikuspegi orokorra ematea.
- Gelatinazko filmen propietate funtzionaletan prozesatze baldintzen eragina aztertzea.
- Gelatinaren erauzketa prozesutik filma zakarretara bota arte gelatinazko filmen ingurumen-inpaktua ebaluatzea.
- Laktosa edukiaren, berokuntzaren eta disoluzioaren pH-aren eragina saretze erreakzioan eta gelatinazko filmen propietate funtzionaletan aztertzea.
- Saretutako gelatinazko filmen ahalmen antioxidatzailea aztertzea.
- Gelatinazko biokonpositeak lortzeko estrusio eta injekzio prozesuen parametroak optimizatzea.

Aurkibidea

1 Sarrera

1.1 Gelatina, ontziratze aktiborako lehengaia

2015 urtean Europako plastikoen merkatuak esponentzialki gora egin zuen, urteko 58 milioi tona ekoiztuz (PlasticsEurope, 2016); horietatik gutxi gora-behera % 39,9a paketatze-industriara bideratu zen. Paketatzea egunerokotasunerako beharrezko eta funtsezko kontsumogaia bihurtu da. Bilgarriek funtzio ezberdinak betetzen dituzte, hala nola, eustea, babestea, praktikoa izatea, komunikatzea, eta elikagaien kalitatea nahiz segurtasuna ziurtatzea (Roberston, 2013). Erabilera honetarako, plastiko sintetikoek propietate bikainak aurkezten dituzte. Hala ere, beraien iraunkortasunak zakarretarako hondakinetan arazo nabarmenak sortzen ditu, izan ere, material hauek ez-biodegradagarriak eta birziklatzeko zailak baitira.

Azken urteotan, iturri berriztagarrietatik eratorritako polimero biodegradagarriak, hala nola, nekazaritza-industriako eta itsasoko hondakin eta azpi-produktuak, petroliotik eratorritako polimeroak ordezkatzeko aukera jasangarritzat hartu dira (Leceta et al., 2014). Gainera, kontsumitzaileen osasun, elikatze balio eta elikagaien babesaren (konposatu toxikoen lekutzea bildukitik elikagaira) inguruan sorturiko kezkek, sintetikoak diren konposatuak naturalak diren substantziekin ordezkatuak izateko interesa areagotu dute (Bravin, Peressini, eta Sensidoni, 2006; López-Rubio, Lagarón, eta Ocio, 2008). Hori dela eta, elikagaiak babesteko biopolimero eta gehigarri naturalen erabilera ingurumenaren jasangarritasun eta kontsumitzaileen onargarritasun terminoetan abantaila izan daiteke. Landare eta animalietatik eratorritako material biodegradagarriek eta jangarriek, hala nola, proteinek, polisakaridoek eta lipidoek, bilduki moduan elikagaiekin kontaktuan erabiltzeko ahalmena erakutsi dute (Nur Hanani, Roos, eta Kerry, 2014; Wang et al., 2012).

Biopolimeroen artean, proteinen ugaritasunagatik, filma sortzeko gaitasunagatik, gardentasunagatik eta O_2, CO_2 eta lipidoen kontrako hesi-propietate bikainengatik, proteinak elikagaien paketatze produkziorako ezaugarri baliagarriak eskaintzen dituzten lehengaiak dira (Krochta, 2002; Lacroix eta Vu, 2014). Gainera,

proteinak heteropolimeroak direnez, talde funtzional ugari dituzte eta ondorioz, proteinetan oinarritutako materialen propietateak aldakuntza entzimatiko, kimiko edota fisikoen bidez eraldatu daitezke, aplikazio jakinetan behar diren amaierako propietateak lortzeko (Hammann eta Schmid, 2014). Horretaz gain, aipatzekoa da proteinetan oinarritutako filmak konposatu antioxidatzaileak, antimikrobiarrak, antifungikoak eta zaporedun moduko konposatuak eramateko garraiatzaile bikainak izan daitezkeela (Guadipati, 2013).

Azkeneko urteotan, proteinen ikerketaren arloan gelatinan oinarritutako materialenganako interesa handitu da (Gómez-Guillén et al., 2011). Gelatina animalia proteina bat da, lur eta itsasoko animalien hezur, azal eta ehun konektiboetako kolagenoari egindako hidrolisitik lortzen dena. Gelatinen artean, arrazoi soziokulturalak direla eta, arrain gelatinak arreta erakarri du ugaztun gelatinen ordez erabiltzeko (Benjakul, Kittiphattanabawon, eta Regenstein, 2012). Gelatinen ugaritasunak, erabilgarritasunak eta kostu baxuak material hau aplikazio ugarietan erabiltzera bultzatzen dute. Gelatina elikagai zaporegabea, biobateragarria, biodegradagarria eta ez-toxikoa denez (Ali et al., 2012), jangarriak diren filmetan erabiltzeko ahalmen handia erakusten du (Bergo eta Sobral, 2007; Karim eta Bhat, 2008). Gainera, gelatinazko filmak bioaktiboak garraiatzeko eramaile bezala erabili daitezke. Testuinguru honetan, kapitulu honen helburua elikagaien narriadura eragotzi edo atzeratzeko, eta hauen iraungitzea luzatzeko film aktibo moduan erabilitako gelatinan oinarritutako filmetan egin berri diren aurrerapenen ikuspegi orokorra ematea da.

Lipidoen erreakzio kimikoa, bereziki oxigenoarekin erreakzionatzen duten gantz-azido polisaturatugabeak, elikagaietan ematen den narriadura erreakzio nagusienetako bat da. Lipidoen oxidazioaz gain, elikagai produktuek nutriente ugari dituztenez, mikrobioengatik narriatzeko joera daukate (Kaewpprachu eta Rawdkuen, 2016). Narriadura prozesu hau elikadura produktuen produkzioko edozein urratsetan gerta daiteke, ontziratzean eta biltegiratzean esaterako, produktuan garraztasuna

eraginez. Lipidoen oxidazioak eta mikrobioen hazkuntzak elikagaien kalitatearen narriadura eragiten dute, horien egitura, itxura eta kolorea aldatuz, usain eta zapore txarrak sortuz, nutrizio-balioaren galtzea eraginez eta toxikoak diren konposatuak nahiz polimero oxidatuak sortuz (Anbinder et al., 2015; Tian, Decker, eta Goddard, 2013). Beraz, usteltzeak elikaduraren iraungitzea laburtzen du eta honek kontsumitzailearengan nahigabea eta kexak sortzen ditu, produktuaren onargarritasunean eta honen salmentetan eraginez. Ondorioz, bezeroen gaitzesteagatik elikagai-produktu kantitate handiak galtzen dira, ingurumenean eta ekonomian inpaktu negatiboak sortuz (Lin et al., 2013; Wardhani et al., 2013).

Elikagaien iraungitzea luzatzeko eta elikagaiak usteltzetik babesteko, gordetze teknika ezberdinak erabili dira, hala nola, izoztea, lehortzea, paketatzearen atmosfera aldatzea (MAP), hutsezko paketatzea eta konposatu aktiboen gehitzea, beste batzuen artean (Rahman, 2007). Elikagaietan zuzenenean gehituriko konposatu aktiboek lipidoen oxidazioa eta mikrobioen hazkuntza gutxitzen dituzten arren, babes-denbora laburrak erakusten dituzte (Costa et al., 2015; Bolumar, Andersen, eta Orlien, 2011). Gainera, elikagai asko daude, freskoak edo lehengaiak diren elikagaiak esaterako, konposatu aktiboak zuzenean gehitzeko baimenik ez dutenak (Tovar et al., 2005). Arazo hauek, paketatze aktiboaren ikerkuntza elikagai-industriako eskakizunak eta bezeroen beharrak betetzera bideratu dute (Roberston, 2013; Sanches-Silva et al., 2014). Konposatu antioxidatzaileak eta antimikrobiarrak filmen formulazioan gehitzea lipidoen oxidazioa eta mikrobioen hazkuntza arrakastaz geldiarazteko eta beraz, elikagaien usteltzea galarazteko etorkizun handiko metodoa da.

1.2 Gelatinazko filmentzat konposatu antioxidatzaileak

Antioxidatzaile sintetikoen (butil hidroxitoluenoa (BHT), butil hidroxianisola (BHA), terbutil hidrokinona (TBHQ) eta propil galato (PG)) osasun arrisku potentzialak, elikagaiak paketatzeko seguruagoak diren irtenbideen ikerketa burutzea behartu du (Boulekbache-Makhlouf, Slimani, eta Madani, 2013). Hortaz, oxidatzaile naturalak

erabiltzeko beharra izugarri zabaldu da eta horregatik, substantzia naturalak ikertuak izaten ari dira aktiboak diren konposatu naturalen iturri gisa (**1.1 taula**). Konposatu fenolikoak bereziki, egitura eta gai kimikoen aldaera ugariak eta propietate biologiko (anti-hantura, antimikrobiarra, antikantzerigenoa eta antimutagenikoa) bikainak erakusten dituzten antioxidatzaile naturalen talde garrantzitsuenetakoa kontsideratzen da. Konposatu hauek iturri ezberdinetatik eratortzen dira, hala nola, fruta, belar, espezie, barazki, lekari, intxaur, hazi, ale eta zerealetatik (Carlsen et al., 2010; Costa et al., 2015; Nollet eta Toldrá, 2015).

1.1 taula Film aktiboak sortzeko behi, txerri eta arrain gelatinari gehitutako antioxidatzaile naturalak.

Gelatina iturria	Antioxidatzailea	Erreferentzia
Behi gelatina	*Ascophyllum nodosum* alga marroi estraktua	Kadam et al., 2015
	Azenario-zuntz hondakina	Iahnke et al., 2015
	Zatoria multiflora	Kavoosi et al., 2014
	Eukaliptu egur lignosulfonatuak	Núñez-Flores et al., 2012
Txerri gelatina	Azido askorbikoa	Kowalzyk, 2016
	Etanol lupulu estraktua	Kowalczyk eta Biendl, 2016
	Kurkuma etanol estraktua	Bitencourt et al., 2014
Arrain gelatina	Kumarin, azido ferulikoa, tirosola, kerzitina	Benbettaïeb et al., 2016c
	Koko oskol etanol estraktua	Nagaranjan et al., 2015
	Kanela olio esentziala	Wu et al., 2015
	Te berde estraktua	Wu et al., 2013
	Sufre gabeko lignina uretan ez disolbagarria	Núñez-Flores et al., 2013
	Jengibre, kurkuma	Tongnuanchan et al., 2013
	Bergamota, limoia, lima	Tongnuanchan et al., 2012
	Iltze-kanela olio esentziala	Giménez et al., 2012
	C. barbata alga estraktua	Haddar et al., 2012
	Kanela, iltze-kanela, anis estraktua	Hoque et al., 2011

Substantzia aktiboen artean, olio esentzialek mikroorganismo ugarien kontrako ezaugarri antifungiko eta antiseptikoak erakusten dituztenez, aplikazio farmazeutikoetan asko erabiltzen dira (Djilani eta Dicko, 2012). Gainera, olio esentzial batzuk, beraien aktibitate antioxidatzaileengatik, elikagaiak babesteko ere erabiltzen dira. Iturri ezberdinetatik lortutako olio esentzial zitrikoak, bergamota, limoia eta lima esaterako, arrain gelatinazko filmen formulazioan gehituak izan dira (Tongnuanchan, Benjakul, eta Prodpran, 2012). Argiaren eta ur lurrunaren kontrako hesi-propietateak hobetzeaz gain, bergamota olio esentzialak 2,2-difenil-1-pikrilhidrazil (DPPH) erradikal

librea ezabatzeko aktibitaterik handiena erakutsi zuen. Sustraietatik eratorritako olio esentzialak, hala nola, jengibrea eta kurkuma, arrainen azaletatik lortutako gelatinazko filmetan ere gehitu dira (Tougnuanchan, Benjakul, eta Prodpran, 2013).

Gehitutako olio esentzialez gain, olioaren kontzentrazioak ahalmen antioxidatzailean eragina dauka. *Zatoria multiflora* olio esentziala behi gelatinazko filma eratzeko soluzioan kontzentrazio ezberdinetan gehitzerakoan, filmen ahalmen antioxidatzailea 2,6 ± 0,11tik 5,5 ± 0,51 mg azido galikoaren baliokidea/g filmeko igo zela ikusi zen, olio esentzialaren kontzentrazioa % 2tik % 8ra handitzerakoan (Kavoosi et al., 2014). Olio esentzial hauen aktibitate antioxidatzaileak, nitrogeno oxido eta malondialdehidoaren presentziarekin zerikusia du. Gainera, filmek aktibitate antimikrobiarra erakutsi zuten, bakterio Gram-positiboek (*Staphylococcus aureus, Bacillus subtilis*) bakterio Gram-negatiboek (*Pseudomonas aeruginosa, Escherichia coli*) baino eraginkortasun handiagoa erakutsiz.

Atarés eta Chiralt-ek (2016) elikagaiak paketatzeko film eta geruza jangarri/biodegradagarrien egituretan, propietate fisikoetan eta bioaktiboetan olio esentzialen gehikuntzaren eragina aztertu zuten. Olio esentzialak nagusiki emultsio bidez film eta geruzetan gehitu ziren, elikagaien teknologian erabilitako lurrunketaren ondorioz galdutako gehigarri kopurua txikitzeko erreminta egokia izateaz gain, polimeroaren matrizearen eta konposatu aktiboaren arteko kontaktua hobetzeko balio dezakeelako. Olio esentzialen gehikuntza bidez jangarriak diren film eta geruzen propietate antioxidatzaileetan edota antimikrobiarretan lortutako hobekuntzek, olio esentzialak elikagaien iraungitzea luzatu eta produktuaren balioa igo dezaketela adierazi zuten.

Olio esentzialez gain, belar eta espezieen estraktu gordinek konposatu fenolikoen kantitate handiak dituztenez, lipidoen oxidazioa atzeratzeko egokiak dira eta ondorioz, polimeroen matrizetan agente antioxidatzaile moduan erabiltzen dira

(Embuscado, 2015). Bitencourt eta lankideek (2014) kurkuma etanol estraktuaren ahalmen antioxidatzailea txerri gelatinazko filmetan aztertu zuten eta aktibitate antioxidatzailea gehituriko gehigarriaren kontzentrazioarekiko proportzionala zela ikusi zuten. Estraktuaren % 2 gehitzean, DPPH erradikala ezabatzeko aktibitatearen azterketak, antioxidatzaile ahalmena % 1,8tik % 79,2ra handitu zela erakutsi zuen. Ahalmen antioxidatzailea estraktuan dauden kurkumaren eta beste konposatu fenolikoen presentziarekin erlazionatzen da. Eragin antioxidatzaileaz gain, kurkuma etanol estraktuaren gehikuntzarekin tentsio erresistentzia eta urarekiko nahiz argiarekiko hesi-propietateak hobetu ziren. Beste estraktu batzuk, te berde estraktua bezalakoak, zilarrezko karpa arrainaren azaletik lortutako gelatinazko filmetan gehitzean, filmen propietate mekanikoak eta hesi-propietateak ere hobetu ziren (Wu et al., 2013). Estraktuaren ahalmen antioxidatzaileari dagokionez, te berde estraktuaren % 0,7ko gehikuntzak, fenolikoen guztizko edukia eta DPPH erradikalak ezabatzeko aktibitatea nabarmenki hobetu zituela ikusi zen, 39,05 mg azido galikoaren baliokidea/g film eta % 31,4ko inhibizioa aurkeztuz, hurrenez hurren. Hala ere, aktibitate antioxidatzailea biltegiratze denborarekin txikitu zen, % 22ko DPPH erradikalak ezabatzeko aktibitatea erakutsiz 180 egunez filmak biltegian gorde ostean. Denbora luzez filmak aktibo mantentzeko helburuarekin, Kowalczyk eta Biendl-ek (2016) txerri gelatinazko filmetatik etanol lupulu estraktuaren askatzea aztertu zuten. Emaitzek erakutsi zuten gelatinazko filmen handitzea kontrolatuz estraktuaren askatzea denbora luzeagoetara luzatu zitekeela. Antzeko emaitzak ikusi ziren azido askorbikoa (C bitamina) txerri gelatinazko filmak eratzeko soluzioan gehitu zenean (Kowalczyk, 2016). Algetan aurkitzen diren bitaminak, florotaninoak, laminaranak, sulfatatutako polisakaridoak, karotenoideak eta mineralak bioaktibo moduan ere erabili daitezke. Haddar eta lankideek (2012) *C. barbata* alga estraktua arrain gelatinazko filmetan gehitzerakoan, estraktuaren konposatu fenolikoengatik eta flabonoideengatik filmen aktibitate antioxidatzailea nabarmenki hobetu zela ikusi zuten. *Ascophyllum nodosum*

estraktua bezalako itsas belar estraktuak behi gelatinazko filmetan gehitu zirenean, filmen aktibitate antioxidatzailea sustatu zela ikusi zen (Kadam et al., 2015).

1.3 Gelatinazko filmentzat konposatu antimikrobiarrak

Aktibitate mikrobiarra elikagai askoren narriaduraren beste arrazoietako bat da eta elikagai-produktuen kalitatea eta babesa txikitzearen erantzule da (Rawdkuen et al., 2012). Elikagai-produktuen ekoizpen-katean zehar elikagaiari zuzenean konposatu antimikrobiarrak gehitzeak, mikrobioen hazkuntza eta elikagaiaren iraungitzea kontrolatu ditzake (Singh et al., 2016). Hala ere, konposatu antimikrobiarrak elikagaien paketatzean gehitzeak geroz eta arreta handiagoa erakarri du. Gelatinazko filmetan konposatu antimikrobiar naturalak gehitu dira, hala nola, olio esentzialak, belar estraktuak, landare eta espeziak, peptidoak eta kitosanoa (**1.2 taula)**.

Aktibitate antioxidatzaileaz gain, olio esentzialak gelatinazko film aktiboak prestatzeko filma eratzeko soluzioetan gehitzerakoan, efektu antimikrobiarra erakutsi dute. Arrain gelatinazko filmetan, bereziki limoi belar olioa gehitzerakoan, bakterio Gram-positiboekiko (*S. aureus*, *Listeria monocytogenes*) eta bakterio Gram-negatiboekiko (*E. coli*, *Salmonella typhimurium*) inhibizio efektua ikusi zen. Bergamota olio esentzialarekin prestatutako filmek aldiz, bakterio Gram-positiboekiko inhibizioa bakarrik erakutsi zuten (Ahmad et al., 2012). Olio esentzialen aktibitate antimikrobiarra bakterioen pareta zelularra hautsi dezaketen terpenoei egotzi zaie, hauek ondoren zelula barrura sartu eta proteinaren desnaturalizazioa, zelulen nahiz mintzen suntsiketa eta zelulen hiltzea eragiten dutelako. Aipaturikoa kontuan hartuz, olio esentzialen aktibitate antioxidatzailea txikiagoa izan daiteke bakterio hauen pareta zelularra inguratzen duen kanpoko mintz gehigarriarengatik. Izan ere, honek konposatu hidrofoboen difusioa mintzean zehar eragozten du eta beraz, konposatu antimikrobiarraren efektua murrizten du (Oussalah et al., 2007).

Lisozima bezalako peptido bioaktiboak ere elikagaiak babesteko gelatinazko filmetan gehitu daitezke. Beraien aktibitate antimikrobiarra pareta zelularretako peptidoglikano geruzen hidrolisiari elkartu zaio (Perez-Espitia et al., 2012). Lisozima konposatudun arrain gelatinazko filmek ez zuten *E. coli*-aren hazkuntza inhibitu, lisozimak bakterio Gram-negatiboen lipopolisakarido geruzan zehar sartu ezin zirelako (Bower et al., 2006). Hala ere, lisozima zuten gelatinazko filmek, nahiz eta gehigarriaren kontzentrazioa oso baxua izan (% 0,001), bakterio Gram-positiboen (*Bacillus subtilis, Streptoccocus cremoris*) kontra eraginkorrak zirela erakutsi zuten. Lisozimak katekinekin gelatinazko filma eratzeko soluzioan gehitzerakoan, lorturiko filmek bakterio Gram-positiboekiko eta Gram-negatiboekiko aktibitate antimikrobiarra erakutsi zuten, nahiz eta inhibiziorik altuena bakterio Gram-positiboekiko (*S. aureus*, *Listeria innocua*) eta legamiekiko (*Saccharomyces cerevisiae*) eta inhibiziorik txikiena berriz, bakterio Gram-negatiboekiko (*E. coli*) lortu zen (Rawdkuen et al., 2012). Legamia eta lizunen hazkuntzan katekina eta lisozima dituzten behi gelatinazko filmak izandako efektua txerri-haragi xehatuan aztertu zen (Kaewprachu et al., 2015). Emaitzek, gelatinazko filmetan bildutako laginek polibilin kloruro (PVC) bezalako film komertzialetan bildutako laginek baino legamia eta lizun kantitate gutxiago zituztela erakutsi zuten.

Kitosanoa gelatinazko filma eratzeko soluzioan gehitzean, elikagaiak usteltzen dituzten *S. aureus* bezalako mikroorganismoen kontrako film aktiboak ere lortu ziren (Gómez-Estaca et al., 2011). Autore hauek, gelatina kitosanoarekin nahastea gelatinazko filmen urarekiko erresistentzia eta propietate mekanikoak hobetzeko modua zela erakusteaz gain, filmak aktibitate antimikrobiarrarekin hornitzeko modua zela ere aztertu zuten. Te berdea estraktuarekin batera, gelatina agarra bezalako beste polisakaridoekin nahasi zen (Giménez et al., 2013). Konposatu aktiboen askatzea aztertzerakoan, te berde estraktua filma eratzeko soluzioan gehitu zenean, estraktuaren aktibitate antioxidatzailea mantendu egin zela ikusi zen, lorturiko filmek

Vibrio parahaemolyticus, Photobacterium phosphoreum, *Shewanella putrefaciens,* eta *Pseudomonas fluorescens* bakterioen hazkuntza inhibitzeko gai zirela erakutsi zutelako.

1.2 taula Behi, txerri eta arrain gelatinazko film aktiboak garatzeko gehituriko konposatu antimikrobiarrak.

Gelatina iturria	Konposatu antimikrobiarra	Mikroorganismoa	Erreferentziak
Behi gelatina	Erromero, oregano, zitriko estraktuak	*L. innocua, P. fluorescens, A. hydrophila/caviae*	Iturriaga et al., 2012
	Iltze-kanela, izpiliku, erromero, ezkai olio esentziala	*L. acidophilus, L. Monocytogenes*	Gómez-Estaca et al., 2010b
	Katekin-lisozima	Azido laktiko bakterio, legamiak eta lizunak	Kaewprachu et al., 2015
	Kitosanoa	*S. aureus*	Gómez-Estaca et al., 2011
Txerri gelatina	Oregano, erromero olio esentzialak	*Enterobacteriaceae*	Gómez-Estaca et al., 2010a
Arrain gelatina	Te berde estraktua	*V. parahaemolyticus, P. phosphoreum, S. putrefaciens, P. fluorescens*	Giménez et al., 2013
	Limoi belar olio esentziala	*S. aureus, L. monocytogenes, E. coli, S. typhimurium*	Ahmad et al., 2012
	Iltze-kanela, piper olio esentziala	*S. aureus, A. hydrophila, L. monocytogenes*	Shakila et al., 2015
	Basiliko hosto olio esentziala, ZnO nanopartikulak	*Pseudomonas, S. putrefaciens, Enterobacteriaceae*	Arfat et al., 2015
	Lisozima	*E. coli, B. subtilis, S. Cremoris*	Bower et al., 2006
	Katekin-lisozima	*E. coli, S. aureus, L. innocua, S. cerevisiae*	Rawdkuen et al., 2012

Espezie eta fruten beste estraktu batzuk ere, hala nola, uretan disolbagarriak diren erromero, oregano eta fruitu zitrikoen estraktuak, bakterio Gram-positiboen (*L. innocua*) eta Gram-negatiboen (*P. fluorescens*, *Aeromonas hydrophila/caviae*) kontrako aktibitate antimikrobiarra aztertzeko erabili ziren. Estraktu guztiekiko *L. innocua* sentiberena zen bitartean, *P. fluorescens* iraunkorrena zen (Iturriaga, Olabarrieta, eta de Marañón, 2012).

Eragile antimikrobiarren artean, konposatu inorganikoak, oxido metaliko batzuk esaterako, oro har segurutzat (generally recognized as safe, GRAS) hartzen dira eta gainera, elikagaien prozesamenduan eta paketatzean zehar erabiltzen diren tenperatura eta presio altuekiko egonkorrak dira. Honi dagokionez, ZnO nanopartikulen akzio mekanismoa aztertu zen eta emaitzek, nanopartikulek zelulen mintza hautsi eta estres oxidatiboa eragiten zutela iradoki zuten (Xie et al., 2011). Hau da, Zn^{2+} ioiak pareta zelularra zeharkatu, zelulen konposatuetaraino iritsi eta zelularen bideragarritasunean eragin dezake. Gainera, ZnO nanopartikulek hidrogeno peroxidoa sortu dezakete, oso ezaguna den eragile oxidatzailea, mintz zelularra kaltetuz (Tayel et al., 2011). Lupia arraina biltzeko erabilitako gelatinazko filmetan ZnO nanopartikulak gehitu zirenean, elikagaiaren iraungitzea 4 egunetatik 12 egunetara luzatzea lortu zen (Arfat et al., 2015).

1.4 Gelatinazko filmetatik konposatu aktiboen askatzearen kontrola

Filmetatik konposatu aktiboen askatzea aztertzeko, difusio bidezko migrazioaren neurketaz egin daiteke. Alde batetik, *in vitro* azterketa, filmen guztizko murgilketa elikagaiak simulatzen dituzten disolbatzaileetan, hau da, benetako elikagaien portaera emulatzen dituzten likidoetan (ur-simulatzaileak edo gantz-simulatzaileak) burutu daiteke. Beste aldetik berriz, konposatu aktiboaren askatzea aztertzeko, paketatze aktiboa elikagai-produktuarekin zuzenean erabili daiteke. Bi kasuetan, migrazio entseguen ostean, elikagai-simulatzailea edo elikagaia bera aztertu behar dira askatutako konposatu aktiboaren kantitatea eta efikazia determinatzeko.

Aktiboen kontrolatutako askatzea duten paketatze aktiboak prestatzeko metodo ezberdinak erabili daitezke, hala nola, konposatu aktiboen enkapsulazioa, biopolimeroaren saretzea edo nanobetegarrien gehitzea. Liposomak, partikula polimerikoak edo lipido nanopartikulak konposatu aktiboen askapena hasi arte hauek enkapsulatzeko eta ingurunetik isolatzeko banaketa-gailuak dira. Babestutako askatze teknika hauen bidez aktiboaren askapen-proportzioa kontrolatzeaz gain, konposatu aktiboa oxidazioa eragiten duten faktoreetatik (beroa, argia eta hezetasuna) babesten da, konposatu hegazkorren lurruntzea saihestu/atzeratzen da eta prozesatze eta biltegiratze bitartean materialaren erabilera errazten da (Martins et al., 2014; El Asbahani et al., 2015).

Konposatu aktiboen enkapsulazioa emultsifikazio eta lehortze-esprai, edo koazerbatze eta disolbatzailearen lurrunketa bidez egin daiteke (Da Silva, Barreira, eta Oliveira, 2016). Wu eta lankideek (2015) kanela olio esentziala zuten gelatinazko filmak prestatu zituzten eta olio esentzialaren askatzearen alderaketa egin zuten, hau zuzenean filma eratzeko soluziora gehituz edota konposatua nanopartikuletan enkapsulatu ondoren soluziora gehituz. Konposatu aktiboa enkapsulatuta zegoen laginetan, 99,5 orduren ostean, olio esentzialaren askatzea % 98tik % 87ra jaitsi zela Ikusi zen.

Enkapsulazioaz gain, konposatu aktiboaren askatzea kontrolatzeko irradiazio bidezko saretze erreakzioa erabili daiteke. Benbettaïeb eta lankideek (2016b) elektroi sorta irradiazioaren (60 kGy) ostean, ingurune urtsuan kumarina eta tirosola bezalako konposatu aktiboen difusio koefiziente eraginkorraren txikitzea gertatzen zela ikusi zuten, irradiazioagatik eratutako sareak eragindako eragozpenengatik. Antzeko emaitzak lortu ziren etanol simulatzailean kerzitina konposatu aktibodun eta kitosanodun arrain gelatinazko filmak murgiltzean (Benbettaïeb et al., 2016a). Irradiazioak filmetatik kerzitinaren askapena mantsotu zuen, irradiazio prozesuan sortutako interakzio berriek filmen egitura aldatu zutelako.

Nanobuztinen gehitzearekin gelatinaren sarean ere aldaketak eragin daitezke. Giménez eta lankideek (2012) iltze-kanela olio esentziala konposatu aktibo moduan arrain gelatinazko filmetan gehitu zuten eta olio esentzialaren askatzean, sepiolita nanobuztinaren eragina aztertu zuten, filma uretan denbora tarte ezberdinetan sartuz. Iltze-kanelaren osagai nagusietakoa eugenola denez, uretan eugenolaren askatzea gelatinazko filmetatik eta sepiolitadun gelatinazko filmetatik kontrolatu zen. Sepiolitadun filmek eugenolaren mailakako askatzea erakutsi zuten, gelatinazko filmetan eugenolaren gehienezko askatzea 45 minututan eman zen bitartean.

1.5 Etorkizuneko joerak eta aukerak ikuspuntu globaletik

Elikagaien prozesatze industrian sortutako elikagai-zaborretatik erauzitako konposatuei arreta berezia ematen ari zaie azken urteotan. Izan ere, ingurumen eta ekonomia ikuspuntutik elikagai-zaborren kantitate handien (azalak, oskolak, patsa osoak) kudeaketak arazo larriak eragiten ditu. Egoera hau gainditzeko, sehaskatik hilobira eta ekonomia zirkularra bezalako industri-kontzeptu ekologikoak garatu dira, industriako hondakinak produktu eta aplikazio berrietarako lehengai moduan erabiltzeko helburuarekin.

Azken urteotan linazi-olioaren enkapsulazioan eta azenarioaren prozesatze industrian sortutako hondakinetatik, gelatinazko kapsulen hondakinetatik eta azenario hondakinetako zuntzetatik konkretuki, gelatinazko filmak prestatzeko zenbait ikerketa burutu dira (Iahnke et al., 2015). % 8,5eko azenario hondakina zuten gelatinazko filmak eguzki-lore olioa paketatzeko erabili ziren eta azenarioko karotenoideen presentziak olioa oxidaziotik babestu zuela ikusi zen. Crizel eta lankideek (2016) masusta-urdin zukua lortzeko prozesuan lortutako konposatu aktibodun filmak prestatzeko kapsulen hondakinetako gelatina ere erabili zuten. Masusta-urdinaren zuntz dietetikoa filma eratzeko soluzioan gehitu zen eta zuntz kontzentrazio ezberdineko arrain gelatinazko filmak eguzki-lore olioa paketatzeko erabili ziren. Aktibitate antioxidatzailea 35 egun baino gehiagoz olioa biltegian gorde ostean aztertu zen eta 0,15 g/mL–ko zuntz

kontzentraziodun filmek aktibitate antioxidatzailerik handiena zutela ikusi zen, denboran zehar gelatinazko film hauek peroxido balio konstante eta egonkorrak erakutsi baitzituzten.

Hondakinen kudeaketaren legislazioak elikagai-industriako hondakinen balioztatzea nabarmentzen du (Ravindran eta Jaiswal, 2016). Hortaz, paketatze aktiboak garatzeko industria hondakinak lehengai moduan erabiltzea merkea eta ekologikoki erakargarria da. Hondakinak balio erantsidun produkzioan erabiltzea ekonomia zirkularraren izaerarekin dator, hau da, iturri biologiko berriztagarriak ekonomikoki bideragarriak diren produktu bilakatzea (**1.1 irudia**).



1.1 irudia Elikagaien prozesatze hondakinen eta azpi-produktuen balioztatzea ekonomia zirkularrerantz.

Honi dagokionez, lehengaien iturriez gain, fabrikatze prozesuek ere eginkizun garrantzitsua betetzen dute. Nahiz eta estrusioa ondo finkatutako industria teknika izan, ez da gelatinekin asko erabili. Hala ere, behi gelatinaren (Nur Hanani et al., 2013) eta arrain gelatinaren (Etxabide, Guerrero, eta de la Caba, 2016) estrusioan egin berri diren ikerketa lanek fabrikazio prozesu hau gelatina prozesatzeko metodo egokia dela iradokitzen dute. Gainera, gelatinaren urtze-puntu baxuak, material hau beste kontsumogaiak baino tenperatura baxuagotan estrusio bidez prozesatzea ahalbidetzen du, bere bideragarritasuna handitzeaz gain prozesuari jasangarritasuna gehituz.

Estrusio termoplastikoa erabilera askotakoa, oso eraginkorra eta fabrikazio teknologia etengabea dela kontuan edukiz eta, aldi berean, elikagaien prozesatze hondakinetatik gelatina oso erabilgarria denez, teknika honen erabilerak gelatinaren produkzioa handitu eta elikagaiak paketatzeko aplikazioetara gelatinazko filmen erabilera zabaldu dezake.

Azkenik, biodegradazioaren ebaluazioa gakoa da gaur egungo elikagaien paketatzearen merkatu-gaitasuna handitzeko. Nahiz eta poliesterretan oinarritutako elikagaien paketatzeen biodegradagarritasunari buruzko zenbait lan orain gutxi argitaratu diren (Arrieta et al., 2014; Song et al., 2016), gelatinazko filmekin lan gutxi burutu dira (Etxabide et al., 2016a; Uranga et al., 2016). Hortaz, elikagaiak paketatzeko disziplinarteko ikerkuntza arlo honi elkartutako film aktibo hauen bizi amaierako analisia etorkizunean burutuko den helburuetako bat izatea espero da.

Laburbilduz, aurretik aipaturiko ekonomia zirkularrekin zerikusia duten hiru mailei (erauzketa, produkzioa, eta zakarren tratamendua) dagokienez, errendimenduak handitzeko eta gai kimikoak gutxitzeko helburuarekin etorkizuneko lanetan hiru prozesu hauen hobekuntzan fokatzeko ahaleginak egingo dira, lehiakorrak eta jasangarriak diren elikagaien paketatzeari bidea emanez.

2 Materialak eta metodoak

2.1 Materialak

Arrain gelatina komertziala (A mota, 200 bloom, % 11,06ko hezetasuna eta % 0,147ko errautsak) eskuzabaltasunez Weishardt International-ek (Liptovsky Mikulas, Eslovakia) emandakoa zen. Glizerola eta laktosa Panreac Química S.A.-tik (Bartzelona, Espainia) erosi ziren, plastifikatzaile eta saretze erreaktibo gisa erabiltzeko, hurrenez hurren. Glutaraldehidoa (GTA, % 25 w/v uretan), Panreac Química S.A.-k. (Bartzelona, Espainia) eta genipina (GP, ≥ % 98 HPLC purutasuna), Sigma-Aldrich-ek (Madril, Espainia) hornitutakoak, filmen prestaketarako saretze erreaktibo gisa erabili ziren. Tetrahidrokurkumina (THC) Sabinsa Corporation-ek (New Jersey, USA) emandakoa, antioxidatzaile moduan erabili zen. 2,2-difenil-1-pikril hidrazil (DPPH), Folin Ciocalteu erreaktiboa eta azido galikoa Sigma-Aldrich-etik (Saint-Louis, USA) erosi ziren. Sodio karbonatoa (Na_2CO_3) Merck (Fontenary Sous Bois, France) eta 2,6-di-tert-butil-4-metilfenol (BHT) Sigma-Aldrich-ek (Saint-Louis, USA) hornitutakoak ziren. Metanola (MeOH) gradu analitikokoa zen eta ura berriz destilatua.

2.2 Filmen eta biokonpositeen prestaketa

2.2.1 Filmen prestaketa

Laktosa kantitate ezberdineko (% 10, 20 eta 30, ehunekoaren araberako pisua gelatina idorrarekiko) gelatinazko filmak disoluzio metodoa erabiliz prestatu ziren. Lehenengo, arrain gelatina 5 g eta beharrezko laktosa kantitatea 100 mL ur destilatuan disolbatu ziren, berogailu magnetiko batean nahastea 80 ºC-an eta 200 bira minutuko abiaduran 30 minutuz irabiatzen utziz. Ondoren, % 10 glizerola (gelatina idorrarekiko) disoluzioan gehitu zen eta 1 N HCl-rekin edo 1 N NaOH-rekin disoluzioaren pH-a 2,0ra (pH azidoa izendatua) edo 10,0era (pH basikoa izendatua) egokitu zen, hurrenez hurren, eta nahastea beste 30 minutuz 80 ºC-an irabiatzen utzi zen. pH-a aldatu gabeko filmak ere prestatu ziren eta pH berezkoa (5,4) izenez deitu ziren. Gero, filma eratzeko soluziotik 17 mL Petri ontzi bakoitzean isuri ziren eta hauek 48 orduz giro tenperaturan lehortzen utzi ziren tratatu gabeko (NH) filmak lortzeko. Ondoren, Petri

ontzietatik desitsatsitako film batzuk 105 ºC-an 24 orduz labean berotu ziren, tratatutako (HT) filmak lortuz.

Filmak GTA-rekin eta GP-rekin ere prestatu ziren. Horretarako, gelatinazko filmak (50 µm-tako lodiera) aurretik azaldu den bezala prestatu ziren. Laburbilduz, 5 g gelatina 100 mL ur destilatuan disolbatu ziren, nahastea berogailu magnetiko batean 80 ºC-an eta 200 bira minutuko abiaduran 30 minutuz irabiatzen utziz. Ondoren, % 10 glizerola (gelatina idorrarekiko) disoluzioan gehitu zen eta 1 N NaOH-rekin disoluzioaren pH-a 10,0era egokitu zen. Ondoren, saretze erreaktiboa (laktosa, GP edo GTA) disoluziora gehitu zen eta nahasteak 5 minutuz 37 ºC-an irabiatzen utzi ziren. Aurreko ikerketa batzuetan oinarrituz, % 20 laktosa (Etxabide et al., 2015b), % 0,75 GTA (Chiou et al., 2008), edo % 0,25 GP (Ma et al., 2013), denak gelatina idorrarekiko ehunekoak, saretze erreaktiboen kontzentrazio optimoak bezala soluziora gehitu ziren. Azkenik, filma eratzeko soluziotik 17 mL Petri ontzi bakoitzean isuri ziren eta disoluzioak 48 orduz giro tenperaturan lehortzen utzi ziren filmak lortzeko. Laktosarekin prestatutako filmen kasuan, hauek Petri ontzietatik desitsatsi ziren eta 105 ºC-an 24 orduz labean berotu ziren, saretutako filmak lortzeko.

THC-rekin prestatutako filmen kasuan, 5 g gelatina eta % 20 laktosa (gelatina idorrarekiko ehunekoa) 100 mL ur destilatuan disolbatu ziren, nahastea 80 ºC-an eta 200 bira minutuko abiaduran 30 minutuz berogailu magnetiko batean irabiatzen utziz. Ondoren, % 10 glizerola eta % 5 THC (gelatina idorrarekiko ehunekoak) duen nahastea gelatinazko disoluzioan gehitu zen eta 1 N NaOH-rekin disoluzioaren pH-a 10,0era egokitu zen. Gero, disoluzioa ultrasoinu ekipoan (Elmasonic S 30 (H), Singen, Germany) giro tenperaturan 5 minutuz utzi zen eta ondoren, nahastea beste 30 minutuz 80 ºC-an eta 200 bira minutuko abiaduran irabiatzen utzi zen. Azkenik, filma eratzeko soluziotik 17 mL Petri ontzi bakoitzean isuri ziren eta disoluzioak 48 orduz giro tenperaturan lehortzen utzi ziren filmak lortzeko. Filmak Petri ontzietatik desitsatsi ziren eta 105 ºC-an 24 orduz labean berotu ziren G filmak (laktosa gabeko

gelatinazko filmak), G-THC filmak (THC-dun laktosarik gabeko gelatinazko filmak), GL filmak (laktosadun gelatinazko filmak), eta GL-THC filmak (THC-dun eta laktosadun gelatinazko filmak) lortzeko.

Filmen karakterizazioa baino lehen, hauek ganbera klimatiko batean 25 ºC eta % 50eko hezetasun erlatiboko baldintzapean 48 orduz gorde ziren. Lodiera gertuenez 0,001 mm-ko QuantuMike digimatic mikrometroaren (Mitutoyo Espainia) bidez neurtu zen. Gutxienez hiru neurketa egin ziren lagin bakoitzeko puntu ezberdinetan eta batezbestekoa eta desbiderapena erakutsi ziren.

2.2.2 Biokonpositeen prestaketa

Batera biratzen duten torloju bikoitzeko estrusio-makina, Thermo Haake MiniLab II (Thermo Fisher Scientific) mikro nahasgailua, gelatinazko xaflak sortzeko erabili zen. Estrusio-elikadura 40 g gelatina, % 10 glizerola (gelatina idorrarekiko ehunekoa) eta laktosa kantitate ezberdinak (% 10, 20 eta 30, gelatina idorrarekiko ehunekoak) NaOH 1 M erabiliz pH-a 10.0era egokitutako ur destilatuan (% 50, gelatina idorrarekiko ehunekoak) nahasiz prestatu zen. Nahastea eskuz nahasi zen, nahaste homogeneo bat lortu arte. Ondoren, estrusio-makina 1,6 g/min-ko abiaduran elikatu zen, estrusio-zilindroaren tenperatura 90 ºC-an zehaztu zen, torlojuaren abiadura 70 bira minutuan egokitu zen, eta momentuaren balioak 25 eta 30 N·cm bitartekoak izan ziren.

Xaflak giro tenperaturara hoztu ondoren, gelatinazko laginak lauki txikitan moztu ziren eta ondoren, pelletak injektatu ziren. Thermo Haake MiniJet II (Thermo Fisher Scientific) injektorea arrain gelatinazko biokonpositeak lortzeko erabili zen. Azterturiko propietateen arabera, injekzio molde ezberdinak erabili ziren; molde esferikoak edo hezur-formako moldeak. Injektatutako biokonpositeak 105 ºC-an 270 minutuz berotu ziren. Berotze denbora Etxabide eta lankideek (2015b) egindako lanaren arabera aukeratu zen. Bertan, laktosadun gelatinaren egitura sekundarioan

aldaketak eragiteko 105 ºC-an % 30 laktosa kantitatea zuten laginak gutxienez 270 minutuz berotzea beharrezkoa zela erakutsi zen. Azkenik, laginak aztertu aurretik, hauek ganbera klimatiko batean 25 ºC eta % 50eko hezetasun erlatiboko baldintzapean 48 orduz gorde ziren.

2.3 Karakterizazio fisiko-kimikoa

2.3.1 Hezetasun edukia (MC) eta disolbaturiko masa totala (TSM)

Konposizio bakoitzeko hiru lagin pisatu ziren (m_w) eta jarraian laginak 105 ºC-an 24 orduz aire-zirkulazioko labe batean lehortu ziren. Ondoren, filmak berriro ere pisatu ziren (m_0) eta MC-ren balioak beheko formula bidez kalkulatu ziren:

$$MC\ (\%) = \frac{m_w - m_0}{m_w} \times 100$$

Gero, lagin lehorrak sodio azidadun (0,02 g/100 mL, mikrobioen hazkuntza ekiditeko) ur destilatuan (30 mL) murgildu ziren. Flaskoak, noizbehinkako agitazio geldopean 25 ºC-an 24 orduz ganbera klimatiko batean gorde ziren. Ez-disolbatutako materia pisatu aurretik (m_f), laginak 105 ºC-an 24 orduz aire-zirkulazioko labean lehortu ziren. TSM, 24 orduz ur destilatuan murgildutako film lehorren disolbatutako materiaren ehunekoa bezala azaldu zen (Cuq et al., 1996; Kunte et al., 1997):

$$TSM\ (\%) = \frac{m_0 - m_f}{m_0} \times 100$$

2.3.2 Ura xurgatzeko gaitasuna

Biokonpositeen ura xurgatzeko gaitasuna analisi grabimetriko bidez aztertu zen, ASTM D570-98 (ASTM, 1998) arauari jarraituz. Biokonposite bakoitzeko hiru lagin pisatu ziren (W_0) eta pH 7 zuen fosfato buffer soluzio gazian (PBS) laginak murgildu ziren. Ondoren, denbora zehatz batzuetan laginak buffer soluziotik atera, paperezko zapi batekin lehortu eta berriro ere pisatu ziren (W_t). Prozesua handitze-balio

konstanteak lortu arte errepikatu zen. Ura xurgatzeko gaitasuna (S) ondorengo ekuazioa erabiliz kalkulatu zen (Martínez-Ruvalcaba et al., 2009):

$$S\ (\%) = \frac{(W_t - W_0)}{W_0} \times 100$$

Ura xurgatzeko gaitasuna (S) denborarekiko (t) irudikatzen duen grafikoa marraztu zen, S-ren oreka determinatzeko.

2.3.3 Fourierren transformatuaren bidezko espektroskopia infragorria (FTIR)

FTIR analisia Nicolet Nexus FTIR espektrofotometroan burutu zen (Thermo Scientific), Golden Gate (Specac) ATR osagarria erabiliz. Guztira, 32 ekorketa egin ziren 4 cm^{-1}-eko erresoluzioarekin. Neurketak 4000 eta 800 cm^{-1}-eko tartean egin ziren. Espektro guztiak Savitzky-Golay funtzioa erabiliz leundu ziren. Kurben egokitze prozedurarako, banden posizioen gidan amida zonako espektroaren bigarren deribatua erabili zen, OriginPro 9.1 softwarearen laguntzaz.

2.4 Propietate optikoak

2.4.1 Distira-neurketak

Distira 60º-ko eraso-angeluan neurtu zen, ASTM D-523-14 (ASTM, 2014) arauari jarraituz eta gainazal laua duen Multi Gloss 268 plus distirametroa (Konica Minolta) erabiliz. Konposizio bakoitzeko laginetan hamar neurketa egin ziren 25 ºC-an.

2.4.2 Kolore-neurketak

Kolorea CR-400 Minolta Croma Meter (Konica Minolta) kolorea neurtzeko gailua erabiliz neurtu zen. Film zatiak plater zuri baten gainean jarri ziren (kalibrazio plater zuriaren balio estandarrak L*= 97,39, a*= 0,03 eta b*= 1,77 izan ziren) eta L*, a* eta b* kolore parametroak CIELAB kolore eskala erabiliz neurtu ziren: L*= 0-tik (beltza) L*= 100-era (zuria), -a*-tik (berdetasuna) +a*-ra (gorritasuna), eta –b*-tik (urdintasuna) +b*-ra (horitasuna). Laktosa kantitatearen funtziopean HT filmen kolore aldaketa (ΔE*) laktosa kantitate berdineko NH filmekiko ondorengo formula bidez kalkulatu zen:

$$\Delta E^{*}=\sqrt{(\Delta L^{*})^{2}+(\Delta a^{*})^{2}+(\Delta b^{*})^{2}}$$

Arrexka-indizeak (BI) kolore marroiaren purutasuna adierazten duenez eta arretze-prozesu ez-entzimatikoetan oso garrantzitsua den parametroa denez (Olivas et al., 2007; Palou et al., 1999), BI balioak ondorengo moduan kalkulatu ziren:

$$BI\ (\%)=\frac{x-0.31}{0.172}\times 100$$

non,

$$x=\frac{(a^{*}+1.75L^{*})}{(5.645L^{*}+a^{*}-3.012b^{*})}$$

2.4.3 Argia xurgatzeko gaitasuna

Filmen argiarekiko hesi-propietateak determinatzeko, V-630 ultramore ikuskorreko (UV-vis) espektrofotometroa (Jasco) erabili zen. Argiarekiko xurgatzea 200-800 nm bitarteko uhin-luzeretan neurtu zen eta konposizio bakoitzeko hiru lagin aztertu ziren.

2.4.4 Fluoreszentziako espektroskopia

Fluoreszentzia emisio neurketak kontrolatutako kubetadun (Holder TLC50, Quantum North West) Photon Technology International (PTI, Horiba ABX) espektrofotometroa erabiliz egin ziren eta espektroak FeliX32 softwarea erabiliz lortu ziren. Gelatinazko filmak 335 nm-an kitzikatu ziren eta espektroak 360-365 nm bitartean 105 ºC-an 30 minuturo neurtu ziren.

2.5 Hesi-propietateak

2.5.1 Uraren kontaktu-angelua (WCA)

WCA-ren neurketak OCA20 kontaktu-angelu sistema (DataPhysics Instruments) erabiliz egin ziren. Filmaren hidrofobotasuna aztertzeko 3 µL-ko ur

destilatu tanta bat filmaren gainazalean ezarri zen eta tantaren irudia SCA20 softwarea bidez lortu zen. Konposizio bakoitzeko bost neurketa egin ziren 25 ºC-an.

2.5.2 Ur lurrunaren iragazkortasuna (WVP)

WVP-ren balioak PERME™ W3/0120 (Labthink Instruments Co. Ltd.) hezetasuna kontrolatua zuen ganbera klimatiko batean neurtu ziren. Film bakoitza 7,4 cm-ko diametroko laginetan moztu zen, analisi-azalera 33 cm^2-koa izanik. Filmak 38 ºC-an eta % 90eko hezetasun erlatiboan mantendu ziren, ASTM E96-00 (ASTM, 2000) arauari jarraituz. WVP analisi grabimetriko bidez neurtu zen, pisua konstantea izan arte. Lehenengo ur lurrunaren transmisio-abiadura (WVTR) kalkulatu zen:

$$\mathrm{WVTR}\left(\frac{g}{s\cdot cm^2}\right)=\frac{G}{t\times A}$$

non, G pisu aldaketa (g), t denbora (s), eta A analisi-azalera (cm^2) diren.

Ur lurrunaren iragazkortasuna (WVP) honela kalkulatu zen:

$$\mathrm{WVP}\left(\frac{g}{s\cdot cm\cdot Pa}\right)=\frac{\mathrm{WVTR}\times L}{\Delta P}$$

non, L laginen lodiera (cm) eta ΔP filmean zehar ur lurrunaren presio partzialaren diferentzia (Pa) diren. Konposizio bakoitzeko hiru lagin neurtu ziren.

2.6 Propietate mekanikoak

Trakzio erresistentziaren (TS) eta haustura elongazioaren (EB) neurketak sistema elektromekaniko (MTS Insight 10) batean 25 ºC-an eta ASTM D1708-93 (ASTM, 1993) arauari jarraituz burutu ziren. Laginak 4,75 mm × 22,25 mm-ko tiretan moztu ziren eta film-konposizio bakoitzeko gutxienez bost lagin entseatu ziren.

2.7 Karakterizazio termikoa

2.7.1 Analisi termograbimetrikoa (TGA)

Neurketa termograbimetrikoak Mettler Toledo TGA SDTA 851 (Mettler Toledo S.A.E.) ekipoarekin egin ziren. Saiakuntzak 25 ºC-tik 800 ºC-ra gauzatu ziren, 10 ºC/min-ko berotze-abiadurarekin eta giro inertean (10 mL N_2/min) erreakzio termo-oxidatzaileak ekiditeko.

2.7.2 Ekorketa diferentzialeko kalorimetria (DSC)

DCS-ko neurketak beso-robot bat eta hozteko unitate bezala hozkailu elektrikoa zituen Mettler Toledo DSC 822 (Mettler Toledo S.A.E.) ekipoan egin ziren. Laginak (4,0 ± 0,1 mg) hermetikoki itxitako aluminiozko kapsuletan sartu ziren, -50 ºC-tik 250 ºC-ra 10 ºC/min-ko berotze-abiaduran giro inertean (10 mL N_2/min) laginak berotzerakoan masa galerak ekiditeko.

2.7.3 Analisi mekaniko-dinamikoa (DMA)

DMA-ko neurketak tentsio-moduan Eplexor 100N (Gabo Qualimeter) ekipoa erabiliz neurtu ziren. Entsegua 1 Hz-ko maiztasun konstantean burutu zen. Esfortzu anplitudea % 0,05-ean finkatu zen eta tenperatura tartea -100 ºC-tik 140 ºC-ra 2 ºC/min-ko berotze-abiaduran igo zen.

2.8 Gainazal eta egituraren karakterizazioa

2.8.1 Ekorketazko elektroi-mikroskopia (SEM)

Haustura-gainazalaren morfologia bistaratzeko emisio-eremuzko Hitachi S-4800 (Hitachi High-Technologies Corporation) ekorketazko elektroi-mikroskopioa 15 kV-tako azelerazio tentsiopean erabili zen. Konposizio bakoitzeko laginak bi aldeko zinta itsasgarriaren laguntzaz metalezko oinarrian kokatu ziren eta behaketa aurretik urrez estali ziren (JFC-1100) argoizko ingurune hutsean.

2.8.2 Indar atomikozko mikroskopia (AFM)

Laginen morfologia giro baldintzetan AFM bidez aztertu zen. AFM-ko irudiak ekorketazko zundazko mikroskopioa (Nanoscope IIIa Multimode™, Bruker) erabiliz lortu ziren. Aldizkako kontaktu metodoa erabili zen 200-400 kHz-tako maiztasun erresonantzian, 0,6-1,0 Hz-tako ekorketa tartean eta 10-80 N/m-ko indar konstanteko punta/kantileberra airean erabiliz. Laginen prestaketari dagokionez, konposizio bakoitzeko 80 ºC-an zegoen filma eratzeko soluzioaren bolumen txiki bat (10 µL) bi aldeko zinta itsasgarriarekin substratu (1,5 cm-ko diametroa) bati itsatsiriko eta 80 ºC-ra beroturiko mikazko xafla (1,0 cm-ko diametroa) baten gainen ezarri zen, gelatinaren konglomerazio posibleak ekiditeko. Ondoren, ondo hedaturiko film meheak lortzeko biraketa abiadura handia (200 rpm) 120 s-z erabili zen. Azkenik, Petri ontzietatik desitsatsitako film batzuk 105 ºC-an 24 orduz labean berotu ziren eta lagin guztiak ganbera klimatiko batean 25 ºC eta % 50eko hezetasun erlatiboko baldintzapean 48 orduz gorde ziren beraien egitura aztertu aurretik.

2.8.3 X-izpien bidezko espektroskopia fotoelektronikoa (XPS)

Filmen gainazalen analisi kimikorako K-Alpha espektroskopioa (ThermoFisher Scientific) erabili zen. AlKα iturri monokromatikoa (hv = 1486,6 eV) 200 µm-tako diametrotako puntuaz aktibatu zen. Espektro osoa (0-1350 eV) 200 eV-ko pasatze energia konstanteaz lortu zen eta bereizmen handiko espektroa aldiz 40 eV-ko pasatze energia konstanteaz lortu zen. Sakontasun-profila (3-10 nm inguruan) Ar^+-ren hauste bidez lortu zen. C 1s, N 1s eta O 1s espektroen kuantifikazioa eta kokapena ThermoFisher Scientific–ek emandako AVANTAGE softwarea bidez gauzatu zen.

2.8.4 Mikroskopia optikoa

Mikroskopio optikoa filmen gainazala aztertzeko erabili zen eta mikroskopio digitalaren (Leica) bidez 40X handitzea duten mikrografia optikoak lortu ziren.

2.8.5 X izpien difrakzioa (XRD)

XRD-ren azterketak 40 kV eta 40 mA-tan lan egin zuen difrakzio unitate (PANalytic Xpert PRO) batekin egin ziren. Erradiazioa Cu-Kα (λ = 1,5418 Å) iturritik sortu zen eta difrakzio datuak 2,5º eta 50º tarteko 2θ balioetatik lortu ziren. θ, laginarekiko X-izpiaren elektroi-sortaren eraso-angelua da.

2.8.6 Filmen porositatearen neurketa

Filmen porositatearen ehunekoa merkuriozko intrusio porosimetro (MIP) bidez lortu zen, merkuriozko intrusio porosimetroa (Autopore IV, Micromeritics Instrument) erabiliz. Lorturiko intrusio kurbek, aplikatutako merkurio-presio balio bakoitzeko filmean sarturiko merkurioaren bolumena merkurioaren intrusio seinalearekin erlazionatzen du. Porositatea, aplikatutako merkurio-presioa (0,0036-228 MPa) eta merkurioa sartu zen poroen tamaina erlazionatuz determinatu zen. MIP azterketa bitartean, hasierako hustuketa presioa 50 µm Hg-takoa zen, 5 minututako hustuketa denboran. Merkurioaren betetze presioa 0,53 psia-koa zen eta orekatzeko denbora 10 s-koa izan zen.

2.8.7 Biokonpositeen dentsitate eta porositate neurketak

Konposizio bakoitzeko hiru lagin esferikoen dentsitateen balioak, ura xurgatzeko gaitasunaren azterketa ondotik kalkulatu ziren. Lagin bakoitzaren diametroaren batezbestekoa (d), diametroak kalibragailu (Mitutoyo Corporation, Japan) bidez hiru aldiz neurtuz kalkulatu zen, eta masa (m), 5 dezimalen irakurketa ahalbidetzen zuen ES 125 SM balantza elektronikoa (Precisa Ldt.) erabiliz pisatu zen. Laginen dentsitatea (ρ) ondorengo moduan kalkulatu zen:

$$\rho\left(\frac{g}{cm^3}\right)=\frac{6m}{\pi d^3}$$

non, m laginaren masa (g) eta d esferaren diametroa (cm) ziren. Biokonpositeen dentsitateen (ρ_x) balioak 105 ºC-an 270 minutuz biokonpositeak berotu ondoren neurtu

ziren eta bero tratamendu gabeko biokonpositeak ($\rho_{kontrol}$) kontrol laginak bezala erabili ziren.

Porositatea ondorengo ekuazio bidez kalkulatu zen (Nakamatsu et al., 2006):

$$\text{Porositatea } (\%) = \left(1 - \frac{\rho_x}{\rho_{kontrol}}\right) \times 100$$

non, ρ_x eta $\rho_{kontrol}$ laktosa kantitate berdineko biokonpositeen dentsitateen balioak ziren.

2.9 Aktibitate antioxidatzailea

2.9.1 Tetrahidrokurkuminaren (THC) egonkortasun termikoa

TGA analisia, TGA-Q 500 (TA Instruments) ekipoan egin zen. Lagina (10 mg), platinozko kapsula batean sartu zen eta 24 ordutako azterketa 105 ºC-an giro inertean (60 mL N_2/min) burutu zen, oxidazio termikoa saihesteko.

2.9.2 THC-ren askatzea eta filmen masa galera

THC-ren askatzea, 25 ºC-an eta 250 bira minutuko abiaduran filmak (1,5 cm x 2,0 cm) 5 egunez MeOH disoluzioan (5 mL) murgildu ostean aztertu zen. Konposatu antioxidatzailea argitik babesteko, filmak beirazko ontzi ilunetan murgildu ziren. UV-vis espektrofotometro (Perkin-Elmer Lambda 18 spectrometer, Perkin-Elmer) bidez, argiarekiko xurgatzea 250-800 nm bitartean neurtu zen. MeOH-ren xurgatze espektroak 5 egunez 24 orduro neurtu ziren eta konposizio bakoitzeko hiru lagin aztertu ziren.

5 egunetako murgilketaren ostean, filmak soluziotik atera eta egun batez giro tenperaturan lehortzen utzi ziren. Ondoren, filmak ganbera klimatikoan 48 orduz gorde ziren eta azkenik beraien pisua neurtu zen. Konposizio bakoitzeko hiru lagin erabili ziren eta film bakoitzaren masa galera ondorengo ekuazioaz kalkulatu zen:

$$\text{Masa galera } (\%) = (1 - \frac{W_5}{W_0}) \times 100$$

non, W_0 murgilketa aurretik eta W_5 5 egunetako murgilketaren ostean filmen pisuak ziren.

2.9.3 Fenolikoen guztizko edukia (TPC)

TPC-ren balioak Folin-Ciocalteu entsegua erabiliz lortu ziren. 5 egunetako filmen murgilketaren ostean, MeOH soluzioaren 50 µL, 10 mL-tako ontzi batera pasa ziren eta Folin-Ciocalteu erreaktiboaren 500 µL gehitu ziren, soluzioa sutsuki astinduz. Ondoren, % 20 (w/v) Na_2CO_3 soluziotik 1000 µL gehitu ziren eta soluzioa berriro ere sutsuki astindu zen. Azkenik, ontziaren bolumena ur destilatuaz bete zen eta soluzioa 2 orduz giro tenperaturan eta iluntasunean geldi utzi zen. Ondoren, kontrol erreaktiboarekiko (MeOH) soluzioren xurgatzea 760 nm-an UV-vis espektrofotometroa bidez neurtu zen. Entsegu guztiak hirukoiztuta egin ziren eta TPC mg azido galikoaren baliokide (GAE) moduan azaldu zen.

2.9.4 DPPH erradikalak ezabatzeko aktibitatea

DPPH erradikalak ezabatzeko aktibitatea Molyneuxen (2004) metodoaren arabera neurtu zen. 5 egunetako filmen murgilketaren ostean, MeOH soluzioaren 2 mL DPPH soluzioaren (150 µM) 2 mL-rekin nahasi ziren. Nahastea sutsuki astindu zen eta ondoren, giro tenperaturan eta iluntasunean 30 minutuz geldi utzi zen. Erradikal askeak ezabatzeko aktibitatea erreferentzia moduan erabili zen butil hidroxitolueno (BHT) soluzioarekin alderatu zen. Inhibizio balioak (I) 517 nm-an emandako xurgatze balioen txikitzearekin kalkulatu ziren:

$$I\ (\%) = \frac{A_{kontrol} - A_{lagin}}{A_{kontrol}} \times 100$$

non, $A_{kontrol}$ MeOH soluzioaren xurgatzea eta A_{lagin} 5 egunetako murgilketaren ostean soluzioaren xurgatzea diren. Entsegu guztiak hirukoiztuta egin ziren.

2.10 Filmen desintegrazioa

Simulazio entsegu moduan, materialaren desintegrazioa laborategi-mailan aztertzeko, filmak lurrean lurperatu ziren (Prakash-Maran et al., 2014). Laburki azalduz, Petri ontziak lurra ontziratzeko erabili ziren eta lurraren mikroflora naturala degradaziorako ingurune moduan erabili zen. Hasierako mikrofloraren konposizioa pH-aren menpekoa da. Lurraren hasierako pH-a 1:5 masa/bolumen erlazio (1 g lur/5 mL ur destilatu) bidez neurtu zen eta 7,3-koa zen. Gelatinazko filmak angeluzuzen forman (2 cm x 3 cm) moztu ziren eta ondoren lurraren gainazaletik 4 cm-ra lurperatu ziren. Laginak giro tenperaturan inkubatu ziren eta entsegu guztian zehar (15 egun) lurraren hezetasuna % 100 izan zen. Filmen desintegrazioa FTIR bidez jarraitu zen.

2.11 Ingurumen analisia

Ingurumen analisia ISO 14014-ak (ISO 1404, 2006) ezarritako ildo nagusien eta gomendioen arabera egin zen. Hortaz, ebaluazioa lau fasetan bereizi zen: helburuaren eta helmenaren definizioa, bizi zikloaren inbentarioa (LCI), bizi zikloaren ingurumen eraginaren ebaluazioa (LCIA) eta emaitzen interpretazioa.

Analisi honen helburu nagusia ingurumen inpaktuak definituz arrain gelatinazko filmen ingurumen-karga kalkulatzea da, filmen paketatzea diseinatzerakoan egokiak diren neurriak proposatzeko eta honela, beraien merkatu ahalmena handitzeko. Paketatzeko filmetan egin berri diren analisietan ikusi den bezala (Günkaya eta Banar, 2016), aukeratutako unitate funtzionala 1 m^2 (50 μm-tako lodiera duen filma) izan zen. Lan honetan, “sehaskatik-sehaskara” ikuspuntua kontuan hartu zen eta hiru fase nagusi zehaztu ziren: lehengaien erauzketa, filmen manufaktura eta bizi amaiera.

Analisi hau egiteko SimaPro 7.3.3 softwarea erabili zen. Erauzketa fasea ez zenez gure laborategian egin, arrain gelatinaren kasurako LCI-rako datuak literaturatik lortu ziren (Karim eta Bhat, 2009) eta glizerolaren eta erauzketa prozesuan erabilitako gehigarrien kasuan SimaPro softwarean eskuragarri dagoen Ecoinvent 2.2. datu

basetik datuak lortu ziren. Filmen fabrikazioa gure laborategian egin zenez, lan honetan oinarrituta LCI datuak jaso ziren. Azkenik, bizi amaierako faserako datuak Euskal Herrian kokatutako Lapatx konpostaje-plantari esker lortu ziren. Ingurumen analisia egiterakoan, suposizio batzuk kontuan hartu ziren. Plastifikatzaile bezala erabilitako glizerola, biodiesela lortzeko soja-olioaren ekoizpenean lortutako azpi-produktutzat hartu zen. Bizi amaierako fasean, film hondakinen 1 kg-tik 200 g konpost bezala kontsideratu ziren eta gainerako materia organikoa biodegradazio-prozesuan parte hartzen duten mikroorganismoek digeritu zutela kontuan hartu zen. Gainera, lurraren hobekuntzarako sortutako konposta saihesturiko produktutzat hartu zen.

Inbentarioko datuetan oinarrituz, amaierako emaitzak Eco-indicator 99 metodologian erabilitako ingurumen-kategorietan aurkeztu ziren. Metodologia honek ingurumen-inpaktuak hiru kalte-kategoriatan edo amaiera-puntutan taldekatzen ditu: giza osasuna, ekosistemaren kalitatea eta baliabideak (Calderón et al., 2010). Lan honetan, tarteko puntuetan neurketak egin ziren, puntu hauek, faktoreen karakterizazioan emisioen garrantzia islatzen duten inpaktu-kategoriako kausa-efektu kateari lotuta daudelako (Bare et al., 2000). Giza osasunaren kategoriak tarteko puntuetan 6 inpaktu-kategoria biltzen ditu: kartzinogenoak, organiko arnasgarriak, ez-organiko arnasgarriak, klima-aldaketa, erradiazioa eta ozono-geruza. Inpaktu-kategoria hauek DALY eskala (ezintasunagatik egokitutako bizi urteak, *Disability Adjusted Life Year*) darabilte. Ekosistemaren kalitateak ekotoxikotasuna, azidotzea/eutrofizazioa eta lurraren erabilera kontuan edukitzen ditu. Ekotoxikotasuna eta lurraren erabilera potentzialki eragindako frakzioa (PAF m^{-2} $year^{-1}$, *Potentially Affected Fraction*) eta azidotzea/eutrofizazioa potentzialki desagertutako frakzioa (PDF m^{-2} $year^{-1}$, *Potentially Disappeared Fraction*) terminoetan adierazten dira. Gainera, baliabideen kategoriak mineralak eta erregai fosilak kontuan izan ditu; biak MJ gaineratiko energia bezala adierazten dira. Azterturiko inpaktu-kategorien garrantzi erlatiboa kontuan hartzeko, inpaktu balio normalizatuak irudikatu ziren. Normalizazioa, kategoria adierazleen

emaitzen eta europar mailako eguneratutako emisio garrantzitsuenen erreferentzien proportzioak determinatuz burutu zen.

2.12 Analisi estatistikoa

Datuei faktore bakar baten bariantza analisia (ANOVA) burutu zitzaien, SPSS softwarea (SPSS Statistic 20,0) erabiliz. Post hoc konparaketa anitzak Tukey-ren froga anizkoitzaren bidez determinatu ziren, $P < 0,05$-eko esangura mailarekin.

3 Arrain gelatinazko film jasangarriak

3.1 Laburpena

Erregai fosilen agortzearen eta giza jarduerak eragindako ingurumen kutsaduraren inguruan sortutako kezkek, bizi zikloan zehar ingurumen-karga baxuagoko material berriztagarrietan oinarritutako produktuen garapena bideratu dute (Yates eta Barlow, 2013). Aurretik aipatu moduan, Europan, 2015 urtean plastikoen eskaera 58 milioi tonara iritsi zen; horietatik % 39,9a paketatze-industriara bideratu zen eta ehuneko horretatik gehiengoa epe motzeko aplikazioetan erabili zen. Gainera, kontsumitutako 25,8 milioi tona zabortegietara eraman ziren, Europar Batasuneko (EB) herrialde gehienetan lurperatzea zaborren kudeaketarako lehenengo aukera delako (PlasticsEurope, 2016). Behar ugarietarako plastiko mota ezberdinak erabiltzen dira, polipropilenoa (PP), dentsitate baxuko polietilenoa (LDPE), dentsitate altuko polietilenoa (HDPE) edo polibinil kloruroa (PVC) merkatu ezberdin askotan erabiltzen diren plastiko sintetiko arruntenak izanik. Petroliotik eratorritako plastikoen inpaktua txikiagotzeko, film organikoetan arreta nabaria jarri da (Leceta et al., 2014), horien artean, gelatinazko filmak bezalako elikagaien prozesatze hondakinetatik lortzen diren proteinekin prestaturiko filmetan (Reddy eta Yang, 2013; Silva et al., 2014). Arrain hondakinetatik ekoitzitako gelatinaren gaiak berriki arreta handia bereganatu du. Arrain azalek eta hezurrek, arrainen pisu totalaren % 30a osatzen dutenez, arrain-industriako hondakinak gelatina ekoizteko etorkizun oneko bidea kontsideratzen dira (Gómez-Guillén et al., 2002). Gainera, hondakin horien balioztatzeak, zaborren kudeaketa arazoak gutxiagotu ditzake (Kittiphattanabawon et al., 2005), hondakinen maneiu desegokiagatik sorturiko arazo ekologiko larriak eta ingurumen-kutsadura ekidinez.

Kapitulu honen helburua, arrain gelatinazko filmen propietate funtzionaletan, hala nola, propietate mekanikoetan, optikoetan eta hesi-propietateetan, filmak prestatzeko baldintzen eragina aztertzea izan zen. Espektroskopia eta difrakzio metodoen bidez propietateetan ikusitako aldaketak gelatinazko egituran emandako

aldaketekin erlazionatu ziren. Gainera, ingurumen-inpaktuak neurtu ziren, filmen abantailak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.

3.2 Emaitzak eta eztabaida

Paketatze teknologiak produktuaren babesarekin batera honen itxura, kontsumitzailearen onargarritasuna eta gizarte nahiz ingurumen kontzientzia bezalako arazoak modu orekatuan kontuan izan behar ditu. Alderdi hauek kontuan hartuz, pH-aren (azidoa, berezkoa, basikoa) eragina arrain gelatinazko filmen propietate mekanikoetan, optikoetan, hesi-propietateetan eta materialaren egituran aztertzeko helburuarekin, filmen karakterizazioa egin zen.

3.2.1 Filmen karakterizazioa

Ultramore (UV) argitik ondo babestua egoteak, paketatutako produktuan UV argiak eragindako oxidazio erreakzioak sorturiko narriadura ekidin dezake (Díaz-Visurraga et al., 2010). **3.1 irudia**n ikus daitekeen moduan, arrain gelatinazko filmek UV argia xurgatzeko gaitasun handia erakutsi zuten, arrain gelatinan dauden lotura peptidiko (200-250 nm) eta ohizko aminoazido aromatikoengatik, hala nola, tirosina eta fenilalanina bezalako kromoforoengatik (250-300 nm) (Samira, Thuan-Chew, eta Azhar, 2014; Hong et al., 2014).

UV argiarekiko erresistentziaz gain, gardentasuna eta kolorea bezalako propietate optikoek kontsumitzailearen erosteko gogoan eragiten dute eta beraz, hauek kontuan eduki beharreko propietateak dira. Filmak gardenak ziren, **3.1 irudia**n ikus daitekeen moduan 600 nm-an hauek UV argia xurgatu ez zutelako, filmen soluzioa prestatzeko erabilitako pH-a kontuan hartu gabe.



3.1 irudia Arrain gelatinazko filmen UV-vis espektroa, soluzioaren pH-aren funtziopean.

Era berean, kolore parametroetan ez zen aldaketa esanguratsurik (P > 0,05) ikusi, **3.1 taula**n zerrendatutako L*, a* eta b* balioek erakutsi zuten bezala. **3.1 taula**n distiraren balioak agertzen dira. Distira, filmen gainazalen laztasunarekin zuzenki erlazionatua dago eta beraz, distira balioak baxuak dira gainazala latza denean. 60º-etako eraso-angeluan neurtutako distira balioak 70 DU (distira unitateak) baino handiagoak badira, honek gainazala distiratsua eta leuna dela adierazten du (Keyf eta Etikan, 2004). Soluzioaren pH-a aldatzerakoan, filmek distira handiagoa erakutsi zuten eta beraz, berezko pH-an prestatutako filmak baino gainazal leunagoa aurkeztu zuten, pH-aren aldaketak filmen gainazala aldarazi zuela adieraziz.

3.1 taula Arrain gelatinazko filmen propietate optikoak, soluzioaren pH-aren funtziopean.

pH	L*	a*	b*	Distira$_{60º}$ (DU)
Berezkoa	96,13 ± 0,53^{a}	-0,18 ± 0,09^{a}	2,86 ± 0,41^{a}	35,89 ± 2,85^{a}
Azidoa	96,14 ± 0,44^{a}	-0,18 ± 0,04^{a}	2,65 ± 0,10^{a}	152,00 ± 1,58^{c}
Basikoa	96,19 ± 0,25^{a}	-0,10 ± 0,03^{a}	3,01 ± 0,10^{a}	119,75 ± 6,90^{b}

$^{a-c}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

UV argiarekiko hesi-propietateez gain, urarekiko hesi-propietateak neurtu ziren. Urarekiko kontaktu angelua (WCA) gainazalaren bustitze ahalmenaren neurketa da eta materialaren izaera hidrofiloa edo hidrofoboa definitzeko erabiltzen da. WCA-ren balio baxuek, 90º baino txikiagoek, bustitze ahalmena handia edo izaera hidrofiloa adierazten dute eta aldiz WCA-ren balio altuek, 90º baino handiagoek, bustitze ahalmen txikia edo izaera hidrofoboa adierazten dute (Yuan eta Lee, 2013). Arrain gelatinazko filmen WCA-ren balioak **3.2 taula**n erakusten dira. Ikus daitekeen moduan, pH-a aldatzerakoan WCA-ren balio handiagoak lortu ziren. Honen arrazoia, proteinan emandako konformazio aldaketek, gelatinaren talde ez polarrak filmaren gainazalerantz bideratu zituztela izan zitekeen.

3.2 taula Arrain gelatinazko filmen uraren kontaktu-angeluaren (WCA) eta ur lurrunaren iragazkortasunaren (VWP) balioak, soluzioaren pH-aren funtziopean.

pH	WCA (°)	WVP 10^{12} (g cm^{-1} s^{-1} Pa^{-1})
Berezkoa	76,85 ± 1,36[a]	1,48 ± 0,16[a]
Azidoa	91,35 ± 3,26[b]	1,52 ± 0,10[a]
Basikoa	88,61 ± 3,36[b]	1,81 ± 0,16[b]

[a-b] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Ingurugirotik datorren edota ingurugirorantz doan hezetasunaren aldaketa kontrolatzeko, filmek erabileraren araberako ur lurrunaren iragazkortasunaren (WVP) balio egokiak erakutsi behar dituzte. Arrain gelatinazko filmen WVP-ren balioak **3.2 taula**n erakusten dira. Ikus daitekeen moduan, pH basikoan proteinaren desnaturalizazioa handiagoa denez, WVP-ren balioak handiagoak (P < 0,05) ziren, proteinaren egituraren destoleste handiago batek ur-molekulen irazkortasuna erraztu zuela adieraziz.

Azkenik, materialak erabiltzerakoan beraien osotasuna mantentzeko trakzio erresistentziaren (TS) eta haustura elongazioaren (EB) propietate egokiak izatea oso garrantzitsua denez, filmen propietate mekanikoak aztertu ziren. **3.3 taula**n ikusi

daitekeen moduan, propietate mekaniko hoberenak filmen prestaketan pH basikoa erabili zenean lortu ziren. pH-a aldatu zenean TS balioak nabarmenki ($P < 0,05$) handitu ziren eta pH basikoan prestatuko filmen kasuan, 50 MPa baino TS balio altuagoak lortu ziren. Hala ere, soluzioaren pH-ak ez zuen EB-n nabarmenki ($P > 0,05$) eragin.

3.3 taula Arrain gelatinazko filmen trakzio erresistentziaren (TS) eta haustura elongazioaren (EB) balioak, soluzioaren pH-aren funtziopean.

pH	TS (MPa)	EB (%)
Berezkoa	$36,52 \pm 2,98^{a}$	$1,79 \pm 0,54^{a}$
Azidoa	$43,02 \pm 0,52^{b}$	$2,31 \pm 0,33^{a}$
Basikoa	$52,39 \pm 3,16^{c}$	$2,88 \pm 0,68^{a}$

$^{a-c}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Arrain gelatinazko filmen propietate funtzionalak filma eratzeko soluzioaren pH-ak eragindako egitura aldaketekin erlazionatzeko, proteinen egitura tertziarioa determinatzeko ohikoa den XRD teknika erabili zen eta arrain gelatinazko filmen difrakzio bandak soluzioaren pH-aren funtziopean **3.2 irudia**n erakusten dira.



3.2 irudia Arrain gelatinazko filmen XRD ereduak, soluzioaren pH-aren funtziopean.

Eredu guztiek bi difrakzio banda erakutsi zituzten, 21º-etako banda, gelatinaren kristalinitatearekin erlazionatu zena, eta 7,4º-tako banda, kolageno natiboaren helize hirukoitzaren hondarrari egokitu zitzaiona (Learner et al., 2008; Schmidt, Giacomelli, eta Soldi, 2005). Soluzioaren pH-a aldatu zenean, kristalinitate baxuagoa ikusi zen eta honek desnaturalizazio handiagoagatik egitura nahaspilatuagoa lortu zela adierazi zuen, gelatinaren egitura tertziarioan aldaketak eragin zituena (Mikšovská eta Larsen, 2007). Proteinen egitura tertziarioa interakzioa ez-kobalenteez zehaztuta dagoenez, hala nola, hidrogeno zubizko loturak, interakzio hidrofoboak, eta erakarpen eta aldarapen kargak, soluzioaren pH-aren aldaketak interakzio fisiko hauek eten ditzake, **3.2 irudia**n ikus daitekeen kristalinitatearen bandaren intentsitatea txikiaraziz. Emaitza hauek WVP-ren emaitzekin bat egin zuten, desnaturalizazio maila handiagoak ur lurrunaren iragazkortasuna erraztu zuela ikusi zelako. Bestetik, pH azidoan eta berezkoan helize hirukoitzaren hondarra pH basikoan baino txikiagoa zen. Nahiz eta gelatina kolagenoaren hidrolisi partzialetik (helize hirukoitzaren haustura ematen da eta zorizko kiribil egitura osatzen da) lortzen den, gelatina kolageno natiboaren egitura partzialki berreskuratzeko gai da. Fenomeno honi kiribiletik helizerako transformazioa deritzo (Ghoshal, Stapf, eta Mattea, 2014). Emaitzek, arrain gelatinazko filmak lehortzen ziren bitartean kolagenoaren helize hirukoitzaren birtolestea baldintza basikoetan erraztu egin zela erakutsi zuten.

Proteinen bigarren egiturarekiko amida I bibrazioen sentiberatasunagatik espektroskopia infragorria proteinen egitura aztertzeko baliagarria den tresna da (Fabian eta Mäntele, 2002). Hortaz, gelatinaren egitura sekundarioa α-helize/nahaspilatua eta β-xafla konformazioen terminoetan aztertzeko, amida I banda (1600-1700 cm^{-1}), proteinen lotura peptidikoen karbonilo taldeen (C=O) bibrazioei elkarturikoa, FTIR espektroskopia bidez aztertu zen. **3.3 irudia**n ikusten den moduan, gelatinazko filmen bigarren egitura sekundarioa α-helize/nahaspilatua konformazioez, 1650 cm^{-1}-eko bandari elkartutakoa, eta β-xafla konformazio antiparaleloez,

1630-1615 cm^{-1} eta 1700-1680 cm^{-1}-eko bandei elkartutakoa, osatuta zegoen nagusiki (Guerrero, Kerry, eta de la Caba, 2014; Susi, Timasheff, eta Stevens, 1967).



3.3 irudia Arrain gelatinazko filmen amida I bandaren egokitze kurbaren espektroak, soluzioaren pH-aren funtziopean.

α-helizea egitura nagusiena zen, soluzioaren pH-a kontuan hartu gabe. Hala ere, baldintza basikoetan prestatutako filmak azalera handiagoa erakutsi zuten (**3.4 taula**) eta hortaz, baldintza azidoetan prestatutako filmak baino α-helize egitura kantitate handiagoak zituzten. Bestalde, filmak baldintza azidoetan prestatu zirenean, β-xafla egituraren (1700-1680 cm^{-1}) xurgatze azaleraren gutxitzea ikusi zen. Beraz, emaitzek, soluzioaren pH-ak arrain gelatinazko filmen egitura sekundarioa aldatu zuela erakutsi zuten. Ur-disoluzioan, proteinaren aminoazidoak kargatuta daude eta horregatik proteinaren mugikortasuna pH-aren funtziopean dago. pH-a puntu isoelektrikotik urruti dagoenean, proteinaren karga positiborantz edo negatiborantz pH-aren arabera aldatzen da. Karga berdinak bata bestetik aldaratzen direnez, honek proteinaren agregazioak ekiditen ditu. Beraz, barruko interakzioak aldatu egiten dira proteinaren egitura zabalduz (desnaturalizazioa edo destolestea) (Hoque, 2011). Fenomeno horregatik, filmaren egitura aldatu zen eta beraz, aurretik aipaturiko zenbait propietate funtzional ere bai.

3.4 taula Amida I bandaren egokitze kurbaren emaitzen ehunekoak (%), soluzioaren pH-aren funtziopean.

pH	β-xafla/zorizko kiribila (1630-1615 cm^{-1})	α-helizea (1650 cm^{-1})	β-xafla/zorizko kiribila (1700-1680 cm^{-1})
Berezkoa	38,16	57,63	4,21
Azidoa	39,13	58,71	2,16
Basikoa	34,72	61,03	4,25

Gelatinazko filmen propietate funtzionalez gain, beraien biodegradagarritasuna garrantzizko abantaila da komertzialak diren polimero ez biodegradagarriekin alderatuz gero, azken hauek zakarretara bota eta ondorengo zaborren kudeaketan arazoak eta kostuak eragiten dituztelako. Gelatina eta glizerola konposatu biodegradagarriak direnez eta beraien artean erreakzio kimikorik ez dagoenez, filmen biodegradagarritasuna ziurtatzeko biodegradazio azterketa egitea ez da beharrezkoa (UNE-EN 13432, 2001). Hala ere, filmen desintegrazio azterketa filmak lurrean kontrolatutako baldintzetan lurperatuz burutu zen, gelatinazko filmen desintegrazioa

FTIR espektroen bidez aztertzeko. pH ezberdinetan prestaturiko filmen espektroetan (erakutsi gabeko datuak) ez zen aldaketa nabarmenik ikusi. Hortaz, baldintza basikoetan destoleste handiagoa zegoenez eta beraz, interakzioetarako talde eskuragarri gehiago zeudenez, desintegrazioren azterketa baldintza horietan prestatutako filmetan burutu zen eta emaitzak **3.4 irudia**n erakusten dira.



3.4 irudia Arrain gelatinazko filmen FTIR espektroak, hauek lurrean lurperatu aurretik eta desintegrazioaren ondoren.

Xurgatze banda nagusienak 1630-800 cm^{-1}-eko tartean kokatuta zeuden. Gelatinazko bandak, 1630 cm^{-1}-eko C=O loturaren luzatzearekin (amida I), 1530 cm^{-1}-eko N-H loturaren tolestearekin (amida II) eta 1230 cm^{-1}-eko C-N loturaren luzatzearekin (amida III) erlazionatu ziren (Schmidt, Giacomelli, eta Soldi, 2005). Glizerolaren banda nagusiak aldiz, 850, 940 eta 1000 cm^{-1}-eko C-C loturen eta 1050 eta 1100 cm^{-1}-eko C-O loturen bost bandekin erlazionatu ziren (Basu et al., 2011). Desintegrazioan zehar filmen banda esanguratsuen desplazamendurik ikusi ez zen arren, amida I, II eta III banden intentsitateen txikitzea gertatu zen. Gainera, xurgatze banden intentsitateen txikitzea amida II eta III bandetan amida I bandan baino

nabariagoa zen. Biodegradazio maila mikroorganismoak polimero-kateen zehar sartzeko erraztasunaren menpekoa denez, prozesu hau kateen malgutasunaren eta proteinaren zati amorfoaren funtziopean dago, besteen artean (Kijchavengkul eta Auras, 2008).

Emaitzek, mikroorganismoek nagusiki C-N loturaren luzapenean, ondoren N-H loturaren tolestean eta nekez C=O loturaren luzapenean erasotzen zutela erakutsi zuten. Hortaz, amida III (C-N) eta amida II (N-H) talde funtzional hidrolizagarriak amida I (C=O) taldea baino erasotuagoak izateko erraztasun handiagoa erakutsi zuten. Emaitza hauek, aurretik aipaturiko amida taldeen loturak puskatzeko behar den energia kantitatearekin bat datoz. Zehazki, C-N, N-H eta C=O lotura energiak 305 kJ/mol-etakoak, 390 kJ/mol-etakoak eta 799 kJ/mol-etakoak dira, hurrenez hurren. Gainera, aipatzekoa da glizerolaren banda analisian zehar ez zela ia aldatu, lurrean zeuden mikroorganismoek plastifikatzailea eraso egin ez zutela adieraziz. Izan ere, mikroorganismo ugari glizerolan hazi daitezke (Da Silva, Mack, eta Contiero, 2009) eta hortaz, plastifikatzailean emandako mikroorganismoen ugaritzeak proteinaren desintegrazioa sustatu zuen. Ondorioz, lurraren pH-a 7,9-ra igo zen. Handitze txiki hau filmen proteinen amonifikazioagatik izan zitekeen.

3.2.2 Ingurumen analisia

Arrain gelatinazko filmen ingurumen-inpaktuari dagokionez, 3 fase nagusi aztertu ziren: lehengaien erauzketa, filmen manufaktura eta bizi amaiera. **3.5 irudia**n sistemaren mugen diagrama eskematikoa erakusten da.

Arrain gelatinazko filmak prestatzea, arrainen prozesatze-industriako hondakinei balioa eransteko modua da. Hondakin horien % 30a kolageno kantitate handia duten azal eta hezurrez osatua dago (Gómez-Guillén et al., 2002). Erauzketa prozesua sodio hidroxidoan eta ondoren azido azetikoan emandako handitze arinetan datza. Jarraian, gelatinaren erauzketa ur destilatuan 70 ºC-an 90 minutuz burutzen da

eta gero, lagina 18 orduz 50 ºC-an dagoen labe batean lehortzen da. Arrain gelatinaren erauzketa-etekinaren batezbestekoan oinarrituta, lan honetan erabilitako etekina %15a izan zen (Karim eta Bhat, 2009). Prozesu hau ez zen gure laborategian burutu eta beharrezko datuak literaturatik hartu ziren (Karim eta Bhat, 2009). Gainera, arrainen zati jangarrien produkzioa sistemaren mugetatik at zegoen.



3.5 irudia Arrain gelatinazko filmen ingurumen-inpaktuaren sistemaren mugak.

Arrain gelatinazko filmen manufakturari dagokionez, datuak aurretik zehaztutako eta gure laborategian egindako atal esperimentalean erabilitako

prozesuetatik lortu ziren. Filmen manufakturan, lehengaietatik filmak lortzeko prozesuaren ingurumen-karga kontuan eduki zen eta beraz, prozesuan zehar erabilitako gehigarriak nahiz kontsumitutako energia aintzakotzat hartu ziren. Erabilitako glizerola biodiesela lortzeko soja-olioaren ekoizpenean lortutako azpi-produktutzat hartu zenez, soja-olioaren esterifikazio prozesua metil-esterra eta glizerola lortzeko aintzat hartu zen.

Azkenik, konposta, hondakinen biodegradatze aerobikoan oinarritutako prozesua, zakarretarako jokalekua izan zen. Filmen 1 kg hondakin bakoitzeko, 200 g konpost hartu ziren eta gainerako materia organikoa biodegradazio-prozesuan parte hartzen duten mikroorganismoek digeritu zutela kontsideratu zen. Konpost instalazioak energetikoki laguntza behar ez zuela aintzat hartu zen eta beraz, kontsumo elektrikorik ez zen kontuan hartu. Prozesu hau ez zen gure laborategian burutu eta aurretik aipatutako datuak Euskal Herrian kokatutako konpost-instalazio batek emandakoak izan ziren. Gainera, analisiaren faseetan ez zen garraiatzea kontuan hartu.

Arrain gelatinazko filmen ingurumen-inpaktuen analisirako Eco-indicator 99 metodoa erabili zen. Metodologia hau oro har Europan erabiltzen da, emaitzak tarteko puntu edo inpaktu-kategorietatik amaiera-puntu edo kalte-kategorietaraino lotzen dituelako, analisian erabilitako iturri eta igorritako substantziek eragindako ingurumen efektu negatiboak emanez (Ingrao et al., 2015). Ingurumen analisi honen helburuen arabera, 3 fase nagusien inpaktu-kategoriak **3.6 irudia**n erakusten dira.

Ikus daitekeen moduan, azterturiko inpaktu-kategoria gehienetan lehengaiaren erauzketa faserik kutsagarriena izan zen. Zehazki, arrain gelatinazko filmek erregai fosilen eta ez-organiko arnasgarrien inpaktu-kategorietan ingurumena gehien kaltetu zuten. Gelatinaren erauzketa prozesuan kontsumitutako energia kategoria horien ingurumen-kargaren erantzule izan zen.



3.6 irudia Arrain gelatinazko filmen ingurumen-inpaktuen balio normalizatuak.

Manufaktura faseari dagokionez, energiaren kontsumoa eta glizerola lortzeko sojaren lantze-prozesua erregai fosilen, lurraren erabileraren eta ez-organiko arnasgarrien ingurumen-kargen erantzule nagusiak izan ziren. Lurraren erabilerari dagokionez, ingurumen-karga hori glizerola, biodiesela lortzeko soja-olioaren ekoizpenean lortutako azpi-produktutzat hartutako produktua, plastifikatzaile bezala erabiltzeagatik izan zen, izan ere, soja-aleen lantzea kontuan eduki baitzen.

Elkarketari, hau da, lehengaien erauzketa fasearen eta filmen manufaktura fasearen elkartzeari, eta bizi amaierako faseari dagozkien inpaktu balioak **3.5 taula**n argi ezberdinduta agertzen dira. Modu honetan, ingurumen-kategoria guztietan konposta ikuspegiak emandako onurak behar bezala ikusi daitezke. Konpostak hondakin biodegradagarriak lur-produktu erabilgarri bilakatzen zuenez, sorturiko karbono dioxidoak ez zuen berotegi-efektuko gasen hazkundean eragin, jadanik

karbonoaren ziklo biologikoaren parte zelako (Song et al., 2009). Gainera, lurra egokitzeko sortu zen konpostaren produkzioaren eta honi elkarturiko emisioen saihesteak, ingurumen-inpaktuan efektu positiboa eragin zuen.

3.5 taula Arrain gelatinazko filmen bizi amaiera faseko balio normalizatuak.

Inpaktu kategoria	Elkarketa	Bizi amaiera	Guztizkoa
Erregai fosilak	4,17583 E-05	-1,44962 E-07	4,16133 E-05
Mineralak	4,54575 E-07	-3,11713 E-09	4,51458 E-07
Lurraren erabilera	9,90902 E-06	-4,49753 E-09	9,90452 E-06
Azidotasuna/eutrofizazioa	1,60126 E-06	-8,53697 E-08	1,51589 E-06
Ekotoxikotasuna	7,04678 E-07	-2,80816 E-09	7,01870 E-07
Ozono-geruza	2,11478 E-09	-6,95414 E-12	2,10782 E-09
Erradiazioa	2,54337 E-07	-3,69787 E-10	2,53968 E-07
Klima-aldaketa	4,46968 E-06	-2,76574 E-07	4,19311 E-06
Ez-organiko arnasgarriak	2,00957 E-05	-2,18191 E-07	1,98775 E-05
Organiko arnasgarriak	1,13861 E-08	-2,85968 E-10	1,11001 E-08
Kartzinogenoak	1,85121 E-06	-2,54244 E-09	1,84866 E-06

Aurretik azaldutako emaitzek berriki egindako ingurumen analisiekin bat egin zuten. Izan ere, lan horietan erauzketa eta manufaktura prozesuetako energia kontsumoak filmen ingurumen-inpaktuen eragile nagusienak zirela ondorioztatu zen (Günkaya eta Banar, 2016). Nahiz eta biopolimeroak beraien izaera berriztagarri eta biodegradagarriarengatik materia ekologikotzat hartzen diren, erauzketaren eta produkzioaren jarduerek ingurumen-kargak sortu ditzakete, almidoia (Günkaya eta Banar, 2016), kitosanoa (Leceta et al., 2013) eta agarra (Leceta et al., 2014) bezalako polisakaridoetan oinarritutako filmetan ikusi zen bezala. Aipatzekoa da biopolimeroekin egindako ingurumen analisi gehienak aurretik aipaturiko polisakarido horietan (Leceta et al., 2014; Günkaya eta Banar, 2016; Leceta et al., 2013) edo azido polilaktikoa bezalako poliesterretan burutu zirela (Benetto et al., 2015). Aldiz, proteinetan oinarritutako filmen inguruan (Deng et al., 2013; Garrido et al., 2014) edo aurkeztutako lanean egin zen bezala sehaskatik-hilobirako fase ezberdineko ingurumen analisiak burutu dituzten ikerketa oso gutxi daude. Emaitza hauek, ingurumenarekiko jasangarriagoak diren eta propietate funtzional onak dituzten materialak lortzeko filmen garapenerako fase ezberdinen hobekuntzarako harturiko erabakiak sostengatzeko lan

honen garrantzia azpimarratu zuten. Hala ere, nabarmentzekoa da laborategi-mailatik industria-mailara pasatzean hobekuntza batzuk espero direla.

3.3 Ondorioak

Lan honetan, arrain gelatinazko film homogeneoak, gardenak eta koloregabeak prestatu ziren, soluzioaren pH-a kontuan hartu gabe. Gainera, filmek UV argiarekiko erresistentzia handia erakutsi zuten, paketatutako produktua argiak eragindako oxidazio erreakzioetatik babestuz eta beraz, produktuaren kalitatea luzeago mantenduz. Hala ere, soluzioaren pH-ak gelatinaren egituran eragin zuela ikusi zen. Zehazki, pH basikoan prestaturiko filmak 50 MPa-etako trakzio erresistentziak erakutsi zituzten. Arrain gelatinazko filmen propietate funtzional on hauek eta bizi amaierako konpostaren ikuspegiaren efektu positiboek, material ez-biodegradagarri eta ez-berriztagarrien kontsumo handia murrizteko paketatze aplikazioetan film hauek aukerabide moduan erabiltzearen garrantzia azpimarratzen dute.

4 Saretze erreakzioaren kontrola

4.1 Laburpena

Aurreko kapituluetan, gelatinazko filmek propietate funtzional egokiak erakutsi dituzte, hala nola, filma eratzeko gaitasuna, propietate optiko onak eta biodegradagarritasuna; ezaugarri hauek, filmak elikadura-industrian eta industria farmazeutikoan erabiltzea sustatzen dute (Bhutani et al., 2016; Garrido et al., 2013; Li et al., 2015a). Hala ere, gelatinaren berezko hidrofilotasunagatik, proteina honetan oinarritutako filmek hauskortasun handia eta urarekiko sentikortasuna erakusten dute, hauen erabilera aplikazio batzuetan mugatuz. Propietate funtzional hauen hobekuntza proteinaren saretze bidez lortu daiteke (Etxabide et al., 2015b). Gelatinaren saretze kimikoa propietate kimiko eta fisiko hobeak dituen materialak lortzeko bide eraginkorra izan daiteke. Azetilazioa, deamidazioa eta proteinen propietate funtzionalak hobetzeko eskuragarri dauden beste metodo kimikoekin aldaratuz, Maillard erreakzioa beroarekin handizki bizkortzen den erreakzioa da. Nahiz eta literaturako lan gehienak glikazio konjugatuen propietate biologikoetan kontzentratu diren, Maillard erreakzioa proteinen beste propietate funtzionalak hobetzeko etorkizun handiko metodoa izan daiteke.

Maillard erreakzioaren proportzioa faktore batzuen menpekoa da, hala nola, tenperatura, denbora, proteina:karbohidrato ratioa eta pH-a (Lin et al., 2012). Kapitulu honen helburua bi pH-tan (berezko pH-a eta pH azidoa) prestatutako eta berotutako (HT) laktosadun filmen karakterizazioa egitea izan zen, laktosa kantitatearen eta soluzioaren pH-aren eragina filmen propietate fisiko-kimikoetan, mekanikoetan, hesi-propietateetan, eta morfologian aztertzeko.

4.2 Emaitzak eta eztabaida

4.2.1 Propietate fisiko-kimikoak eta hesi-propietateak

Berokuntzagatik laktosadun filmetan ematen den kolore aldaketa Maillard erreakzioaren adierazletzat hartu daiteke. Filmen kolorea CIELAB kolore eskala erabiliz neurtu zen eta L*, a* eta b* parametroak kolore aldaketaren (ΔE*) balioa

kalkulatzeko erabili ziren. Laktosaren gehikuntzak L* eta a* balioen gutxitzea eragin zuen (erakutsi gabeko datuak) eta aldi berean b* balioaren handitzea eragin zuen (**4.1a irudia**). Aldaketa hau berezko pH-an nabariagoa izan zen pH azidoan baino. Hau, ez-protonatutako amina taldeen eta espezie erreaktibotzat hartutako azukrearen kateen forma irekien edukia pH-arekin handitu zelako izan zitekeen (Yayalayan, Ismail, eta Mandeville, 1993). Hortaz, ΔE* gehituriko laktosarekin eta erabilitako pH-arekin aldatu zen (**4.1b irudia**).



4.1 irudia Arrain gelatinazko HT filmen a) b* balioak eta b) ΔE* balioak, pH eta laktosa kantitatearen funtziopean. Lerro berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

ΔE* parametroak laktosa kantitateak eta pH-ak nabarmenki (P < 0,05) Maillard erreakzioaren mailan eragin zutela adierazi zuen. Morales eta Van Boekel-ek (1997) kolorea Maillard erreakzioaren azkeneko etapan sortzen dela ikusi zuten eta asegabeko nitrogenodun polimero eta kopolimero marroien eratzeagatik karakterizatu zen. Berezko pH-an prestaturiko filmek, ΔE* balio handiagoak erakutsi zituztenez, pH handiagoa duen ingurunean Maillard erreakzioa hedatuagoa zegoela ondorioztatu zen. Aipatzekoa da halaber, pH azidoan prestaturiko % 10 laktosadun filmetan ΔE*-ren balio handienak ikusi zirela, baldintza azidoetan erreakzioaren hedatzea laktosa

kantitate baxuetan azkarragoa izan zela adieraziz. Hau, pH baxuan laktosaren forma ziklikoen kantitate handiak oztopo esterikoak eragin zitzakeelako izan zitekeen.

UV argiaren xurgatzearen neurketa Maillard erreakzioaren hedatzea aztertzeko beste metodo bat da. Berotutako gelatinazko film guztiek UV argiarekiko xurgatze ahalmen handia erakutsi zuten (**4.2 irudia**), arrain gelatinan dauden lotura peptidiko (200-250 nm) eta ohizko aminoazido aromatikoengatik, hala nola, tirosina eta fenilalanina bezalako kromoforoengatik (250-300 nm) (Zhao et al., 2013).



4.2 irudia a) Berezko pH-ko eta b) pH azidoko arrain gelatinazko HT filmen UV-vis espektroak, laktosa kantitatearen funtziopean.

Berezko pH-an prestaturiko filmetan (**4.2a irudia**), 420 nm-tik gora neurtutako xurgatzeek saretze erreakzioa azkeneko etapara iritsi zela erakutsi zuten, melanoidina izeneko konposatu marroi eta ez disolbagarriak sortu zirela adieraziz (Li et al., 2015b). Hala ere, pH azidoan prestatutako filmetan (**4.2b irudia**), 420 nm-an lorturiko xurgatze baxuek saretzearen hedatzea baxuagoa izan zela erakutsi zuten. 300 nm inguruko xurgatze banda, pentosidina glikazio produktuaren xurgatzearekin elkartu zen, saretzearen hedapenaren adierazletzat hartu zitekeen konposatu disolbagarria (Etxabide et al., 2015b). pH azidoan prestatutako filmen kasuan, erreakzioa

pentosidina eratu zenean gelditu zen eta berezko pH-ko filmetan aldiz, erreakzioa melanoidina konposatuen eraketa arte hedatu zen.

Aurretik aipatu moduan, erreakzioaren baldintzek Maillard erreakzio produktuen (MRP) eraketan izugarrizko eragina daukate. Van Boekel-en (1998) arabera, Amadori produktuaren bi deskonposizio bide daude; 1-deoxiosona izenekoa, pH altuetan gertatzen dena, eta 3-deoxiosona deritzona, pH baxuetan ematen dena (**4.1 eskema**). Bi bideek deoxiosona konposatuak eratzen dituzte, geroko erreakzioetan parte hartzen duten bitarteko erreaktiboak direnak. Maillard erreakzioaren azkeneko etapak nitrogenodun polimero marroien eraketa bideratzen du.



4.1 eskema Maillard erreakzioaren lehenengo etapa eta Maillard erreakzioaren etapa aurreratuan Amadori produktuaren deskonposaketa bideak pH baldintza ezberdinetan (gal=galaktosa).

Aurretik aipatu moduan, saretze erreakzioaren hedapena Maillard erreakzioan eratutako produktuen bitartez aztertu daiteke. Horien artean, pentosidina Amadori konposatuaren eraketaren ondotik sortzen den lehenengo produktu fluoreszente egonkorra da eta beraz, Maillard erreakzioaren hedapenaren adierazle kimiko moduan erabili daiteke (Labuza eta Basier, 1992). Hortaz, erreakzioaren hedapena aztertzeko, 335 nm-an (pentosidinari elkartutakoa) kitzikatutako gelatinazko filmen emisio espektroak neurtu ziren. **4.3 irudia**n ikus daitekeen moduan, pentosidinari elkartutako emisio banda 410 nm-an agertu zen, beste lan batzuekin bat etorriz (Bhat et al., 2014; Morales eta Van Boekel, 1997).



4.3 irudia a) Berezko pH-ko eta b) pH azidoko arrain gelatinazko HT filmen fluoreszentzia emisio espektroak, laktosa kantitatearen funtziopean.

Berezko pH-an (**4.3a irudia**), banden intentsitateak laktosa kantitatearen igoerarekin handitu ziren, pentosidinaren eraketa eta beraz, erreakzioaren hedapena azukre kantitatearekin handitzen zela adieraziz. Laktosa gabeko filmetan ere emisio banda ikusi zen eta honek, gelatinazko amina taldeekin erreakzionatu zezaketen gelatina lehengaian egon zitezkeen azukre hondarren presentzia adierazten zuen (Duconseille et al., 2015). Beste aldetik, pH azidoan prestaturiko filmen emisio espektroek (**4.3b irudia**) laktosa kantitatearen handitzearekin banden intentsitatea

jaisten zela erakutsi zuten, kolorearen analisian lortutako emaitzekin bat etorriz. Izan ere, kolore ezberdintasun handiena % 10-eko laktosadun filmetan ikusi baitzen.

Glikazioak pentosidina konposatu disolbagarriaren eraketa arte aurrera egin zuenez, pH azidoan sorturiko filmak guztiz disolbagarriak ziren. Hala ere, berezko pH-an prestaturiko filmen disolbagarritasuna laktosaren gehikuntzarekin nabarmenki ($P < 0,05$) gutxitu zen (**4.1 taula**).

4.1 taula pH azidoan eta berezko pH-an prestatutako arrain gelatinazko HT filmen propietate fisiko-kimikoak eta hesi-propietateak.

Laktosa (%)	TSM (%) Berezko pH-a	WCA (º) Berezko pH-a	WCA (º) pH azidoa
0	$75,0 \pm 5,4^{a}$	85 ± 1^{b}	83 ± 3^{b}
10	$57,3 \pm 9,8^{b}$	101 ± 2^{d}	99 ± 1^{c}
20	$26,1 \pm 0,5^{c}$	101 ± 1^{d}	101 ± 1^{d}
30	$31,8 \pm 0,9^{c}$	100 ± 2^{d}	109 ± 1^{f}

[a-f] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Emaitza hauek, kolorearen neurketekin eta UV argiaren espektroekin bat egin zuten, laktosa edukiaren handitzearekin kolorazio handiagoa eta UV argiarekiko xurgatze hobea lortu zelako, hurrenez hurren. Honek, melanoidina konposatu disolbaezinen eraketarainoko glikazioaren hedapen handiagoa adierazi zuen. Emaitza hauek, pH-aren igoerarekin saretze erreakzioa gehiago hedatu zela erakutsi zuten (Wihodo eta Moraru, 2013). Gainera, % 20 laktosadun filmetan disolbagarritasun balio txikienak % 26 ingurura iritsi ziren. Hala ere, laktosaren balioa % 30era igotzerakoan, ez ziren TSM balioak txikitu; honek, saretze erreakzio maximoa eta disolbagarritasun minimoa lortzeko laktosa kantitate zehatz bat zegoela iradoki zuen. Harrezkero, laktosa kantitate handiagoek ez zuten saretze erreakzioa gehiago sustatuko. Emaitza hauek, pH-ak eta laktosa kantitateak saretzearen hedapenean eragin zutela adierazi zuten. Konposatu aktiboen askapenerako gelatinazko filmen erabilera kontuan hartuz, lorturiko emaitzek pH-a eta laktosa edukia kontrolatuz filmen disolbagarritasuna eta beraz, elikagaien paketatzerako film aktiboetatik edota apositu farmazeutikoak diren

filmetatik konposatu aktiboen askatzea kontrolatu zitekeela iradoki zuten (Santoro, Tatara eta Mikos, 2014).

Filmen gainazalen izaera hidrofiloa edo hidrofoboa determinatzeko, urarekiko kontaktu angelua (WCA) neurtu zen. **4.1 taula**n ikus daitekeen bezala, bi pH-en kasuan laktosaren gehikuntzak WCA-ren balioen handitzea eragin zuen. Berezko pH-an prestaturiko filmek WCA-ren balio berdintsuak ($P > 0,05$) erakutsi zituzten, laktosa kantitatea kontuan hartu gabe. Hala ere, pH azidoan prestatutako filmen WCA-ren balioak laktosa edukiarekin handitu ($P < 0,05$) ziren, saretzearen hedapenaren funtziopean zeuden taldeen gainazaleranzko orientazio ezberdinengatik. WCA-ren balio baxuek (< 90º) bustitze ahalmen handia edo izaera hidrofiloa adierazten dutenez eta aldiz, WCA-ren balio altuek (> 90º) bustitze ahalmen txikia edo izaera hidrofoboa adierazten dutenez (Yuan eta Lee, 2013), laktosadun filmek izaera hidrofoboa erakutsi zutela ondorioztatu zen.

4.2.2 Propietate mekanikoak

Propietate mekanikoak aztertu ziren eta trakzio erresistentzia (TS) eta haustura elongazioa (EB) neurtu ziren (**4.2 taula**).

4.2 taula Berezko pH-an eta pH azidoan prestatutako arrain gelatinazko HT filmen propietate mekanikoak.

Laktosa (%)	TS (MPa) Berezko pH-a	TS (MPa) pH azidoa	EB (%) Berezko pH-a	EB (%) pH azidoa
0	51 ± 1^{c}	49 ± 2^{c}	$3,3 \pm 0,1^{ab}$	$2,5 \pm 0,2^{a}$
10	62 ± 2^{d}	43 ± 3^{c}	$3,1 \pm 0,7^{ab}$	$2,2 \pm 0,3^{a}$
20	54 ± 4^{cd}	30 ± 1^{ab}	$2,8 \pm 0,6^{ab}$	$3,3 \pm 0,6^{ab}$
30	54 ± 3^{cd}	28 ± 2^{ab}	$3,3 \pm 0,5^{ab}$	$3,6 \pm 0,8^{ab}$

[a-d] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

pH azidoan prestatutako filmetan, laktosaren gehitzearekin TS balioak txikitu ($P < 0,05$) eta EB balioak handitu ($P < 0,05$) ziren. Emaitza hauekin, pH honetan emandako saretze erreakzioaren hedapen txikiarekin erreakzionatu gabeko laktosak plastifikatzaile moduan jokatu zuela azaldu zitekeen (Bhat eta Karim, 2014). Aldiz,

berezko pH-an prestaturiko filmetan, laktosaren gehikuntza bidez emandako saretzeak ez zituen EB balioak nabarmenki aldatu ($P > 0,05$) baina TS balioak handitu zituen ($P < 0,05$), 50 MPa-etako balioak lortuz.

4.2.3 Egitura-karakterizazioa

Gelatinazko filmen bigarren egitura amida I eta II profilen egokitze kurben bidez aztertu daiteke (Dave et al., 2000). **4.4 irudia**n ikusi daitekeen moduan, gelatinaren xurgatze banda nagusiak 1630 cm^{-1}-eko C=O loturaren luzatzearekin (amida I), 1530 cm^{-1}-eko N-H loturaren tolestearekin (amida II) eta 1230 cm^{-1}-eko C-N loturaren luzatzearekin (amida III) erlazionatu ziren (Etxabide et al., 2015a). Laktosari elkartutako xurgatze banda nagusiak 1180 eta 953 cm^{-1} artean kotatu ziren; 979 eta 987 cm^{-1}-eko bandak C-C loturaren bibrazioari egokitu zitzaizkion, eta 1034 cm^{-1}-eko banda CH_2-OH taldearen C-O loturaren bibrazioekin erlazionatu zen (Wang et al., 2013). Azkenik, glizerolaren banda nagusiak, 850, 940 eta 1000 cm^{-1}-eko C-C loturen eta 1050 eta 1100 cm^{-1}-eko C-O loturen bibrazioekin erlazionatu ziren (Basu et al., 2011).



4.4 irudia a) Berezko pH-an eta b) pH azidoan prestaturiko arrain gelatinazko HT filmen FTIR espektroak, laktosa kantitatearen funtziopean.

4.4a irudian ikus daitekeen moduan eta pH azidoan prestatutako filmekin alderatuz gero (**4.4b irudia**), berezko pH-an prestaturiko filmetan laktosa kantitatea handitu zen heinean, 1100-1000 cm^{-1}-eko tartean kokaturiko bi bandek banda zabalago bat sortu zutela ikusi zen.

Aurretik aipatu moduan, aldaketa hauek pH-ak Maillard erreakzioaren hedapenean duen eraginarekin erlazionatuta egon zitezkeen. Gainera, **4.3 taula**n ikusten den bezala, amida II bandaren posizioan ere laktosa kantitateak eta pH-ak eragin zuten. Aipatzekoa da, laktosaren gehikuntzarekin amida I bandaren posizioa ez zela aldatu, amida II banda uhin-luzera txikiagoetara pittin bat mugitu zen bitartean, pH-a kontuan hartu gabe.

4.3 taula Amida I eta II banden posizioak laktosa kantitatearen eta pH-aren funtziopean.

	pH azidoa			Berezko pH-a		
Laktosa (%)	**Amida I (cm^{-1})**	**Amida II (cm^{-1})**	**Amida I/II**	**Amida I (cm^{-1})**	**Amida II (cm^{-1})**	**Amida I/II**
0	1631	1528	1,99	1632	1529	1,82
10	1631	1531	2,03	1632	1534	1,89
20	1632	1535	2,09	1632	1536	1,94
30	1632	1537	2,18	1632	1538	2,04

Gelatinaren egituran emandako aldaketak analisi kuantitatibo batekin erlazionatzeko, amida I-ari eta II-ari esleitutako bandak egokitze-kurba prozesu bidez sakonago aztertu ziren. Alde batetik, gelatinaren amida I profilak bi konposatu nagusi zituen, β-xafla (1630-1615 cm^{-1} eta 1700-1680 cm^{-1}) eta α-helize (1650 cm^{-1}) egiturei elkartuak egon zitezkeenak. Beste aldetik, amida II profilak lau konposatu nagusi zituen, β-xafla (1500 cm^{-1}), zorizko kiribil (1509-1523 cm^{-1}), α-helize (1540-1556 cm^{-1}) eta β-bira (1565 cm^{-1}) egiturei elkartuak egon zitezkeenak (Hu et al., 2010; Lefevre eta Subirade, 2000).

4.4 taulan ikusi daitekeen moduan, α-helize egiturak ehunekorik handiena erakutsi zuen. pH azidoan prestatutako filmen kasuan, laktosaren gehikuntzarengatik

gelatinaren bigarren egituran emandako aldaketak ez ziren nabariak izan, disolbagarritasun analisian lortutako emaitzekin bat etorriz. Hau, pH baxuan ematen den proteinaren desnaturalizazio baxuagatik saretze erreakziorako talde erreaktibo gutxiago egotearekin erlazionatu zitekeen. Hala ere, berezko pH-an prestaturiko filmetan laktosa kantitatea handitu heinean, β-xaflaren azalera pittin bat handitu eta α-helizearen azalera pixka bat txikitu ziren. Emaitza hauek, aurretik erakutsitako **4.1 taula**ko disolbagarritasunaren aldaketekin bat zetozen.

4.4 taula Amida I-aren egokitze-kurbaren azalera (%), laktosa kantitatearen eta pH-aren funtziopean.

Amida I	**pH azidoa**			**Berezko pH-a**		
Laktosa (%)	**β-xafla 1622 cm^{-1}**	**α-helizea 1650 cm^{-1}**	**β-xafla 1685 cm^{-1}**	**β-xafla 1622 cm^{-1}**	**α-helizea 1650 cm^{-1}**	**β-xafla 1685 cm^{-1}**
0	37,75	60,01	2,24	44,95	48,43	6,62
10	37,27	59,87	2,86	45,46	47,47	7,07
20	36,93	60,49	2,58	45,45	47,51	7,04
30	38,44	58,81	2,75	45,16	47,05	7,79

Amida II bandari dagokionez (**4.5 taula**), pH azidoan prestaturiko filmetan laktosa kantitatea handitu zenean, β-xafla eta α-helize egiturak txikitu ziren eta β-bira nahiz zorizko kiribil egiturak ordea handitu ziren. Hala ere, pH-aren handitzeak β-xaflaren azalera txikitzea eta α-helizearen egitura handitzea eragin zituen, β-bira nahiz zorizko kiribil egiturak ia-ia aldatu ez ziren bitartean.

4.5 taula Amida II-aren egokitze-kurbaren azalera (%), laktosa kantitatearen eta pH-aren funtziopean

Amida II	**pH azidoa**				**Berezko pH-a**			
Laktosa (%)	**β-xafla**	**Zorizko kiribila**	**α-helizea**	**β-bira**	**β-xafla**	**Zorizko kiribila**	**α-helizea**	**β-bira**
0	5,05	34,52	55,31	5,12	6,19	32,24	54,34	7,23
10	4,89	36,21	52,68	6,22	5,39	31,95	55,83	6,83
20	3,64	37,86	51,51	6,99	4,01	31,58	57,13	7,28
30	1,75	40,15	50,76	7,34	3,73	31,32	57,09	7,86

Proteinen egitura sekundarioko aldaketak kateen arteko interakzioekin hertsiki erlazionatuta daudenez, badirudi pH azidoan emandako Maillard erreakzioaren

hedapen txikiak kateen mugimendua sustatu zuela, ziur asko hidrogeno zubizko bezalako lotura fisikoengatik, proteinaren bigarren egituran aldaketak eraginez. Berezko pH-an prestatutako filmetan ordea, saretze erreakzioaren hedapena handiagoa zenez, kateen mugimendua mugatua zegoen eta beraz, bigarren egiturako aldaketak ez ziren nabarmenak izan.

Berotutako gelatinazko filmen egitura-aldaketak sakonago aztertzeko, XRD analisia burutu zen (**4.5 irudia**). Eredu guztiek bi difrakzio banda erakutsi zituzten, 21º-etako banda, gelatinaren kristalinitatearekin erlazionatu zena eta 7,4º-tako banda, kolageno natiboaren helize hirukoitzaren hondarrari egokitu zitzaiona (Schmidt, Giacomelli, eta Soldi, 2005).



4.5 irudia Arrain gelatinazko HT filmen XRD ereduak, laktosa kantitatearen eta pH-aren funtziopean.

Proteinaren hirugarren egituran pH-aren eragina aztertzerakoan, emaitzek, proteinaren kateetako molekulen arteko interakzioengatik pH azidoan kolageno natiboaren helize hirukoitzaren birtolestea eta gelatinaren egitura kristalinoaren antolaketa oztopatua egon zitekeela erakutsi zuten. Laktosaren gehikuntzari

dagokionez, aurretik aipatu moduan, geroz eta pH baxuagoa izan orduan eta gelatinaren desnaturalizazio baxuagoa eman zen eta beraz saretze maila txikiagoa lortu zen. Horregatik, filmean erreakzionatu gabeko laktosa kantitate handiagoa soberan geratu zen eta honek, helize hirukoitzaren birtolestea eta gelatinaren egitura kristalinoaren berrantolaketa oztopatu zitzakeen.

Saretze erreakzioaren eragina filmen egitura-aldaketetan sakonki aztertzeko, SEM analisia burutu zen eta filmen zeharkako sekzioen irudiak laktosa kantitatearen funtziopean **4.6 irudia**n erakusten dira.



4.6 irudia pH azidoan prestatutako a) % 0 eta b) % 30 laktosadun arrain gelatinazko HT filmen eta berezko pH-an prestatutako c) % 0 eta % 30 laktosadun arrain gelatinazko HT filmen zeharkako sekzioko SEM-ren irudiak.

Zeharkako sekzioko SEM-ren irudiek laktosa gabeko gelatinazko filmek gainazal latza zutela erakutsi zuten eta hau, saretu gabeko laginetan geratutako kolageno zuntzengatik izan zen (Wang et al., 2015), XRD analisian erakutsi zen moduan. Hala ere, laktosa gehitu zenean helize hirukoitzaren kantitatea gutxitu zenez,

zuntz egitura ez zen hain nabaria izan (Liu et al., 2016), **4.5 irudia**n ikusi zen moduan. Ondorioz, behin erreakzioa eman zenean (**4.6b irudia** eta **4.6d irudia**), zeharkako sekzioko SEM-ren irudiek egituraren aldaketa nabaria erakutsi zuten. Izan ere, % 30 laktosadun filmetan erdigune leunagoa eta homogeneoagoa ikusi zen. Porositatearen analisiek, 0,01 eta 0,001 µm bitarteko erradiodun poro oso fineko egitura erakutsi zuten, % 8tik % 12ra bitarteko poro irekiekin.

4.3 Ondorioak

Egokitutako propietate funtzionalak lortzeko, gelatina eta laktosaren arteko saretze erreakzioaren hedapena filma eratzeko baldintzen bidez kontrolatu daiteke. pH azidoan, pentosidina eratzerakoan erreakzioaren inhibizioa eman zen, UV-vis espektroskopia bidez ikusi zen bezala, saretzearen hedapena txikiagoa izanik eta ondorioz, guztiz disolbagarriak ziren filmak lortu ziren. Emaitza hauek, film hauen erabilera dosifikazio solidoetan nabarmentzen dute. Izan ere, film polimeriko finez (10-100 µm) geruzatutako pastillak egin ohi dira sendagaiaren askatze-abiadura aldatzeko eta honen egonkortasuna fluxu gastrikoetan hobetzeko. Bestalde, saretze erreakzioak pH handiagoan aurrera egin zuen, kateen mugimendu txikiagoko, urarekiko erresistentzia nahiz UV-vis babes handiagoko, eta 50 MP baino trakzio erresistentzia balio handiagoko filmak lortuz. Azken film hauek, konposatu aktiboa denbora luzeagoetan askatua izateko etengabeko askatze sistemetan erabili daitezke, hala nola, paketatze aktiboetan. Kasu guztietan, lan honetan prestatutako laktosa bidez eraldatutako filmak homogeneoak, gardenak, hidrofoboak eta pororik gabekoak izan ziren.

5 Saretze bidezko gelatinazko filmen hobekuntza

5.1 Laburpena

Maillard erreakzioa, saretzea emateko bidea izan daiteke baina 4. kapituluan erakutsi den bezala, faktore asko daude nabarmenki saretzearen eraketan eragiten dutenak. Horien artean, tenperaturak, berokuntza denborak, eta pH-ak ezinbesteko papera jokatzen dutela uste da. Van Boekel-en (1998) arabera, Maillard erreakzioaren abiadura baldintza basikoetan nabarmenki handitzen da eta orduan, faktore honek nabariki Maillard erreakzioaren garapenean eta filmen propietate funtzionaletan eragiten du. Beraz, kapitulu honen helburua laktosa kantitate ezberdineko gelatinazko filmak baldintza basikoan prestatzea izan zen, propietate optikoengan, mekanikoengan eta hesi-propietateengan laktosa bidezko saretzearen eragina hasierako konposizioaren arabera aztertzeko, eta FTIR eta UV espektroskopia eta disolbagarritasun azterketa bidez ikusitako aldaketak neurtutako propietateekin erlazionatzeko.

5.2 Emaitzak eta eztabaida

5.2.1 Propietate fisiko-kimikoak

Filmek beraien osotasuna mantentzeko duten gaitasuna aztertzeko, hezetasun edukiaren (MC) eta disolbaturiko masa totalaren (TSM) balioak ezagutzea ezinbestekoa da. **5.1 taula**n ikusten den bezala, % 10 laktosa gehitu zenean, MC-ren balioek ezberdintasun hutsala ($P > 0,05$) erakutsi zuten, laktosa kantitate handiagoko filmek handitze esanguratsua ($P < 0,05$) erakutsi zuten bitartean. Disolbagarritasunari dagokionez, aipatzekoa da NH filmak guztiz disolbagarriak zirela, Maillard erreakzioa sustatzeko tenperaturaren eragina erakutsiz, aurreko lan batean azaldu zen moduan (Guerrero et al., 2012). HT filmen kasuan, laktosa gehitzerakoan TSM-ren balioen gutxitze nabaria ($P < 0,05$) ikusi zen. Literaturan, saretutako gelatinazko molekuletatik agregatuak sortzen dituzten pisu molekular handiko konposatuak eratu daitezkeela azaldu da (Chiou et al., 2006; Muyonga, Cole, eta Duodu, 2004). Filmaren disolbagarritasuna saretze mailaren handitzearekin txikitu zenez, ikusitako portaera

Maillard erreakzio bidez emandako gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoarengatik izan zitekeela ondorioztatu zen. % 20 laktosa gehitu zenean, TSM % 12ko balio minimora iritsi zen, laktosa eduki handiagoak erreakzioa gehiago bultzatzen ez zuela adierazteaz gain, balio horrek nagusiki glizerolari zegokiola iradoki zuen, glizerolak hidrogeno zubizko interakzio bidez gelatinarekin elkar eragiten duelako (Guerrero et al., 2011b).

5.1 taula Ez beroturiko (NH) eta beroturiko (HT) arrain gelatinazko filmen lodieraren, hezetasun edukiaren (MC) eta disolbaturiko masa totalaren (MTS) balioak, laktosa kantitatearen funtziopean. ([I]Edozein laktosa kontzentraziotan, NH eta HT filmen lodierak berdinak ziren; [II]HT filmen hezetasun edukia 0 da (erakutsi gabeko datuak); [III]NH filmak guztiz disolbagarriak ziren).

Laktosa (%)	Lodiera[I] (mm)	MC[II] (%)	TSM[III](%)
	NH/HT	NH	HT
0	0,043 ± 0,002[a]	10,669 ± 1,229[a]	77,384 ± 6,334[b]
10	0,044 ± 0,002[a]	10,189 ± 3,506[a]	16,063 ± 2,376[a]
20	0,054 ± 0,005[b]	14,497 ± 0,642[ab]	12,989 ± 4,013[a]
30	0,069 ± 0,003[c]	16,426 ± 2,005[b]	12,846 ± 3,262[a]

[a-c] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Gainazaleko ezaugarriak aztertzeko, distira neurketak egin ziren eta emaitzak **5.2 taula**n aurkeztu dira. Laktosarik gabeko filmetan izan ezik, NH filmek HT filmek baino distira handiagoa eta beraz, gainazal leunagoa erakutsi zuten. Hau, gelatina eta glizerolaren arteko interakzioetan tenperaturak eragin zuelako izan zitekeen, gainazal leunagoa erakutsiz. Laktosadun filmei dagokionez, azukre amorfo higroskopikoek hezetasuna xurgatu dezakete, plastifikatzaile moduan jokatuz eta azukreei kristalizatzen utziz (Sormoli, Das, eta Landgrish, 2013). NH filmen kasuan aldiz, laktosak ez zuen gelatinarekin erreakzionatu, TSM-ren emaitzetan ondorioztatu zen moduan. Hortaz, laktosak hezetasuna xurgatu zezakeen, laktosa kantitatearen handitzearekin MC-ren balioek gora egin zutelako, eta kristalizatu zitekeen, filmen distira handituz ($P < 0,05$). Gainazal kristalinoek distira balio handiak erakusten dituztenez (Rindlav-Westling et al., 1998), NH filmek distira handiagoa erakutsi zuten.

HT filmei dagokionez, laktosaren eta gelatinaren arteko erreakzioak kristalen nukleazioa eta hazkuntza eragotzi zituen, distira balioen txikitzea ($P < 0,05$) eraginez.

5.2 taula Ez berotutako (NH) eta berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen distira balioak, laktosa kantitatearen funtziopean.

Laktosa (%)	$Distira_{60^o}$ (DU)	
	NH	HT
0	$119,75 \pm 6,90^{c}$	$142,50 \pm 1,73^{d}$
10	$141,75 \pm 2,99^{b}$	$118,25 \pm 1,71^{c}$
20	$148,25 \pm 1,26^{b}$	$70,76 \pm 1,61^{b}$
30	$156,75 \pm 0,96^{a}$	$55,15 \pm 2,29^{a}$

$^{a-d}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Kolorea ere garrantzitsua da, produktuaren itxuran eta beraz, kontsumitzailearen onargarritasunean zuzenean eragiten duelako (Monedero et al., 2009). **5.1 irudia**n erakusten den moduan, film guztiak homogeneoak eta gardenak ziren. HT filmen kasuan, kolorea laktosaren gehikuntzarekin aldatu zen, horixka bihurtuz.



5.1 irudia Gardentasuna eta kolore ezberdintasuna berotutako (HT) arrain gelatinazko filmetan, laktosa kantitatearen funtziopean.

Kolore horixkaren garapen hau tenperatura altuetan arrain gelatinaren eta laktosaren artean emandako Maillard erreakzioarekin erlazionatu zen, eta L*, a* eta b* parametroen bidez kuantifikatu zen, **5.3 taula**n erakusten den moduan. NH filmetan, L*, a* eta b* balioek ez zuten aldaketa esanguratsurik ($P > 0,05$) erakutsi, laktosa

kantitatea kontuan hartu gabe. Hala ere, HT filmen kasuan, laktosaren gehikuntzak filmen iluntzeari egokitu zitzaion L* balioen gutxitzea ($P < 0,05$) eragin zuen eta hau, Maillard erreakzioaren etapa aurreratuan eratutako zenbait konposatuengatik izan zen. Gainera, a* eta b* balioak laktosa kantitatearekin nabarmenki ($P < 0,05$) handitu ziren, kolore hori iluna erakutsiz. Hortaz, HT filmetan kolore aldaketa totala (ΔE*) laktosa edukiarekin batera handitu zen, NH filmen erreferentziapean. Kolore aldaketak, laktosak nabarmenki saretze erreakzioaren mailan eragin zuela adierazi zuen, laktosa edukia handietan karbonilo talde kantitate gehiagoren presentziak ΔE*-ren balioen handitzean eragin zuelako.

5.3 taula Ez berotutako (NH) eta berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen L*, a*, b* eta ΔE* balioak, laktosa kantitatearen funtziopean. HT filmen kolore aldaketa NH filmak erreferentziatzat hartuz neurtu zen.

Filma	Laktosa (%)	L*	a*	b*	ΔE*
NH	0	96,19 ± 0,25^{a}	-0,10 ± 0,03^{a}	3,01 ± 0,10^{a}	
	10	95,88 ± 0,11^{a}	-0,24 ± 0,04^{a}	3,17 ± 0,09^{a}	
	20	96,03 ± 0,07^{a}	-0,31 ± 0,02^{a}	3,34 ± 0,09^{a}	
	30	95,71 ± 0,29^{a}	- 0,43 ± 0,05^{a}	3,62 ± 0,13^{a}	
HT	0	96,12 ± 0,49^{a}	-0,81 ± 0,06^{a}	2,99 ± 0,06^{a}	0,71 ± 0,05^{a}
	10	85,66 ± 0,69^{b}	2,73 ± 0,11^{b}	36,92 ± 0,40^{b}	34,38 ± 0,41^{b}
	20	76,84 ± 0,53^{c}	14,01 ± 0,81^{c}	39,86 ± 0,48^{c}	37,33 ± 0,46^{c}
	30	47,85 ± 2,86^{d}	34,69 ± 1,71^{d}	70,99 ± 1,45^{d}	69,13 ± 1,59^{d}

$^{a-d}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Maillard erreakzioak eragindako aldaketa kimikoak FTIR espektroan zenbait aldaketa uztea espero zenez, analisi hau proteinaren eta azukrearen arteko elkarrekintzak aztertzeko erabili zen eta espektroak **5.2 irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, 1100-1000 cm^{-1}-eko tartean kokaturiko bi bandak banda bakar bilakatu ziren eta banda hauen intentsitatea laktosa ehunekoaren handitzearekin gehiagotu zela ikusi zen.



5.2 irudia Arrain gelatinazko HT filmen FTIR espektroak, laktosa edukiaren funtziopean.

Laktosa edukiaren eragina sakonkiago aztertzeko, amida I-ari egokitutako banda Maillard erreakzioagatik gelatinaren egituran emandako aldaketen analisi kuantitatiboa egiteko erabili zen. Amida I-ari dagokion banda proteinaren bigarren egituraren menpekoa denez, banda honek kate polipeptidikoaren talde polarrek hidrogeno zubizko loturen bidez sor ditzaketen interakzioei buruzko informazioa eskaini dezake.

Argi eta garbi, proteinaren destolestea, berezko proteinaren 1650 cm^{-1}-eko banda nagusiko, α-helize/nahaspilatua egiturari esleitua, eta 1630-1615 cm^{-1} eta 1700-1680 cm^{-1} eremuetako banden, β-xaflei egokitutakoa (Hu et al., 2010; Lefevre eta Subirade, 2000), intentsitateen aldaketekin karakterizatu zen, **5.3 irudia**n erakusten den moduan.



5.3 irudia Amida I bandaren egokitze kurbaren espektroa a) ez berotutako (NH) eta b) berotutako (HT) % 20 laktosadun filmentzat.

Egokitze kurba bidez zehaztutako egitura bakoitza kontsideratu zen eta egindako analisi kuantitatiboa **5.4 taula**n erakusten da.

5.4 taula Ez berotutako (NH) eta berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen amida I bandaren egokitze kurbaren emaitzen ehunekoak (%), laktosa edukiaren funtziopean.

Laktosa (%)	NH filmen amida I-aren azalera (%)			HT filmen amida I-aren azalera (%)		
	1625 cm^{-1}	1652 cm^{-1}	1689 cm^{-1}	1625 cm^{-1}	1652 cm^{-1}	1689 cm^{-1}
0	41,65	53,07	5,28	51,10	39,70	9,20
10	36,03	59,48	4,49	50,24	40,15	9,62
20	36,66	58,43	4,91	53,87	36,77	9,36
30	35,38	59,68	4,93	52,18	38,49	9,33

NH filmen kasuan, laktosaren gehikuntzak, honen eta gelatinaren arteko hidrogeno zubizko loturak eragin zitzakeen, proteinen kateen molekularteko interakzioak ahulduz eta α-helizearen (1652 cm^{-1}) handitzea nahiz β-xaflaren (1625 eta 1689 cm^{-1}) txikitzea eraginez. HT filmei dagokienez, β-xafla antiparalelo egituraren molekularteko eraketarengatik 1689 eta 1625 cm^{-1} banden intentsitatea handitu zen (Lefevre, Subirade, eta Pezolet, 2005) eta ondorioz, 1652 cm^{-1}-eko α-helize/nahaspilatuaren banda txikitu zen. Hedatutako β-xafla antiparaleloak agregatutako proteinetan sarritan aurkitzen dira, bereziki beroagatik desnaturalizatutako proteinetan (Susi et al., 1967). Beraz, emaitza hauek agregazioa

eman zela eta agregatu hauek neurri batean β-xaflez osatuta zeudela adierazi zuten (Quinn et al., 2003), Maillard erreakzioaren eragina gelatinaren egituran erakutsiz.

5.2.2 Hesi-propietateak

Argiarekiko babesa materialen funtsezko betekizuna da, argiak oxidazio erreakzioak eta narriadura eragin ditzakeelako (Duncan eta Chang, 2012). **5.4 irudia**n ikus daitekeen moduan, gelatinazko film guztiek UV argiarekiko babes handia erakutsi zuten 200-250 nm bitartean. Balio-tarte honetako xurgatze altua proteinetan dauden lotura peptidikoekin erlazionatu zen (Hong et al., 2014). 250-300 nm bitarteko xurgatzea berriz, kromoforoen presentziari elkartu zitzaion, arrain gelatinan ohikoak diren tirosina eta fenilalanina bezalako aminoazido aromatikoei esaterako. Proteinen alboko talde batzuek, hala nola lisinaren amino taldeek, Maillard erreakzioan parte hartzen dute, aminoazido aromatikoen proportzio erlatiboa eta UV argiaren xurgatzea 250-300 nm-ko tartean handituz.



5.4 irudia a) Ez berotutako (NH) eta b) berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen UV-vis espektroak, laktosa edukiaren funtziopean.

Gainera, **5.4b irudia**n erakusten den modan, HT filmetan 300-400 nm tartean UV ereduaren handitzea ikusi zen. Balio-tarte horietako xurgatze altuak gelatina eta laktosaren arteko erreakzioan sorturiko egitura konjugatuen presentziarekin erlazionatu

zitekeen. Glikazioaren presentzia saretzea neurtzeko maiz erabiltzen denez, 300-400 nm bitarteko xurgatze altua laktosa eta gelatinaren arteko saretze erreakzioaren adierazle izan zitekeen, goian ikusitako propietate fisiko-kimikoen aldaketetan bezala. FTIR-en emaitzen arabera, laktosa kantitatearen handitzearekin α-helize/nahaspilatuaren egituratik β-xaflaranzko saretzea garatu zen, ingurune hidrofoboetako aldarapen elektrostatikoek β-xaflen eraketa bideratu zutela adieraziz. Aipatzekoa da, UV-vis tarteko xurgatze maila altu hau aplikazio askotarako egokia den filmaren ezaugarria dela.

UV hesi-propietateez gain, filmak hezetasun ertaineko edo altuko baldintzetan erabiliak izateko asmoa dagoenean, hauek urarekiko propietate erresistenteak erakustea ezinbestekoa da. Urarekiko erresistentzia urarekiko kontaktu angelua (WCA) neurtuz aztertu daiteke, honek filmaren gainazalean ur tantaren azkeneko egoera adierazten duelako eta beraz, gainazalaren bustitze ahalmena definitzen du. Gainazalaren bustitze ahalmenean laktosaren eta tenperaturaren eragina aztertzeko, WCA balioak neurtu ziren eta hauek **5.5 taula**n erakusten dira.

5.5 taula Ez berotutako (NH) eta berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen uraren kontaktu-angeluaren (WCA) eta ur lurrunaren iragazkortasunaren (WVP) balioak, laktosa edukiaren funtziopean.

Filma	Laktosa (%)	WCA (°)	WVP 10^{12} (g cm^{-1} s^{-1} Pa^{-1})
NH	0	88,61 ± 3,36^{a}	1,81 ± 0,16^{ab}
	10	107,53 ± 1,17^{b}	1,66 ± 0,11^{a}
	20	117,65 ± 0,96^{c}	2,00 ± 0,29^{ab}
	30	114,41 ± 2,41^{c}	2,15 ± 0,11^{b}
HT	0	91,13 ± 1,58^{a}	1,90 ± 0,18^{ab}
	10	104,99 ± 2,32^{b}	1,69 ± 0,09^{a}
	20	113,13 ± 0,37^{c}	1,82 ± 0,06^{ab}
	30	112,42 ± 2,35^{c}	2,18 ± 0,09^{b}

$^{a-c}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Laktosa gehitu zenean, NH eta HT filmen WCA-ren balioak handitu ($P < 0,05$) ziren. NH filmen kasuan, aldaketa hau gelatina eta laktosaren arteko hidrogeno

zubizko interakzioekin erlazionatzeaz gain, filmaren gainazalerantz bideratutako talde hidrofoboen agerketarekin ere lotu zitekeen (Jayasundera et al., 2009), FTIR bidez lotura hauek gelatinaren egituran aldaketak eragin zituztela erakutsi zen bezala. HT filmetan berriz, gelatina eta laktosaren arteko Maillard erreakzioaren saretzeak, talde polarren edukia txikitu zuen eta honek filmen izaera hidrofoboa sendotzea eragin zuen. Hala ere, tenperaturaren eraginpean aldaketa hutsalak ($P > 0,05$) ikusi ziren konposizio berdineko laginetan, talde ez-polarrak gainazalerantz zuzentzeko joera zutela adieraziz eta hortaz, film guztiek 90º baino WCA-ren balio handiagoak erakutsi zituzten, filmak hidrofoboak zirela kontsideratuz (Karbowiak et al., 2006). Gainera, ur lurrunarekiko iragazkortasunaren (WVP) balioak neurtu ziren eta hauek **5.5 taula**n aurkeztu dira. Ikusi daitekeen moduan, film guztien WVP-en balioak antzekoak ziren eta ez laktosak ezta tenperaturak ere ez zituzten WVP-ren balioetan aldaketa nabariak eragin ($P > 0,05$). WVP bi pausutako prozesua denez, hau da, ur lurrunaren sortzioa eta ur lurrunaren difusioa, WCA-ren balioen handitzea proteinaren egitura aldaketekin orekatu zela zirudien, FTIR analisi bidez ikusi zen bezala, difusioren urratsarentzat mesedegarri izanik.

5.2.3 Propietate mekanikoak

Filmak erabiltzerakoan beraien osotasuna mantendu dezaten, orokorrean sendotasun eta malgutasun mekanikoak beharrezkoak dira. **5.6 taula**n arrain gelatinan oinarritutako filmen propietate mekanikoak erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, trakzio erresistentzien (TS) eta haustura elongazioen (EB) balioek, laktosa gehitzerakoan edota filmak berotzerakoan ez zuten aldaketa nabarmenik ($P > 0,05$) erakutsi. TS-ren balioak, 50 MPa ingurukoak, behi gelatinan oinarritutako filmen balioak baino handiagoak ziren (Nur Hanani, Roos, eta Kerry, 2012; Nur Hanani et al., 2012; Mu et al., 2012). Plastifikatzailearen gehikuntzak, normalean, EB-ren balioak handitzen ditu baina aldiz, TS-ren balioen txikitzea eragiten du (Haq, Hasnain, eta

Azam, 2014); lan honetan erabili zen glizerolaren eduki txikiak lorturiko TS-ren balio handiak azaldu zitzakeen.

5.6 taula Ez berotutako (NH) eta berotutako (HT) arrain gelatinazko filmen trakzio erresistentziaren (TS) eta haustura elongazioaren (EB) balioak, laktosa edukiaren funtziopean.

Filma	Laktosa (%)	TS (MPa)	EB (%)
NT	0	52,39 ± 3,16[a]	2,88 ± 0,68[a]
	10	54,19 ± 6,19[a]	2,57 ± 0,35[a]
	20	52,14 ± 4,95[a]	2,31 ± 0,37[a]
	30	54,28 ± 4,41[a]	2,56 ± 0,35[a]
HT	0	50,63 ± 4,01[a]	2,82 ± 0,68[a]
	10	45,40 ± 5,06[a]	2,54 ± 0,32[a]
	20	44,48 ± 2,78[a]	2,94 ± 0,21[a]
	30	43,76 ± 7,53[a]	2,12 ± 0,42[a]

[a] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

5.3 Ondorioak

Laktosaren gehikuntzak proteinaren egituran aldaketak sortu zituen, filmen izaera hidrofoboa hobetzeaz gain, hauen disolbagarritasuna nabarmenki txikituz. Gainera, berokuntzak, Maillard erreakzio ez-entzimatikoaren bidez, azukrearen eta proteinaren arteko glikazioa sustatu zuen. Erreakzio honek, proteinaren α-helizetik β-xaflarako egitura aldatu zuen eta Maillard erreakzioko konposatuen eraketarengatik filmetan kolore horixka garatu zen. Gainera, Maillard erreakzioko produktuek UV argia xurgatu zuten, filmak janaria ontziratzeko egokiak zirela iradokiz. Izan ere ahalmen honekin, filmak elikagaien oxidazioa saihesteko eta hauen iraungitzea luzatzeko gaitasuna zutela erakutsi zuten. Film guztiek gardentasuna eta trakzio erresistentzia balio altuak mantendu zituzten, 50 MPa ingurukoak. Kapitulu honek, Maillard erreakzioa arrain gelatinazko filmen propietate funtzionalak hobetzeko aukera bideragarria dela erakusten du. Gainontzeko propietate funtzionalei kalterik egin gabe ur lurrunaren iragazkortasuna hobetzeko, Maillard erreakzioaren urratsak eta

glikazioan zehar sortutako produktuen azterketarako ikerketa gehiago egitea beharrezkoa da.

6 Maillard erreakzioaren garapena

6.1 Laburpena

Aurreko kapituluan erakutsi den bezala, gelatinaren egitura eta propietate fisikoak Maillard erreakzioaren bidez aldatu daitezke. Gainera, Maillard erreakzioan eragiten duten faktoreen kontrolak, elikagai, medikutza eta industria bezalako aplikazio zehatzetarako gelatinaren propietateak egokitzea ahalbidetzen du. Nahiz eta arrain gelatina ugaztunetatik eratorritako gelatinak ordezkatzeko nabarmenki ikertua izaten ari den, UV-vis bidezko Maillard erreakzioaren aurrerapena, fluoreszentzia bidezko glikazio aurreratuko amaierako produktuen (AGE-ren) eraketa, eta FTIR bidezko proteinaren bigarren egituraren analisia, berokuntza denboran zehar eta pH basikoan, ez dira literaturan aurretik azaldu.

Testuinguru honetan, kapitulu honen helburua Maillard erreakzioaren urratsetan eta glikazio erreakzioan zehar eratutako produktuen analisian zentratu da, saretutako gelatinazko filmen morfologian eta jarduera fisikoan laktosa kantitatearen eta berokuntza denboraren eragina aztertzearekin batera, teknikoki balio handiko produktuak garatzeko konposizio egokiena aukeratzeko.

6.2 Emaitzak eta eztabaida

Berokuntza tratamendua, industrian asko erabiltzen den prozesatze metodoa da. Honi dagokionez, proteina eta lan honetan erabilitako laktosa bezalako azukre erreduktoreen artean gertatzen den erreakzio kimiko nagusienetarikoa Maillard izenez ezaguna den arretze-prozesu ez-entzimatikoa da. Konplexutasun handia eta aldaera ugari erakusten dituzten Maillard erreakzioko produktuen (MRP-en) analisiak, ikerkuntza arlo ezberdinetako ikerlarien interesa piztu du eta hori da ikerketa honen xede nagusia.

6.2.1 Saretzearen eragina gelatinaren egitura sekundarioan

Aurreko kapituluan azaldu bezala, filmen FTIR espektro-banda garrantzitsuenak proteinaren lotura peptidikoekin erlazionatutakoak ziren (**5.2 irudia**): C=O loturaren

luzatzea 1630 cm^{-1}-ean (amida I), N-H loturaren tolestea 1530 cm^{-1}-ean (amida II) eta C-N loturaren luzatzea 1230 cm^{-1}-ean (amida III). Kapitulu honetan, α-helize/nahaspilatua eta β-xafla konformazioen bidez berokuntza denbora ezberdinetan gelatinaren bigarren egiturako aldaketak FTIR espektroskopiaz amida I banda (1600-1700 cm^{-1}) aztertuz egin zen (**6.1 irudia**).



6.1 irudia % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen amida I bandaren egokitze kurbaren espektroak, berokuntza denboraren funtziopean: a) 0 minutu, b) 150 minutu eta c) 1440 minutu.

Laktosadun gelatinazko filmen egitura sekundarioa nagusiki α-helize/nahaspilatua (1650 cm^{-1}) eta β-xafla antiparalelo (1630-1615 cm^{-1} eta 1700-1680 cm^{-1}) konformazioez osatuta dago (Guerrero et al., 2014); azken konformazioa agregatutako proteinetan aurkitzen da oro har, batik bat berokuntza bidez desnaturalizatutako proteinetan (Susi, Timasheff, eta Stevens, 1967). Laktosa kantitateari dagokionez, % 10, % 20 (aurkeztu gabeko datuak) eta % 30 (**6.1 irudia**) laktosadun filmetan antzeko portaera ikusi zen. **6.1a irudia**n ikusi daitekeen moduan, berokuntza aurretik egiturarik nagusiena α-helizea izan zen. Hala ere, filmak 150 minutuz berotu ondoren, β-xafla egitura nagusiena izatera pasatu zen (**6.1b irudia**) eta egitura hau 1440 minutuz (24 h) filmak berotu ondoren mantendu zen, **6.1 irudia**n erakusten den bezala. Azterketa honek, laktosa eduki ezberdinekin eta berokuntza denbora ezberdinetan saretutako filmetan α-helizetik β-xaflarako aldaketa bat egon zela adierazi zuen. FTIR espektroen analisi kuantitatibo bat egiteko, **6.1 taula**n amida I bandaren ehunekoak erakusten dira.

6.1 taula Amida I bandaren egokitze kurbaren emaitzen ehunekoak, laktosa edukiaren eta berokuntza denboraren funtziopean.

		Amida I-aren azalera		
Laktosa (%)	**Denbora (min)**	**1625 cm^{-1}**	**1651 cm^{-1}**	**1688 cm^{-1}**
10	0	35,34	59,09	5,57
	90	38,54	52,23	9,23
	150	39,87	50,21	9,92
	210	42,21	47,74	10,05
	270	50,43	39,26	10,31
	1440	50,24	40,15	9,62
20	0	35,12	59,73	5,15
	90	37,12	57,11	5,77
	150	41,32	50,14	8,54
	210	51,23	39,38	9,39
	270	52,12	38,12	9,76
	1440	53,87	36,77	9,36
30	0	34,89	60,09	5,02
	90	40,23	52,89	6,88
	150	49,54	41,23	9,23
	210	50,12	40,23	9,65
	270	50,97	39,14	9,89
	1440	52,18	38,49	9,33

6.1 taulan ikusi daitekeen moduan, α-helizetik β-xaflarako aldaketak ia konstante mantendu zireneko berokuntza denborak, laktosa edukiaren igoerarekin txikitu ziren, % 10, 20 eta 30 laktosadun filmentzako konformazio-aldaketarako berokuntza denborak 270, 210 eta 150 minutu izanik, hurrenez hurren. Portaera honek, arrain gelatinazko filmen egitura sekundarioan laktosa edukiak eta berokuntza denborak duten eragina nabarmendu zuen.

Disolbaturiko masa totalaren (TSM) balioak, α-helizetik β-xaflarako aldaketak ia konstante mantendu ziren berokuntza denboretan neurtu ziren eta balio horiek, berokuntza aurretik (0 min) eta 1440 minutuz (24 h) filmak berotu ondorengo TSM-ren balioekin alderatzeko, guztiak **6.2 taula**n erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, filmen disolbagarritasun balioak % 33raino nabarmenki behera egin zuten % 10, 20 eta 30 laktosadun filmak 270, 210, eta 150 minutuz berotu zirenean, hurrenez hurren. Balio hauek, saretze erreakzioak laktosa eduki handiko filmen disolbagarritasuna azkarrago txikitu zuela adierazi zuten. Beraz, berokuntza eta laktosaren gehikuntza bidez eragindako saretze erreakzioa arrain gelatinazko filmen disolbagarritasuna kontrolatzeko bide eraginkorra izan zitekeen, filmak aplikazio farmazeutikoetan eta elikadura aplikazioetan askapen sistema moduan erabiltzeko propietate funtzionalez hornituak izan zirelako.

6.2 taula Arrain gelatinazko filmen disolbaturiko masa totalaren (TSM) balioak, laktosa kantitatearen funtziopean.

Laktosa (%)	Denbora (min)	TSM (%)
10	0	100^{a}
	270	$31,0 \pm 0,7^{b}$
	1440	$16,0 \pm 2,4^{c}$
20	0	100^{a}
	210	$33,1 \pm 1,1^{b}$
	1440	$13,0 \pm 4,0^{d}$
30	0	100^{a}
	150	$33,1 \pm 0,9^{b}$
	1440	$12,8 \pm 3,3^{d}$

$^{a-d}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

6.2.2 Pentosidinaren eraketa

Saretze erreakzioaren eragina laktosa edukiaren eta berokuntza denboraren funtziopean aztertzeko, UV-vis espektroskopia erabili zen eta espektroak **6.2 irudia**n agertzen dira. **6.2 irudia**n ikusi daitekeen moduan, berotu gabeko arrain gelatinazko filmek UV argiarekiko xurgatze ahalmen handia erakutsi zuten, gelatinan dauden lotura peptidiko (200-250 nm) eta ohizko kromoforoengatik, hala nola, tirosina eta fenilalanina (250-300 nm) (Samira, Thuan-Chew, eta Azhar, 2014; Hong et al., 2014). Berokuntza ondotik, lehenengo urratsean eratutako MRP-ak 220 nm-an emandako xurgatze igoeraren bidez aztertu ziren, karbonilo taldeen presentziari egokitu zitzaiona, eta 280 nm-tako xurgatzea aldiz, heterozikloetatik eratorritako produktuei esleitu zitzaien.



6.2 irudia Arrain gelatinazko filmen UV-vis espektroak laktosa edukiaren funtziopean, berokuntza aurretik (0 min) eta filmak 1440 minutuz (24 h) berotu ondoren.

Lehenengo urratsean, laktosak (aldehido moduan kate zabalduaren forman) beste aminoazidoak baino erreaktiboagoa den gelatinari lotutako lisina amino taldearekin Schiff basea eratzen du. Schiff basearen eraketa Maillard erreakzioaren

erdibideko urratsa da, Amadori produktua bezala ezaguna den Amadoriren berrantolaketagatik laktulosil-lisinean azkar eraldatzen delako (**6.1 eskema**).



6.1 eskema Maillard erreakzioaren lehenengo etapa (gal = galaktosa).

Erreakzioak aurrera jarratu heinean, premelanoidina izenez ezagunak diren konposatu disolbagarri konplexuagoak eratzen dira eta ondorioz, 280 nm-tako xurgatze balioak etengabe handitzen dira eta 325 nm-an xurgatze banda berria agertzen da (Cuzzoni et al., 1988; Wijewickreme, Kitts, eta Durance, 1997). MRP-en eraketari erreakzioaren baldintzek izugarri eragiten diote. Van Boekel-en arabera (1998), Amadori produktuaren degradazioa baldintza basikoetan azkarragoa da eta Maillard erreakzioak kolore arrexka garatzen du, 420 nm-tako xurgatze bidez neurtu daitekeena. Arrexka konposatuen kimikari buruz gutxi ezagutzen den arren, jakina da baldintza alkalinoetako disakaridoen kasuan Amadori produktuaren degradazioa 4-deoxiosona bidea dela (**6.2 eskema**).



6.2 eskema Baldintza basikoetan Amadori produktuaren degradazioa Maillard erreakzioaren etapa aurreratuan (gal=galaktosa).

Eratutako bi produktuak 4-deoxiaminoerreduktona eta 5,6-dihidro-3-hidroxipiridona dira (Martins, Jongen, eta Van Boekel, 2001). Aurretik erakutsitako konposatuak oso erreaktiboak dira eta geroko erreakzioetan parte hartzen dute. Maillard erreakzioaren etapa aurreratuan, erreakzio ugarik parte hartzen dute; ziklazioak, deshidratazioak, retroaldolizazioak, isomerizazioak, eta gainerako kondentsazio erreakzioak, esaterako. Hala ere, beraien izaera erreaktiboagatik eratutako produktu motak eta hauen kantitateak determinatzea zaila da. Maillard erreakzioaren azken etapak nitrogenodun polimero arrexken eraketa bideratzen du, eraturiko AGE-tako bat pentosidina izanik, hau da, argininari lotutako lisina (**6.3 irudia**).



6.3 eskema Maillard erreakzioaren etapa aurreratuan sorturiko pentosidina.

Erreakzioaren hedatzea jarraitzeko helburuarekin, **6.3 irudia**k % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen UV-vis espektroak berokuntza denboraren funtziopean erakusten ditu. Espektroek, 480 minutura arte, 325 nm-tako xurgatze bandaren handitze jarrai bat aurkeztu zuten eta ondoren, denbora luzeagoetan, xurgatze balioak mantendu zirela ikusi zen. Jokaera honek, berokuntza eta laktosaren gehikuntza bidez gertatutako saretzeagatik arrain gelatinazko filmen UV argiarekiko babesaren hobekuntza adierazten zuen. Berokuntzak, Amadori produktuaren eraketa areagotu zuen eta ondoren, AGE-ren eraketa (Deyl et al., 1997; Morales eta Van Boekel, 1997). AGE fluoreszenteak, hala nola kroslina, pentosidina eta besperlisina, eta fluoreszentzia gabeko ez-saretutako AGE-ak, argirimidina, imidazolona eta pirralina esaterako, eratu daitezke (Van Boekel, 1998; Nguyen, 2006).



6.3 irudia % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen UV-vis espektroak, beroketa denboraren funtziopean. Neurketak, 480 minuturaino 30 minuturo, eta azkenik 1140 minutuan egin ziren.

Konposatu fluoreszenteen artean, pentosidina, erreakzioaren trazabilitatea jarraitzeko gehien erabiltzen den markatzaileetako bat da. Amadori konposatuaren eraketaren ondoren pentosidina lehenengo eratutako produktu egonkor fluoroforoa izan zela ziurtatzeko, fluoreszentzia analisia burutu zen. Arrain gelatinazko filmen fluoreszentzia espektroak **6.4 irudia**n erakusten dira. Alde batetik, 335 nm-an kitzikatutako % 30 laktosadun filmen emisio espektroak **6.4a irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, emisio banda 410 nm-an agertu zen. Emaitza hauek beste lan batzuekin bat egin zuten (Morales eta Van Boekel, 1997; Bhat et al., 2014), pentosidinak, 335/408 nm-an kitzikapen/emisio uhin-luzerak erakutsi zituelako. Gainera, berokuntza denborarekin banda azpiko azalera zabaldu zen, pentosidina kantitate handiagoen eraketa eman zela adieraziz. Bestaldetik, 120 minutuz berotutako arrain gelatinazko filmen fluoreszentzia espektroak laktosaren funtziopean **6.4 irudia**n agertzen dira. Ikusi daitekeen moduan, laktosaren edukia handitu zenean, bandak uhin-luzera txikiagoetara mugitu ziren eta intentsitate balio handiagoak lortu ziren,

Maillard erreakzioa eta pentosidinaren eraketa laktosa eduki handiagoarekin azkarragoak zirela iradokiz, UV-vis emaitzekin bat etorriz. Gainera, emaitza hauek FTIR bidez ikusitako α-helizetik β-xaflarako aldaketa azkarrarekin eta TSM-ren neurketa bidez ikusitako disolbagarritasunaren gutxitze azkarrarekin bat zetozen.



6.4 irudia a) Beroketa denboraren funtziopean % 30 laktosadun eta b) laktosa edukiaren funtziopean 120 minutuz berotutako arrain gelatinazko filmen fluoreszentzia espektroak.

6.2.3 Maillard errreakzioaren zinetika

Berokuntza ondotik laktosadun filmetan gertatzen den kolore aldaketa Maillard erreakzioaren adierazletzat hartu daiteke (Nursten, 1986). **6.5 irudia**n, % 30 laktosadun filmen irudia agertzen da, berokuntza denboraren funtziopean.



6.5 irudia % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen kolore aldaketa berokuntza denboraren funtziopean.

Film guztiak gardenak eta homogeneoak ziren, baina kolore aldaketa berokuntza denboraren luzatzearekin nabariagoa izan zen, filmek denbora luzeagotan kolore hori iluna garatu zutelako. Filmen kolorea CIELAB eskala erabiliz neurtu zen, eta L*, a* eta b* parametroak arrexka indizea (BI) kalkulatzeko erabili ziren. L* eta a* balioek (erakutsi gabeko datuak) ez zuten aldaketa esanguratsurik ($P > 0,05$) erakutsi, filmak 480 minutuz berotu ondoren. b* balioa aldiz, laktosa edukiaren handitzearekin eta berokuntza denboraren luzatzearekin nabarmenki ($P < 0,05$) igo zen (**6.3 taula**).

6.3 taula Arrain gelatinazko filmen b* balioak, laktosa kantitatearen eta berokuntza denboraren funtziopean.

Laktosa (%)	b*					
	30 min	60 min	150 min	210 min	270 min	480 min
10	8,5 ± 0,5^{a}	10,2 ± 0,3^{a}	13,8 ± 0,1^{b}	18,5 ± 0,2^{c}	24,8 ± 2,6^{d}	33,8 ± 0,2^{f}
20	8,6 ± 0,3^{a}	10,2 ± 0,4^{a}	17,8 ± 1,4^{c}	24,7 ± 2,3^{d}	30,2 ± 0,7^{e}	36,5 ± 0,4^{f}
30	9,3 ± 0,1^{a}	14,0 ± 1,4^{b}	26,7 ± 1,2^{d}	31,6 ± 1,3^{e}	36,5 ± 0,4^{f}	46,1 ± 1,2^{g}

$^{a-g}$ Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

BI-ren balioengan laktosa edukiaren eragina berokuntza denboraren funtziopean **6.6 irudia**n erakusten da. Ikusi daitekeen moduan, BI-k lehenengo mailako zinetika erakutsi zuen, beste egile batzuk aipatu zuten moduan (Isleroglu et al., 2012; Jiménez et al., 2012; Gupta et al., 2011).



6.6 irudia Arrain gelatinazko filmen arrexka indizea (BI), laktosa edukiaren eta berokuntza denboraren funtziopean.

BI-ren balioak berokuntza denborarekin handitu ziren, laktosa eduki handiagoetan balio handiagoak erakutsiz. Honetaz gain, laktosa eduki handiko filmen zuzenen malda handiagoa zen, sistema horietan koloreztatutako melanoidinen eraketa azkarragoa zela adieraziz, aurretik UV-vis espektroskopian ikusitakoarekin bat etorriz.

Bestaldetik, pentosidinaren eraketaren zinetika, berokuntza denboraren eta laktosa edukiaren funtziopean, UV xurgatzea 335 nm-an neurtuz aztertu daiteke. **6.7 irudia**n ikusi daitekeen moduan, pentosidinaren eraketak bigarren mailako zinetika erakutsi zuen. Film guztietan, UV xurgatzea balio konstanteetaraino igo zen, laktosa edukia kontuan hartu gabe. Hala era, pentosidina eraketaren proportzioa txikiagoa zen laktosa eduki txikiagoa zuten filmetan. Pentosidinaren eraketa filmak 480, 420 eta 180 minutuz berotu ostean egonkortzera iritsi zen, % 10, 20 eta 30 laktosadun filmetan, hurrenez hurren.



6.7 irudia Arrain gelatinazko filmen UV argiaren xurgatzea 335 nm-an, laktosa edukiaren eta berokuntza denboraren funtziopean.

6.2.4 Saretzearen eragina nanoegituran

X-izpien difrakzioa (XRD) proteinen egitura zehazteko teknika arrunta da eta hortaz, arrain gelatinazko filmen difrakzio bandak laktosa edukiaren eta berokuntza denboraren funtziopean **6.8 irudia**n erakusten dira. Lagin guztiek bi difrakzio banda erakutsi zituzten, 21º-etako banda, gelatinaren kristalinitatearekin erlazionatu zena, eta 7,4º-tako banda, kolageno natiboaren helize hirukoitzaren hondarrari egokitu zitzaiona (Chen, Wang, eta Jiang, 2012; Guerrero et al., 2012). Laktosaren edukia igo zenean, gelatinaren kristalinitatea igo zen, laktosaren eta gelatinaren artean sorturiko lotura kobalente berriek egitura ordenatuagoa sortu zutela adieraziz. Hala ere, helize hirukoitzaren hondarraren edukia filmen berokuntzagatik txikitu zen. Hau, kolageno natiboaren helize hirukoitzaren hondarraren berrantolaketa oztopatu zuten Maillard erreakzioan eratutako gliko-konjugatuek, eta saretzeak proteinaren kateen arteko interakzio molekularrak txikitu zituztelako izan zen (Carvalho eta Grosso, 2004; Liu eta Zhong, 2012).



6.8 irudia a) Laktosarik gabeko eta b) % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen XRD ereduak, berokuntza aurretik (0 min) eta berokuntza ondoren (150 min).

Arrain gelatinazko filmen nano-egitura sakonkiago aztertzeko, indar atomikozko mikroskopioaz (AFM) neurketak egin ziren eta lorturiko altuera eta fase irudiak **6.9 irudia**n erakusten dira.



6.9 irudia a) Berokuntza aurretik (0min) eta b) berokuntza ondoren (150 min) laktosa gabeko, eta c) berokuntza aurretik (0min) eta d) berokuntza ondoren (150 min) % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen AFM irudiak. Altuera irudiak (a, b, c, d) eta fase irudiak (a', b', c', d').

Laktosa gabeko filmen **6.9a** eta **6.9b irudi**etan ikusten den moduan, gelatinak zuntz egitura erakutsi zuen, beste egile batzuek ikusi zuten moduan (Yang et al., 2007; Wang, Yang, eta Regenstein, 2008). Emaitza hau, XRD bidez ikusitako kolagenoaren helize hirukoitzaren hondarrean emandako aldaketekin bat zetorren. Laktosaren gehikuntzak gelatinaren nano-egitura aldatu zuen, **6.9c irudia**n ikusi daitekeen moduan. Laktosaren presentziaren ondorioz, irudietan ez zen zuntzik ikusi, XRD-n erakutsitako zuntzei egokitutako seinalearen murrizte nabariarekin bat etorriz. Gainera, laktosarik gabeko filmetako zuntzak inguratzen zituen matrizea egituratuagoa bihurtu zen, eta honek, gelatina eta laktosaren artean gertatutako Maillard erreakzioan agregazioak sortu zirela iradoki zuen. Ondoko berokuntzak, oraindik bereizgarriagoak ziren ezaugarriak sortu zituen (**6.9d irudia**), betiere, Maillard erreakzioa areago hedatua zegoenean. Laburbilduz, AFM-ko irudiek, gelatinaren nano-egitura laktosaren gehitzearekin eta berokuntzaren eraginarekin nabariki aldatu zela nabarmendu zuten, egituratuagoa eta ordenatuagoa zen matrizea sortuz, aurretik erakutsitako disolbagarritasunaren balio baxuekin bat etorriz. Beraz, AFM analisia, beste neurketa batzuekin, hala nola, ikerketa honetan burututako disolbagarritasun eta XRD analisiekin ikusitako aldaketa fisiko-kimikoak egiaztatzeko erabili zitekeela ondorioztatu zen.

6.2.5 GTA, GP edo laktosa bidez saretutako filmen konparazio-analisia

Gelatinan dagoen lisinaren amina taldearekin ematen den saretze erreakzioaren mekanismoa, erabilitako saretze erreaktiboaren menpekoa da. GTA saretze erreaktibo sintetikoa da, medikuntzako ikerketetan asko erabiltzen dena. GTA-ren karbonilo taldearen eta gelatinaren lisina amino taldearen arteko erreakzioak, horitze prozesuarekin batera, Schiff basea eratzen du (**6.10a irudia**), (Farris, Song, eta Huang, 2010). GTA-k zitotoxikotasun altua erakusten duenez, GP, saretze erreaktibo naturala, alternatiba moduan erabili daiteke. Jakina da, GP-k proteinetako lisina amino taldeekin erreakzionatzen duela, pigmentu urdinak eratuz (Ali Poursamar et al., 2016;

Sung et al., 1999). Nahiz eta oraindik erreakzio honen mekanismoa ez den guztiz ulertzen, GP-k egitura hemiazetalean, dialdehido baten egituraren baliokide bihurtzen dela uste da. Nahiz eta GP-k zitotoxikotasuna balio baxuak aurkeztu dituen, saretze erreaktiboaren kostu altuarengatik eskuragarri dauden datu gutxi erakusten dira literaturan (Panzavolta et al., 2011). Beraz, lan honetan, saretzea sustatzeko beste saretze erreaktibo natural bat erabili zen, hau da, laktosa. Berokuntzak, laktosaren presentzian, proteinaren barrualdean interakzioak aldatu ditzake eta honekin proteinaren konformazioa, glikazio ez-entzimatikoa bideratuz (**6.10c irudia**), kapitulu honetan aurretik erakutsi den bezala (Etxabide et al., 2015a). Filmen kolorea erabilitako saretze erreakzioaren arabera aldatu zen, film horixkak sortuz, laktosa edota GTA erabili zenean eta film urdinak lortuz, GP gehitu zenean. Filmen koloreak saretzearen adierazletzat hartu ziren.



6.10 irudia Gelatina eta (a) GTA-ren, (b) GP-ren, eta (c) laktosaren arteko saretze erreakzioa.

Filmen egonkortasun hidrolitikoa saretze-mailaren zeharkako neurketa denez, filmak PBS soluzioan 3 egunez 25 ºC-an murgildu ziren. **6.11 irudia**n ikusi daitekeen moduan, filmen egonkortasuna saretze erreaktibo motaren eta buffer soluzioaren tenperaturaren funtziopean zegoen. Filmak PBS-an 25 ºC-an murgildu ostean, GP eta GTA erreaktiboekin saretutako filmek laktosarekin saretutako filmek baino soluzio urtarra xurgatzeko gaitasun handiagoa erakutsi zuten (**6.11a-b irudia**k). Jokaera honek, laktosa saretze erreaktibo moduan erabili zenean, saretze-maila handiagoa lortu zela adierazi zuen eta, beraz, film hauen soluzio urtarra xurgatzeko gaitasuna txikiagoa zen (Saarai et al., 2013). GP edo GTA bidez saretutako filmen likidoa xurgatzeko gaitasun handiak, filmak itsaskorrak eta hauskorrak izatea eragin zuen, maneiatzeko ahulegiak izanik. Aldiz, laktosarekin saretutako filmek ez zuten maneiatzeko arazorik erakutsi.



6.11 irudia Laktosa, GP eta GTA erreaktiboen bidez saretutako arrain gelatinazko filmen itxura, filmak (a) PBS bufferrean murgildu aurretik, eta PBS bufferrean (b) 25 ºC-an eta (c) 37 ºC-an filmak 3 egunez murgildu ostean.

PBS soluzioaren tenperatura 37 ºC-ra igo zenean, GP eta GTA erreaktiboekin saretutako filmak guztiz disolbagarriak bilakatu ziren, horiek 24 eta 20 orduz murgilduta egon ostean, hurrenez hurren (**6.11 irudia**). Hala ere, tenperaturaren igoerak ez zuen laktosarekin saretutako filmen osotasun fisikoan eragin. Gainera, laktosarekin erreakzionatutako filmek, beraien hasierako itxura mantendu zuten eta ez zuten maneiatzeko arazorik erakutsi. Emaitza hauek, laktosak GP eta GTA baino saretze maila handiagoa lortu zuela adierazten dute. Hau guztia kontuan edukiz, laktosarekin saretutako filmak, ondoren burututako azterketa biologikoak egiteko aukeratuak izan ziren. Bereziki, film hauek biobateragarritasun bikaina erakutsi zuten, ISO 10993-5:2009 medikuntzako gailuen azterketa biologikorako arauaren arabera, eta filmaren gainazalak itsatsitako, hedatutako eta ugaldutako zelulen kopuru handiak erakutsi zituen (aurkeztu gabeko datuak). Datu hauek kontuan edukiz, laktosarekin saretutako gelatinazko filmak zauriak sendatzeko ehun-ingeniaritzaren aplikazioetan erabiltzeko etorkizun handiko hautagaitzat hartu ziren.

6.3 Ondorioak

Maillard erreakzioa sustatzeko eta propietate funtzionalak hobetzeko asmoz, berokuntza denbora ezberdinetan, laktosarekin saretutako arrain gelatinazko film eraldatuak prestatu ziren. Filmen disolbagarritasuna laktosaren edukia eta berokuntza denbora bidez kontrolatu zitekeela frogatu zen, sendagaien askapen-sistema bezalako medikuntzako aplikazioetan nahiz film bioaktibo moduan elikagaien babeserako aplikazioetan erabiltzeko propietate onuragarria zena. Honetaz gain, lehenengo mailako zinetika erakutsi zuen konposatu koloredunen eraketa, erreakzioaren hedapenaren adierazle gisa erabili zitekeen. Honi dagokionez, konposatu fluoreszenteen eraketa, bigarren mailako zinetika erakusten zuena, erreakzioaren hedapena jarraitzeko adierazle gisa ere kontsideratu zen. Modu interesgarrian, erreakzioaren zinetikak, saretze erreakzioaren hedapena kontrolatzeko ezagutza eman

zuen, baita erreakzio ez-entzimatikoan eratutako nano-egiturarekin zuzenki erlazionatutako propietate funtzionalena ere.

Azkeneko hiru kapituluetako emaitzak kontuan hartuz, aipatzekoa da, pH basikoan prestatutako % 20 laktosadun HT filmek disolbagarritasun balio txikienak erakutsi zituztela, laktosaren gehikuntza handiagoak erreakzioa gehiago ez zuela sustatuko iradokiz. Gainera, film hauek WCA-ren balio altuak, UV argiarekiko hesi-propietate bikainak eta 50 MPa inguruko trakzio erresistentzia balioak erakutsi zituzten. Hortaz, formulazioa hau aurrerago egin ziren analisietarako egokiena zela kontsideratu zen.

7 Gelatinazko filmen aktibitate antioxidatzailea

7.1 Laburpena

Gaur egun konposatu sintetikoen osasun arriskuetan sorturiko kezkengatik, naturalki sortutako bioaktiboak kontsumitzaileen eta enpresen artean nahiago dira. Testuinguru honetan, landareak, polifenolikoak bezalako balio handiko antioxidatzaileen iturri dira, aplikazioa farmazeutikoetan, medikuntzan eta elikagaietan erabiltzen direnak (Bandyopadhyay, Ghosh, eta Ghosh, 2012; Freile-Pelegrín eta Robledo, 2014; Gómez-Guillén et al., 2009; Ozdal, Capanoglu, eta Altay, 2013; Rao eta Ravishankar, 2002). Landareetatik eratorritako konposatu antioxidatzaileen artean, tetrahidrokurkumina (THC), kurkuminaren (*Curcuma longa* L.) metabolito hidrogenatua, elikagai-, farmazia- eta kosmetikoen industrietan geroz eta interes handiagoa pizten ari da, izan ere, kurkumina, bitamina E-a eta α-tokoferola baino antioxidatzaile ahalmen hobea erakutsi duelako (Mehanny et al., 2016; Priyadarsini, 2014; Venkatesen et al., 2003). Honetaz gain, kurkumina ez bezala, THC koloregabea eta zaporegabea da (Portes, Gardrat, eta Castellan, 2007). THC-ren antioxidatzaile ahalmenaz gain (Somporn et al., 2007), konposatu honek diabetesaren (Murugan eta Pari, 2006), minbiziaren (Plyduang et al., 2014), eta hanturaren (Murakami et al., 2008) kontrako aktibitateak erakutsi ditu. Hortaz, filma eratzeko soluzioan THC sartzea, kontsumitzaileen osasunarentzat onuragarria izan daitekeen film aktiboen garapena sustatzeko bidea izan daiteke.

Aurreko kapituluetan, laktosadun gelatinazko filmen karakterizazioa burutu zen, eta laktosa eta gelatinaren arteko saretze erreakzioa aztertu zen. Konposatu fenolikoen eraketa eman zenez eta konposatu hauek antioxidatzaile aktibitatea zutela uste zenez, lan honen helburua, % 20 laktosarekin saretutako gelatinazko filmen ahalmen antioxidatzailea aztertzea izan zen. Gainera, gelatinazko filmetan THC bezalako antioxidatzaile organikoa gehitu zen, filmen ahalmen antioxidatzailearen hobekuntza eta THC gehituriko filmen gainazalen propietateak aztertzeko.

7.2 Emaitzak eta eztabaida

Prestaturiko filmak hauexek ziren: G filmak (laktosarik gabeko gelatinazko filmak), G-THC filmak (laktosarik gabeko baina THC duten filmak), GL filmak (laktosadun gelatinazko filmak), eta GL-THC filmak (laktosadun eta THC-dun gelatinazko filmak). Lehenik eta behin, filmen lodiera neurtu zen eta film guztientzako lorturiko lodieraren batezbesteko balioa 54 ± 5 μm izan zen.

7.2.1 Filmen karakterizazioa

Filmen kolorea L*, a* eta b* balioen bidez kuantifikatu zen, **7.1 taula**n erakusten den bezala. Laktosaren gehitzeak, L* balioaren txikitzea eragin zuen, filmen iluntzeari egokitu zitzaiona. Izan ere, GL-THC filmek kolore hori iluna erakutsi zuten, a* eta b* balioek erakutsi zuten moduan. Balio hauek, laktosaren gehikuntzarekin gora egin zuten. Laktosaren gehikuntzak eta ondorengo berokuntzak filmen kolorea aldatu zuten, kolore horixka garatuz eta argitasuna murriztuz. Iluntze eta horizkatze hau, laktosa eta gelatinaren arteko saretze erreakzioarekin erlazionatu zen. Ondorioz, GL-THC filmen kolore aldaketa totalaren (ΔE*) balioak handitu ziren, G-THC filmekin alderatuz gero.

7.1 taula THC-dun arrain gelatinazko filmen L*, a*, b* eta ΔE* balioak.

Filma	L*	a*	b*	ΔE*	Distira$_{60^\circ}$ (DU)
G-THC	93,79 ± 0,29	-0,42 ± 0,02	13,54 ± 0,79		35 ± 1
GL-THC	83,06 ± 1,41	3,43 ± 1,25	58,74 ± 3,49	46,59 ± 3,80	25 ± 2

7.1 taulan THC-dun filmen distira balioak erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, GL-THC filmek G-THC filmek baino distira txikiagoa eta beraz, gainazal latzagoa erakutsi zuten. Gainazaleko aldaketa hau, filma eratzeko soluzioen konposatuen artean egondako interakzio bidez azaldu zitekeen.

Interakzio horiek aztertzeko asmoz, FTIR analisia burutu zen eta espektroak **7.1 irudia**n erakusten dira. THC-ren banda ezaugarriak 1598 cm^{-1}-ean (bentzeno eraztunaren C-C loturaren luzapena), 1511 cm^{-1}-ean (C-O loturaren luzapena), eta 1425 cm^{-1}-ean (C-H planoko loturaren tolestea) kokatuta zeuden (Souguir et al., 2013).

Laktosa gabeko filmetan, amida II-ari (N-H loturaren tolestea ,1530 cm^{-1}-ean) dagokion bandaren sorbalda maiztasun altuagotan ikusi zen, **7.1a irudia**n agertzen den moduan. Hau, THC-ren hidroxilo taldeen eta gelatinan dauden prolinaren eta hidroxiprolinaren amino taldeen arteko hidrogeno zubizko loturei egotzi zitzaien (Rao et al., 2015). Hala ere, laktosadun filmetan (**7.1 irudia**), 1100-1000 cm^{-1} tarteko bandek (C-O loturei dagozkiena) banda bakarra eratzeko joera erakutsi zuten, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoa zegoela adieraziz, aurreko lanetan ikusi zen moduan (Etxabide et al., 2015a; Etxabide et al., 2015b). Laktosadun film hauetan, ez zen aurretik aipaturiko amida II bandaren sorbalda ikusi, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoak THC eta gelatinaren arteko hidrogeno zubizko loturen eraketa eragotzi zuela adieraziz.



7.1 irudia a) G eta G-THC eta b) GL eta GL-THC arrain gelatinazko filmen FTIR espektroak.

Interakzioak filmen gainazalean eragindako aldaketak XPS bidez aztertu ziren eta emaitzak **7.2 irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, C 1s (284,6 eV), N 1s (398,8 eV) eta O 1s (532,0 eV) bandak identifikatu ziren.



7.2 irudia Arrain gelatinazko a) G-THC filmen (aire-gainazal eta ontzi-gainazal aldeak), b) GL-THC filmen aire-gainazal aldearen, eta c) GL-THC filmen ontzi-gainazal aldearen XPS espektroak, eta a') G-THC filmen (aire-gainazal eta ontzi-gainazal aldeak), b') GL-THC filmen aire-gainazal aldearen, eta c') GL-THC filmen ontzi-gainazal aldearen C 1s bereizgarriaren XPS-a.

Laktosaren faltagatik, eta beraz, saretze erreakziorik ez zegoenez, G-THC filmen bi aldeen artean ez zen ezberdintasun nabaririk ikusi (**7.2a irudia**). Hala ere, aipatzekoa da GL-THC filmen aire-gainazal (**7.2b irudia**) eta ontzi-gainazal

(**7.2c irudia**) aldeen artean aldaketak egon zirela. Izan ere, N 1s fotoelektroi banda, matrize organikoen nitrogenoaren ohiko banda, GL-THC filmen ontzi-gainazal aldean ia guztiz desagertu zen. Banda honen desagertzea, proteinaren konformazioa aldatu zezakeen gelatinaren talde nitrogenatuen eta laktosaren karbonilo taldeen arteko erreakzio kimikoarekin erlazionatuta egon zitekeen, gainazalaren egituran aldaketak eragin zitzakeena, distiraren emaitzetan ikusi zen moduan. Gainazalen arteko ezberdintasun hau, THC-k uretan disolbagarritasun txikia erakusten duenez, filma eratzeko prozesuan zehar filmaren aire-gainazal aldean THC-ren pilaketa gertatu zelako izan zitekeen. Ondorioz, aire-gainazal aldean THC-ren pilaketak gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoa oztopatu zezakeen. Hala ere, erreakzio kimiko hau gertatu zenean, C 1s bandaren handitzea eta O 1s bandaren txikitzea ikusi zen. Azterketa sakonagoa egiteko, C-ri esleitutako banda egokitu egin zen. C 1s banda, C-C (284,60 eV), C-C=O (285,28 eV), C-O (286,28 eV), C=O (287,88 eV) eta O-C=O (288,88 eV) loturei egokitutako bandetan deskonposatu zen, **7.2a', 7.2b',** eta **7.2c' irudi**etan ikusi daitekeen moduan. 284,60 eV-tan agertutako banda nagusia, gelatinaren karbono alifatikoen albo-taldeei zegokien, 285,9 eV-tako banda proteinaren egituraren NH–CHR–CO karbonoari zegokion, eta 287,7 eV-tako banda aldiz, –CO–NH– karbono peptidikoei zegokien (Deligianni et al., 2001; Guerrero et al., 2014). GL-THC filmen bi gainazalak alderatzerakoan, ontzi-gainazal aldea nagusiki C-C loturez osatuta dagoela ikus zitekeen, C-CO, C-O, C=O eta COO loturei esleitutako bandak txikitu zirelako. Hau guztia, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoan pisu molekular altuko nitrogenodun konposatuen eraketari lotu zitzaion (Etxabide et al., 2015b).

Nahiz eta G-THC eta GL-THC filmen XPS espektroak antzekoak izan (**7.2a** eta **7.2b irudiak**), aipatzekoa da laktosaren presentziagatik egokitutako C-ren espektroek (**7.2a'** eta **7.2b' irudiak**) beraien artean ezberdintasunak erakutsi zituztela. Ezberdintasun hauek sakonkiago aztertzeko, mikroskopia optikoa erabili zen

(**7.3 irudia**). Alde batetik, laktosarik gabeko filmetan (**7.3a irudia**), hau da, erreakzio kimikorik egon ez zen filmetan, THC-rekin hidrogeno zubizko loturak eratzeko amino talde eskuragarri gehiago zeuden (FTIR-ko emaitzetan ikusi den bezala, **7.1a irudia**). Ondorioz, aglomeratuen tamaina handiagoa zen eta honek gainazal leunagoa erakutsi zuen, distiraren balio altuek nabarmendu zuten bezala (**7.1 taula**). Bestaldetik, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoak, THC-rekin hidrogeno zubizko loturak eratzeko amino talde eskuragarri gutxiago utzi zituen eta beraz, aglomeratuen kopurua handitu egin zen, hauen tamaina txikitu zen bitartean (**7.3b irudia**), gainazal latza erakutsiz eta distira balioak txikituz (**7.1 taula**).



7.3 irudia a) G-THC eta b) GL-THC arrain gelatinazko filmen aire-gainazaleko mikrografia optikoa. 40X handiketa.

7.3.2 Aktibitate antioxidatzailea

Lehenik eta behin, THC-ren egonkortasuna filma prestatzeko baldintzetan aztertu zen. Horretarako, pH basikoan zegoen urarekin bustitako THC hautsa izoztu eta liofilizatu zen (THC*). THC*-ren egonkortasun termikoa ikerketa honetan erabilitako baldintzetan (105 ºC, 24 ordu) aztertu zen. Konposatuaren masa galera aipaturiko baldintzetan aztertzeko TGA erabili zen, eta ez zen ezberdintasun esanguratsurik ikusi konposatuaren masa galeran (% 0,4ko masa galera, erakutsi gabeko datuak). Masa galera hau, laginetik guztiz kendu ez zen uraren lurrunketarena izan zitekeen. Gainera, THC eta THC*-ren disoluzioak (209,5 µM) MeOH-n prestatu ziren eta beraien

propietate antioxidatzaileak DPPH entsegu bidez aztertu ziren. Nahiz eta THC*-k (86 ± 2) THC-k (90 ± 2) baino inhibizio balio baxuagoak erakutsi zituen, antioxidatzaile aktibitatean ez zen ezberdintasun nabaririk egon.

Behin filma prestatzeko baldintzapean THC-ren egonkortasuna egiaztatu zela, THC gabeko (G eta GL filmak) eta THC-dun (G-THC eta GL-THC filmak) arrain gelatinazko filmetatik askaturiko konposatu antioxidatzaileen azterketa burutu zen, UV-vis espektroskopiaren bidez (**7.4 irudia**).



7.4 irudia G eta GL arrain gelatinazko filmak a) 1 egunez eta b) 5 egunez murgilduta egon osteko, eta G-THC eta GL-THC arrain gelatinazko filmak c) 1 egunez eta b) 5 egunez murgilduta egon osteko UV-vis xurgatzeak.

7.4a eta **7.4b irudi**etan erakusten den moduan, GL filmetan 280 nm inguruan argiaren xurgatzearen handitze arin bat ikusi zen, G filmekin alderatzerakoan. Handitze txiki hau, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoan sortutako konposatu fenolikoen askatzearekin lotuta egon zitekeen (Monti et al., 2000; Monti et al., 1999). Aipatzekoa da, denboran zehar ez zela xurgatzearen handitzerik ikusi (**7.4b irudia**),

filmen murgilketaren lehenengo egunetik aurrera askapen gehiago ez zela egon adieraziz. THC filma eratzeko soluzioan gehitu zenean (G-THC eta GL-THC), argiaren xurgatzearen handitze nabarmena ikusi zen (**7.4c** eta **7.4d irudiak**), filmetik THC askatu zela adieraziz. Izan ere, 280 nm-tako xurgatze maximoko banda THC-ri zegokion (Portes et al., 2009). THC gabeko filmen emaitzen antzera, GL-THC filmetan xurgatze handiagoak ikusi ziren G-THC filmekin alderatuz.

Emaitza hauek **7.2 taula**n erakusten diren masa galeren balioekin bat datoz. Ikusi daitekeen bezala, laktosadun filmen balioak (GL eta GL-THC) bi bider handiagoak ziren, THC-ren gehikuntza kontuan hartu gabe. Handitze hau, gelatinaren eta laktosaren arteko erreakzioaren lehen urratsean sortzen diren eta disolbagarriak diren produktuengatik izan zitekeen, baina baita erreakzionatu gabeko laktosarengatik ere, aurreko lan batean ikusi zen bezala (Etxabide et al., 2015b).

7.2 taula THC gabeko (G eta GL filmak) eta THC-dun (G-THC eta GL-THC) arrain gelatinazko filmen masa galeraren, azido galikoaren baliokidearen (GAE), inhibizioaren (I) eta butilhidroxitoluenoaren baliokidearen (BHTE) balioak.

Filma	Masa galera (%)	GAE (mg/L)	I (%)	BHTE (mg/L)
G	$7,93 \pm 0,39^{a}$	$12,8 \pm 1,1^{a}$	-	-
GL	$14,15 \pm 0,42^{b}$	$14,4 \pm 0,8^{a}$	$27,2 \pm 1,4^{a}$	$5,6 \pm 0,5^{a}$
G-THC	$8,20 \pm 0,01^{a}$	$29,7 \pm 1,4^{b}$	$84,5 \pm 1,5^{b}$	$198,0 \pm 1,1^{b}$
GL-THC	$15,14 \pm 0,02^{c}$	$43,2 \pm 2,3^{c}$	$88,5 \pm 0,3^{c}$	$425,7 \pm 17,1^{c}$

[a-c] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak, Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

7.2 taulan ere, G filmek beste egile batzuek (Wu et al., 2013) aurkeztutako fenolikoen guztizko edukiaren balio antzekoak zituztela, eta GL filmek G filmekiko ezberdintasun nabarmenik ($P > 0,05$) erakusten ez zutela ikusten da, gelatinaren eta laktosaren arteko erreakzio kimikoaren ondotik askaturiko konposatu disolbagarria nagusiki erreakzionatu gabeko laktosa izan zitekeela adieraziz. THC-ren gehikuntzak, GAE-ren balioen handitzea eragin zuen, bereziki laktosarekin prestaturiko filmetan, sorturiko mikroegiturak THC-ren askatzea erraztu zezakeelako. DPPH erradikalak ezabatzeko aktibitateari zegokionez, G filmetan ez zen antioxidatzaile aktibitaterik

ikusi, GL filmek % 27ko inhibizioa erakutsi zuten bitartean. Emaitza hauek, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoan antioxidatzaile aktibitatedun konposatu berrien eraketa gertatu zela adierazi zuten (Serpen et al., 2007). THC-ren gehikuntzak gelatinazko filmen propietate antioxidatzaileak nabarmenki handitu zituen. Gainera, GL-THC filmetan G-THC filmetan baino aktibitate antioxidatzaile handiagoa ikusi zen.

7.3 Ondorioak

THC konposatua duen gelatinazko filmetan, gelatina eta laktosaren arteko erreakzio kimikoak filmen egituran eragin zuen, distira gutxiagoko eta laztasun handiagoko filmak eratu zirelako. Disoluzio metodoaz prestaturiko filmen XPS azterketak, filmen bi aldeen arteko aldaketak erakutsi zituen, aire-gainazal aldean THC-ren aglomerazioari esleitu zitzaizkionak. Film hauen aktibitate antioxidatzaileari zegokionez, laktosadun gelatinazko filmek antioxidatzaile ahalmena erakutsi zuten, gelatinaren amino taldeen eta laktosaren karbonilo taldeen artean emandako erreakzio kimikoan sortu ziren konposatu fenolikoengatik. Hala ere, garaturiko filmen soluzioan THC konposatua gehitu zenean, hauen ahalmen antioxidatzailea izugarri handitu zen. Ondorioz, THC konposatua zuten gelatinazko filmek elikagaien babesa eta kalitatea hobetzeko ahalmena zeukatela erakutsi zuten, elikagaien ontziratze ekologikoen garapenari lagunduz. Gainera, 6. kapituluan erakutsi ziren laktosarekin saretutako gelatinazko filmen ehun-ingeniaritza aplikazioetarako propietateak kontsideratuz, kurkumaren deribatua zen konposatuaren gehitzeak, filmaren sendatze eragina nabarmenki hobetu zezakeen, honek erakutsitako osasun onurengatik.

8 Gelatinazko biokonpositeen ekoizpena

8.1 Laburpena

Behin filmak prozesatu eta karakterizatu zirela, eta biokonpositeak prestatzeko helburuarekin, plastikoen industrian erabilitako zenbait fabrikatze metodo erabili ziren. Gelatinaren urtze-puntua abantailatzat hartuz, gelatina estrusio bidez prozesatu zen. Estrusioa erabilera askotakoa, oso eraginkorra eta etengabeko fabrikazio teknologia da, estruitutako materialetan eraldaketa fisiko eta kimikoak eragiten dituzten prozesu termomekaniko eta termokimiko ugari barne dituena (Hernández-Izquierdo eta Krochta, 2009; Fakhouri et al., 2013). Nahiz eta estrusioa ondo finkatutako industria teknika izan, ez da proteinekin asko erabili. Hala ere, soja proteinarekin (Guerrero, Kerry, eta de la Caba, 2014), serum proteinarekin (Nor Afizah eta Rizvi, 2014), eta ilar proteinarekin egin berri diren estrusioan fokatutako lanek, estrusioa proteinak prozesatzeko metodo egokia dela iradokitzen dute. Honek, proteinaren merkatu bideragarritasuna sustatu dezake.

Kapitulu honen berritasuna, arrain gelatinazko biokonpositeak ekoizteko estrusio eta injekzio prozesatze metodoak erabiltzean oinarritu zen. Gainera, biokonpositeen berokuntza bidez emandako erreakzio kimiko ez-entzimatikoa sustatzeko, formulazioan laktosa eduki ezberdinak gehitu ziren. Disolbagarritasuna, handitzea eta propietate mekanikoak bezalako propietate funtzionalak analizatu ziren eta hauek, ekorketa diferentzialeko kalorimetria (DSC), X-izpien difrakzioa (XRD), ekorketazko elektroi-mikroskopioa (SEM) eta Fourierren transformatuaren espektroskopia infragorria (FTIR) bidez ikusitako egitura aldaketekin erlazionatu ziren.

8.2 Emaitzak eta eztabaida

Batera biratzen duten torloju bikoitzeko estrusio-makina gelatinazko xaflak sortzeko erabili zen, bigarren kapituluan azaldu den bezala. Estrusio bidez lortutako xaflen (**8.1a irudia**) lodiera eta zabalera 1,06 ± 0,19 mm eta 3,79 ± 0,33 mm ziren, hurrenez hurren. Ondoren, xafla hauek moztu, injektatu eta lortutako biokonpositeak

105 ºC-an 270 minutuz berotu ziren (**8.1b irudia**), aurreko ikerketa lan baten arabera (Etxabide et al., 2015b).



8.1 irudia a) Arrain gelatinazko xaflen estrusio bidezko etengabeko produkzioa eta b) injekzio bidez lorturiko arrain gelatinazko biokonpositeak 105 ºC-an 270 minutuz berotu ostean.

8.3.1 Propietate termikoak

Arrain gelatinazko biokonpositeen TGA-ren eta DTG-ren termogramak laktosa edukiaren funtziopean **8.2a** eta **8.2b irudi**etan erakusten dira, hurrenez hurren. Ikusi daitekeen moduan, biokonposite guztiek jarrera berdintsua zuten, denek antzeko hiru masa galeren etapa erakutsi zituztelako. 100 ºC-tarainoko lehenengo etapa, libre zegoen eta xurgatu zen urarekin erlazionatu zen. Bigarren etapa, 190-260 ºC-ko eremuan agertutako sorbalda, nagusiki pisu molekular baxuko proteinaren frakzioekin, plastifikatzailearekin eta helize hirukoitzaren konformazioan zuzenki egiturari lotutako urarekin lotu zen (Wetzel et al., 1987). Bigarren etapa hau, glizerolaren irakite puntua (182 ºC) baino tenperatura altuagoetan agertu zen, gelatina eta laktosaren artean hidrogeno zubizko loturak bezalako interakzioen presentzia iradokiz (Guerrero et al., 2011a). Gainera, laktosaren edukia igo zenean, 250 ºC-ko sorbalda desagertu zen, seguruenik glizerolaren askatzea oztopatu zezaketen pisu molekular handiko erreakzio produktuak eratu zirelako (Pastoriza eta Rufián-Henares, 2014). Azkenik, 310 ºC-an

hirugarren etapa ikusi zen eta hau tamaina handiko edo ongi elkartutako gelatina frakzioekin erlazionatu zen (Biscarat et al., 2015).



8.2 irudia Arrain gelatinazko biokonpositeen TGA-ren emaitzak a) masa galera kurba moduan eta b) kurben deribatu moduan, laktosa edukiaren funtziopean.

Gainera, DSC burutu zen eta termogramak **8.3 irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen bezala, laktosarik gabeko biokonpositeek bi banda endotermiko aurkeztu zituzten: 69 ºC-an banda txiki bat, zorizko kiribil eremuarekin erlazionatu zena, eta 160 ºC-an urtze banda zabala, gelatinaren kristalizazio tenperaturarekin lotu zena (Coppola, Djabourov, eta Ferrad, 2008). Izan ere, gelatina, hidrolisi partzial bidez lortzen den desnaturalizatutako kolagenoa da eta prozesu horretan helize-hirukoitzeko egitura puskatu egiten da, zorizko kiribil egitura osatuz. Hala ere, kolagenoa gai da 35-40 ºC azpitik bere berezko egitura berreskuratzeko eta fenomeno hori, kiribiletik helizerako transformazioa bezala ezagutzen da (Ghoshal, Stapf, eta Mattea, 2014). Laktosa gehitu zenean, gelatinaren urtze bandaren txikitze esanguratsu bat gertatu zen, laktosa edukia kontuan hartu gabe. Honek, laktosaren eta berokuntzaren eraginagatik arrain gelatinaren saretzea adierazi zuen. Honetaz gain, 137 ºC-an laktosaren kristaltze-tenperaturari zegokion banda txikia ikusi zen, batez ere % 30 laktosadun biokonpositeetan, erreakzionatu gabeko laktosaren presentzia iradokiz (Islam eta Langrish, 2010).



8.3 irudia Arrain gelatinazko biokonpositeen DSC termogramak, laktosa edukiaren funtziopean.

8.3.2 Propietate mekanikoak

Beirazko egoeratik goma-antzeko egoerarainoko trantsizioa DMA bidez aztertu zen eta beirazko trantsizio tenperatura (T_g), biltegiratze modulua (E') eta galera faktorea (tan δ) neurtu ziren. % 10 laktosadun biokonpositeentzat, **8.4 irudia**n erakusten den moduan, lehenengo T_g (T_{g1}) -100 eta -55 ºC artean ikusi zen, hidrogeno zubizko lotura fisikoen bidez gelatinari lotutako glizerol konposatuari zegokiona. Honek, gelatina eta glizerolaren artean erreakzio kimikorik ez zegoela iradoki zuen (Mathew eta Dufresne, 2002). 45 ºC-tarainoko tenperaturaren igoerak E'-ren mailakako txikitzea eragin zuen, kiribiletik helizerako transformazioagatik (Bigi, Panzavolta, eta Rubini, 2004) eta aldiz, E'-ren gainbehera bizkorra eta tan δ-ren banda estua 45-75 ºC-an ikusi ziren, arrain gelatinaren beirazko trantsizio tenperaturarekin (T_{g2}) lotu zirenak (Ghanbarzadeh eta Oromiehi, 2009), aurretik DSC-an 69 ºC-an ikusi moduan. 70 eta 100 ºC-ko tartean, goma-antzeko egonkortasuna ikusi zen.



8.4 irudia % 10 laktosadun arrain gelatinazko biokonpositeen biltegiratze moduluaren (E') eta galera faktorearen (tan δ) balioak.

Lan honetan burutu zen bezala, tenperatura tarte hau laktosa bidez eraldatutako arrain gelatinazko materialak prozesatu nahi direnean erabili daiteke. Laktosa eduki handiagoko biokonpositeetan antzeko grafikoak lortu ziren, eta T_g balioak laktosa edukiaren funtziopean, **8.1 taula**n erakusten dira. Laktosaren edukia handitu zen heinean, T_g balioak txikitu egin ziren eta hau, seguru aski, erreakzionatu gabeko laktosaren efektu plastifikatzailearengatik izan zen (Suyatma, Tighzert, eta Copinet, 2005). Erreakzionatu gabeko laktosak, bere izaera higroskopikoagatik, ingurumenetik hezetasuna xurgatu zezakeen, kristalak eratuz, DSC-an ikusi zen bezala. Honela, bolumen librea handiagoa izan zitekeen, kateen mugimendua handituz eta T_g txikituz.

8.1 taula Glizerolaren (T_{g1}) eta gelatinaren (T_{g2}) beirazko trantsizio tenperaturak, laktosa edukiaren funtziopean

Laktosa (%)	T_{g1} (ºC)	T_{g2} (ºC)
0	-71,1	69,0
10	-74,1	66,4
20	-71,7	60,6
30	-72,9	58,3

Arrain gelatinazko biokonpositeen propietate mekanikoak aztertzeko, trakzio saiakuntza burutu zen eta tentsio-deformazio kurbak aztertu ziren, laktosa edukiaren funtziopean. Nahiz eta hausturan trakzio erresistentzia balioen artean ezberdintasun esanguratsurik (P > 0,05) ez egon, laktosa edukia kontuan hartu gabe, laktosa gehitzerakoan erantzun mekanikoan aldaketa nabaria ikusi zen (**8.5 irudia**). Laktosa gabeko biokonpositearen portaera plastikoa, gelatina eta glizerolaren arteko hidrogeno zubizko interakzio fisikoei egokitu zitzaien, deformazioa jasaten ari zen material zurrun batean geratuz, biokonpositearen egitura porotsuarekin bat eginez (Gibson eta Ashby, 1999), behean erakusten den bezala. Laktosa bidez eraldatutako biokonpositeen tentsio-deformazio kurba hiru eremu ezberdinez osatuta zegoen: eremu lineal elastikoa, egonkorra zen eremu zurruna eta saretze kimikoak eragindako biokonpositearen dentsitatearen txikitzeari elkartutako tentsioaren igoera linealaren azken eremua.



8.5 irudia Laktosadun arrain gelatinazko biokonpositeen tentsio-deformazio kurbak.

Tentsio-deformazio portaeraz gain, Young modulua (E), trakzio erresistentzia (TS) eta haustura elongazioa (EB) neurtu ziren eta balioak **8.2 taula**n erakusten dira. Laktosa gehitu zenean, E balioak txikitu ziren ($P < 0,05$), azukre kantitatea kontuan hartu gabe. DSC-ko emaitzek erakutsi zuten bezala, laktosaren gehikuntzak saretzea sustatu zuen, proteina kateen molekularteko interakzioak gutxituz eta kolagenoaren berezko helize hirukoitzaren berrantolaketa oztopatuz (Zaman eta Beg, 2015). Beraz, arrain gelatinazko biokonpositeen zurruntasuna txikitu zen, DMA-ko emaitzekin bat eginez. Trakzio erresistentziari zegokionez, laktosaren gehikuntzak balio hauetan ez zuen eragin esanguratsurik ($P > 0,05$) izan, eta 20 MPa inguruko balioetan mantendu ziren. Haustura elongazioari dagokionez berriz, laktosa gehitzerakoan balio hauek % 5 arte igo ziren eta hau, seguruenik erreakzionatu gabeko laktosaren plastifikatzaile izaeragatik izan zen, DMA bidez erakutsi zen moduan.

8.2 taula Arrain gelatinazko biokonpositeen propietate mekanikoak, laktosa edukiaren funtziopean.

Laktosa (%)	E (MPa)	TS (MPa)	EB (%)
0	1396 ± 120^{a}	20 ± 2^{a}	$1,9 \pm 0,1^{a}$
10	906 ± 107^{b}	22 ± 1^{a}	$5,6 \pm 0,4^{b}$
20	857 ± 70^{b}	20 ± 3^{a}	$5,4 \pm 1,1^{b}$
30	925 ± 147^{b}	18 ± 2^{a}	$4,8 \pm 0,2^{b}$

[a-b] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki ($P > 0,05$) desberdinak Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

8.3.3 Biokonpositeen egitura

Biokonpositeen propietateetan laktosa edukiaren eragina azaltzeko, hauen egitura ezagutzea funtsezkoa da eta beraz, arrain gelatinazko biokonpositeen kristalinitatea eta morfologia aztertzeko, XRD eta SEM analisiak burutu ziren. **8.6 irudia**n ikusi daitekeen bezala, difraktogramek bi difrakzio banda erakutsi zituzten: 21º-etako banda, gelatinaren kristalinitatearekin erlazionatu zena, eta 7,4º-tako banda, kolageno natiboaren helize hirukoitzaren hondarrari egokitu zitzaiona (Bigi, Panzavolta, eta Rubini, 2004). Laktosaren edukia handitu zenean, gelatinaren kristalinitatea handitu zen, honen eta laktosaren artean sortutako lotura kobalenteen eraketarengatik egitura ordenamendu handiagoa eman zela adieraziz (Etxabide et al., 2015b). Horretaz gain,

erreakzionatu gabeko laktosak hezetasuna xurgatu zezakeen, ondoren kristalizatuz, laktosa edukiaren handitzearekin DSC-ko 137 ºC-ko kristalinitatearen bandaren igoerarekin bat etorriz. Aldiz, helize hirukoitzaren hondarra txikitu zen, saretzearengatik proteinaren kateen molekularteko interakzioen txikitzeak helize hirukoitzaren hondarraren berrantolaketa ekidin zuelako. Emaitza hauek, trakzio erresistentzia bidez neurturiko Young moduluaren txikitzearekin bat zetozen.



8.6 irudia % 0 eta % 30 laktosadun arrain gelatinazko biokonpositeen XRD emaitzak.

Arrain gelatinazko biokonpositeen egituraren analisi sakonagoa egiteko, materialen haustura gainazalen SEM mikrografiak aztertu ziren (**8.7 irudia**).



8.7 irudia a) % 0 laktosadun eta b) % 30 laktosadun arrain gelatinazko biokonpositeen SEM irudiak.

Biokonpositeen egitura ezkata itxurako egituratik (**8.7a irudia**) zuntz itxurako egiturara (**8.7b irudia**) aldatu zen. Azken honetan, laktosa gehitu zenean, erreakzionatu gabeko laktosa kristalak zuntzen inguruan ikusi ziren, XRD bidez ikusitako egitura ordenatuago batekin bat etorriz.

8.3.4 Biokonpositeen handitzea

Handitze-azterketa burutu zen eta murgilketa aurretik eta ondoren ateratako laginen irudiak **8.8 irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen moduan, laktosadun laginek kolore arrexka erakutsi zuten, melanoidinak izenez ezagunak diren arrexka koloreko pigmentu disolbaezinen eraketagatik (Jiang eta Brodkorb, 2012). Aipatzekoa da, biokonposite guztiek beraien egitura oso-osorik mantendu zutela, hauek uretan 4320 minutuz (3 egun) murgilduta egon ostean. Hala ere, laktosadun laginen ura xurgatzeko gaitasuna txikiagoa zen laktosarik gabeko biokonpositeetan baino, erreakzioak likidoak xurgatzeko ahalmenean eragiten zuela iradokiz. Laktosa gehitu zenean, saretzea handitu zen eta beraz, likidoaren difusioa laginean zehar txikitu zen (Saarai et al., 2013).



8.8 irudia Arrain gelatinazko biokonpositeak laktosa edukiaren arabera, a) murgilketa aurretik eta b) 4320 minutuz murgilduta egon ostean.

Honetaz gain, handitze-zinetika aztertu zen eta emaitzak **8.9a** eta **8.9b irudi**etan erakusten dira. Laginek, 4320 minututaraino bigarren mailako zinetika aurkeztu zuten (**8.9a irudia**), 480 minututaraino lehenengo mailako zinetika erakusten

zuten bitartean (**8.9b irudia**). Alde batetik, laktosarik gabeko laginak 480 minutu ostean % 230, eta 4320 minutu ostean % 1500 handitu ziren, handitze lineala denboran zehar erakutsiz. Bestaldetik, laktosaren gehikuntzak handitzea esanguratsuki txikitu zuen, 480 minutuan % 150-eko balioak eta 4320 minuturaino, saretze kimikoarengatik, % 250 inguruko balio konstanteak erakutsiz. Hala ere, laktosa edukiaren handitzearekin, handitze-balioak pittin bat igo ziren eta hau erreakzionatu gabeko laktosaren izaera higroskopikoagatik izan zen. Behaketa hauek, DSC eta DMA bidez lortutako emaitzekin bat egin zuten.



8.9 irudia a) 4320 minututaraino (3 egun) eta b) 480 minututaraino (8 ordu) arrain gelatinazko biokonpositeen handitze-balioak, laktosa edukiaren arabera.

Saretze eta handitze-prozesuetan masa eta bolumen aldaketak gertatu zirenez, dentsitatearen eta porositatearen balioak kalkulatu ziren eta hauek **8.3 taula**n azaltzen dira. Ikusi daitekeen moduan, kontrol-biokonpositeek (berotu gabeko biokonpositeek) eta laktosarik gabeko berotutako biokonpositeek antzeko dentsitateak ($P > 0,05$) erakutsi zituzten, giro tenperaturan uraren dentsitatea (0,997 g/mL) baino balio altuagoak aurkeztuz. Hala ere, laktosa edukia igotzerakoan, berokuntza ondotik dentsitatearen txikitze esanguratsua ($P < 0,05$) ikusi zen eta dentsitatearen balioak uraren dentsitatearenak baino txikiagoak ziren. Portaera hau, glizerolaren eta erreakzionatu gabeko laktosaren lekutzeagatik izan zitekeen edota saretze

kimikoagatik gelatinaren egituran eragindako bolumen handitzearen ondorioz gerta zitekeen (Learner et al., 2008).

8.3 taula Arrain gelatinazko biokonpositeen dentsitate eta porositate balioak, laktosa edukiaren funtziopean.

Laktosa (%)	$\rho_{kontrola}$ (g/mL)	ρ_x (g/mL)	Porositatea (%)
0	1,34 ± 0,06[a]	1,20 ± 0,04[a]	---
10	1,33 ± 0,04[a]	0,87 ± 0,01[b]	36,54 ± 1,53[d]
20	1,29 ± 0,12[a]	0,58 ± 0,01[c]	53,83 ± 4,43[e]
30	1,32 ± 0,09[a]	0,41 ± 0,03[c]	68,78 ± 0,45[f]

[a-f] Zutabe berean letra bera duten bi balio ez dira esanguratsuki (P > 0,05), desberdinak Tukey-ren froga anizkoitzaren arabera.

Porositatearen balioak handitu zirenez, arrain gelatinazko biokonpositeen egitura aldaketa azaltzeko SEM analisia burutu zen. Ikusi daitekeen moduan, laktosarik gabeko laginetan hutsune batzuk zituen gainazal homogeneoak eta leunak lortu ziren (**8.10a irudia**). Aldiz, % 30 laktosa gehitu zenean, egitura oso porotsua ikusi zen (**8.10b irudia**). Portaera hau, handitze-prozesuan zehar glizerolaren eta erreakzionatu gabeko laktosaren lekutzearekin bat zetorren, laktosa kantitate handiagoko laginetan poro gehiago ikusi zirelako. Dentsitate baxuko egitura porotsu hauek konposatu aktiboak garraiatzeko interesgarriak izan zitezkeen.



8.10 irudia a) % 0 eta b) % 30 laktosadun arrain gelatinazko filmen SEM irudiak, 4320 minutuz PBS-n murgilduta egon ostean.

Handitze-prozesuan zehar pisu molekular baxuko konposatuen lekutzea aztertzeko, arrain gelatinazko biokonpositeak FTIR espektroskopia bidez aztertu ziren.

Murgilketa aurretik eta 4320 minutuz murgilduta egon osteko biokonpositeen FTIR espektroak **8.11 irudia**n erakusten dira. Ikusi daitekeen bezala, laktosarik gabeko filmetan glizerolaren banda bereizgarria desagertu zen, plastifikatzailearen lekutzea eta glizerolaren eta gelatinaren arteko interakzioak nagusiki hidrogeno zubizko loturak zirela iradokiz (Guerrero et al., 2011b). Bestaldetik, erreakzionatu gabeko laktosaren lekutzeagatik, **8.11b irudia**n laktosa banden intentsitateen txikitze nabaria ikusi zen.



8.11 irudia a) % 0 laktosadun eta b) % 30 laktosadun arrain gelatinazko biokonpositeen FTIR espektroak, PBS-n murgildu aurretik eta ondoren.

8.3 Ondorioak

Gelatinazko pelletak estrusio bidez lortu ziren eta ondoren hauek injektatu egin ziren, gelatinan oinarritutako biokonpositeak ekoizteko. Saretze kimikoa, laktosaren gehikuntzarekin eta berotzearekin sustatu zen erreakzio ez-entzimatikoaren eraginez gertatu zen. Saretze honek, SEM bidez ikusitako egitura porotsuaren eraketarengatik, gelatinazko biokonpositeen disolbagarritasuna, handitzea eta dentsitatea txikitu zituen. Gainera, laktosa edukiaren handitzeak kristalinitatearen handitzea eragin zuen, DSC bidez ikusi zena, eta helize hirukoitza egitura txikiarazi zuen, XRD emaitzekin ziurtatu zena, trakzio analisi bidez ikusitako modulu elastikoaren txikitzearekin bat etorriz. Azkenik, laktosaren gehikuntzarekin gertatutako haustura elongazioaren handitzeak eta beirazko trantsizio tenperaturaren txikitzeak, prestatutako biokonpositeetan

erreakzionatu gabeko laktosak plastifikatzaile moduan jokatu zezakeela erakutsi zuten. Emaitza hauek, erreakzio ez-entzimatiko bidez saretutako gelatinek, hobetutako propietateak dituzten biokonpositeak garatzeko hurbilketa berri bat eman zutela adierazi zuten.

9 Ondorio orokorrak

Kapitulu honetan, tesian zehar aurkeztutako ikerlan guztien ondorio orokorrak azaltzen dira:

- UV argiarekiko erresistentzia eta trakzio erresistentzia handiko arrain gelatinazko film homogeneoak eta gardenak prestatu ziren. Propietate funtzional hauek elikagaien paketatze aplikazioetan elikagaien iraungitzea luzatzeko film hauen gaitasuna nabarmendu zuten.
- Zaborren kudeaketa errazteaz gain, material ez-biodegradagarrien kontsumoa gutxiagotzeko bizi amaierako fasean konpostaren ingurumen-inpaktu positiboek filmak epe motzeko paketatze aplikazioetan erabiltzea sustatu zuten.
- Laktosaren gehikuntzak gelatinaren egituran eragin zuen, bereziki berokuntza ostean Maillard erreakzioa sustatu zelako. Aplikazio zehatzetarako eskakizunen arabera erreakzioaren hedapena soluzioaren pH-aren bidez kontrolatu zitekeen.
- pH azidoan, saretze erreakzioaren hedapena txikiagoa izan zen, guztiz disolbagarriak ziren filmak lortuz. Hauek, fluxu gastrikoekin kontaktuan dauden film aktibo moduan erabili zitezkeen.
- pH basikoan, saretze erreakzioaren hedapena handia izan zen, urarekiko erresistentzia handiko UV argiarekiko babes-filmak lortuz eta beraz, paketatze aplikazioetarako film egokiak prestatu ziren. Horretaz gain, biokonpatibilitate eta zelulen ugalketarako propietate bikainek, filmek aplikazio farmazeutikoetan, hala nola, zaurien sendaketan erabiltzeko propietate egokiak erakutsi zituzten.
- Laktosadun gelatinazko filmek antioxidatzaile ahalmena erakutsi zuten, Maillard erreakzioan sortutako konposatu fenolikoengatik.
- Filma eratzeko soluzioetan THC konposatua gehitzeak, prestatutako filmen ahalmen antioxidatzailea nabarmenki handitu zuen, paketatze aktiboan elikagaien kalitatea hobetzeko film hauen gaitasuna erakutsiz.

- Gelatinazko xaflak eta biokonpositeak lortzeko, estrusio eta injekzio parametroak optimizatu ziren. Egitura porotsuaren eraketak biokonpositeen disolbagarritasuna, handitzea eta dentsitatea txikitu zituen.
- Formulazioak eta prozesatze baldintzak optimizatu ziren, industri-mailan gaur egun eskuragarri dauden teknika bidez gelatinazko materialak ekoizteko.

10 Erreferentziak

Ahmad, M., Benjakul, S., Prodpran, T., eta Agustini, T.W. (2012). Physico-mechanical and antimicrobial properties of gelatin film from the skin of unicorn leatherjacket incorporated with essential oils. *Food Hydrocolloids*, 28, 189-199.

Ali Poursamar, S., Lehner, A.N., Azami, M., Ebrahimi-Barough, S., Samadikuchaksaraei, A., eta Antunes, A.P.M. (2016). The effects of crosslinkers on physical, mechanical, and cytotoxic properties of gelatin sponge prepared *via in-situ* gas foaming method as a tissue engineering scaffold. *Mater Sci Eng*, 63, 1-9.

Ali, J., Md, S., Baboota, S., eta Sahni, J.K. (2012). Polymeric nanoparticles, magnetic nanoparticles and quantum dots: current future perspectives. In *Patenting nanomedicines*. Souto, E.B. (Ed.). Berlin, Springer-Verlag, pp. 107-110.

Anbinder, P.S., Peruzzo, P.J., Martino, M.N., eta Amalvy, J.I. (2015). Effect of antioxidant active films on the oxidation of soybean oil monitored by Fourier infrared spectroscopy. *J Food Eng*, 151, 43-50.

Arfat, Y.A., Benjakul, S., Vongkamjan, K., Sumpavapol, P., eta Yarnpakdee, S. (2015). Shelf-life extension of refrigerated sea bass slices wrapped with fish protein isolate/fish skin gelatin-ZnO nanocomposite film incorporated with basil leaf essential oil. *J Food Sci Technol*, 52, 6182-6193.

Arrieta, M.P., Fortunati, E., Dominici, F., Rayón, E., López, J., eta Kenny, J.M. (2014). PLA-PHB/cellulose based films: mechanical, barrier and disintegration properties. *Polym Degrad Stab*, 107, 139-149.

ASTM D1708-93(1993). Standard test method for tensile properties of plastics by use of microtensile specimens. In *Annual Book of ASTM Standards*. Philadelphia: American Society for Testing Materials.

ASTM D523-14 (2014). Standard test method for specular gloss. In *Annual Book of ASTM Standards*. Philadelphia: American Society for Testing Materials.

ASTM D570-98 (1998). Standard test method for water absorption of plastics. In *Annual Book of ASTM Standards*. Philadelphia: American Society for Testing Materials.

ASTM E96-00 (2000). Standard test methods for water vapour transmission of material. In *Annual Book of ASTM Standards.* Philadelphia: American Society for Testing Materials.

Atarés, L. eta Chiralt, A. (2016). Essential oils as additives in biodegradable films and coatings for active food packaging. *Trends Food Sci Technol*, 48, 51-62.

Bandyopadhyay, P., Ghosh, A.K., eta Ghosh, C. (2012). Recent developments on polyphenol-protein interactions: effects on tea and coffee taste, antioxidant properties and the digestive system. *Food Funct*, 3, 592-605.

Bare, J.C., Hofstetter, P., Pennington, D.W., eta Udo de Haes, H.A. (2000). Midpoints versus endpoints: the sacrifices and benefits. *Int J Life Cycle Assess*, 5, 319-326.

Basu, S., Shivhare, U.S., Singh, T.V., eta Beniwal, V.S. (2011). Rheological, texture and spectral characteristics of sorbitol substituted mango jam. *J Food Eng*, 105, 503-512.

Benbettaïeb, N., Assifaoui, A., Karbowiak, T., Debeaufort, F., eta Chambin, O. (2016a). Controlled release of tryrosol and ferulic acid encapsulated in chitosan-gelatin films after electron beam irradiation. *Radiat Phys Chem*, 118, 81-86.

Benbettaïeb, N., Chambin, O., Assifaoui, A., Al-Assaf, S., Karbowiak, T., eta Debeaufort, F. (2016b). Release of coumarin incorporated into chitosan-gelatin irradiated films. *Food Hydrocolloids*, 56, 266-276.

Benbettaïeb, N., Chambin, O., Karbowiak, T., eta Debeaufort, F. (2016c). Release behavior of quercetin from chitosan-fish gelatin edible films influenced by electron beam irradiation. *Food Control*, 66, 315-319.

Benetto, E., Jury, C., Igos, E., Carton, J., Hild, P., Vergne, C., eta Di Martino, J. (2015). Using atmospheric plasma to design multilayer film from polylactic acid and thermoplastic starch: a screening life cycle assessment. *J Cleaner Prod*, 87, 953-960.

Benjakul, S., Kittiphattanabawon, P., eta Regenstein, J.M. (2012). Fish gelatin. In *Food Biochemistry and Food*. Simpson, B.K., Nollet, L.M.L., eta Toldrae, F. (Eds). John Wiley eta Sons Inc, Ames, IA, USA, pp. 388-405.

Bergo, P. eta Sobral, P.J.A. (2007). Effects of plasticizer on physical properties of pigskin gelatin films. *Food Hydrocolloids*, 12, 1285-1289.

Bhat, R. eta Karim, A.A. (2014). Towards producing novel fish gelatin films by combination treatments of ultraviolet radiation and sugars (ribose and lactose) as cross-linking agents. *J Food Sci Technol*, 51, 1329-1333.

Bhat, S.A., Sohail, A., Siddiqui, A.A., eta Bano, B. (2014). Effect of non-enzymatic glycation on cystatin: a spectroscopy study. *J Fluoresc*, 24, 1107-1117.

Bhutani, U., Laha, A., Mitra, K., eta Majumdar, S. (2016). Sodium alginate and gelatin hydrogels: viscosity effect on hydrophobic drug release. *Mater Lett*, 164, 76-79.

Bigi, A., Panzavolta, S., eta Rubini, K. (2004). Relationship between triple-helix content and mechanical properties of gelatin films. *Biomaterials*, 25, 5675-5680.

Biscarat, J., Charmette, C., Sanchez, J., eta Pochat-Bohatier, C. (2015). Preparation of dense gelatin membranes by combining temperature induced gelation and dry-casting. *J Membr Sci*, 473, 45-53.

Bitencourt, C.M., Fávaro-Trindade, C.S., Sobral, P.J.A., eta Carvalho, R.A. (2014). Gelatin-based films additivated with curcuma ethanol extract: antioxidant activity and physical properties of films. *Food Hydrocolloids*, 40, 145-152.

Bolumar, T., Andersen, M.L., eta Orlien, V. (2011). Antioxidant active packaging for chicken meat processed by high pressure treatment. *Food Chem*, 129, 1406-1412.

Boulekbache-Makhlouf, L., Slimani, S., eta Madani, K. (2013). Total phenolic content, antioxidant and antibacterial activities of fruits of *Eucalyptus globulus* cultivated in Algeria. *Ind Crops Prod*, 41, 85-89.

Bower, C.K., Avena-Bustillos, R.J., Olsen, C.W., Mchugh, T.H., eta Bechtel, P.J. (2006). Characterization of fish-skin gelatin gels and films containing the antimicrobial enzyme lysozyme. *J Food Sci*, 71, 141-145.

Bravin, B., Pressini, D., eta Sensidoni, A. (2006). Development and application of polysaccharide-lipid edible coating to extend shelf-life of dry bakery products. *J Food Eng*, 76, 280-290.

Calderón, L.A., Iglesias, L., Laca, A., Herrero, M., eta Díaz, M. (2010). The utility of life cycle assessment in the ready meal food industry. *Resour Conserv Recycl*, 54, 1196-1207.

Carlsen, M.H., Halvorsen, B.L., Holte, K., Bøhn, S.K., Dragland, S., Sampson, L., Willey, C., Senoo, H., Umezono, Y., Sanada, C., Barikmo, I., Berhe, N., Willett, W.C., Phillips, K.M., Jacobs, D.R., eta Blomhoff, R. (2010). The total antioxidant content of more than 3100 foods, beverages, spices, herbs and supplements used worldwide. *Nutr J*, 9, 1-11.

Carvalho, R.A. eta Grosso, C.R.F. (2004). Characterization of gelatin based films modified with transglutaminase, glyoxal and formaldehyde. *Food Hydrocolloids*, 18, 717-726.

Chen, Z., Wang, L., eta Jiang, H. (2012). The effect of procyanidine crosslinking on the properties of the electrospun gelatin membranes. *Biofabrication*, 4, 1-11.

Chiou, B., Avena-Bustillos, R.J., Bechtel, P.J., Jafri, H., Narayan, R., Imam, S.H., Glenn, G.M., eta Orts, W.J. (2008). Cold water fish gelatin films: Effects of cross-linking on thermal, mechanical, barrier, and biodegradation properties. *Eur Polym J*, 44, 3748-3753.

Chiou, B.S., Avena-Bustillos, R.J., Shey, J., Yee, E., Bechtel, P.J., eta Imam, S.H. (2006). Rheological and mechanical properties of cross-linked fish gelatins. *Polymer*, 47, 6379-6386.

Coppola, M., Djabourov, M., eta Ferrand, M. (2008). Phase diagram of gelatin plasticized by water and glycerol. *Macromol Symp*, 273, 56-65.

Costa, D.C., Costa, H.S., Albuquerque, T.G., Ramos, F., Castilho, M.C., eta Sanches-Silva, A. (2015). Advances in phenolic compounds analysis of aromatic plants and their potential applications. *Trends Food Sci Technol*, 45, 336-354.

Crizel, T.M., Costa, T.M.H., Rios, A.O., eta Flôres, S.H. (2016). Valorization of food-grade industrial waste in the obtaining active biodegradable films for packaging. *Ind Crops Prod*, 87, 218-228.

Cuq, B., Gontard, N., Cuq, J.L., eta Guilbert, S. (1996). Functional properties of myofibrillar protein-based biopackaging as affected by film thickness. *J Food Sci*, 61, 580-584.

Cuzzoni, M.T., Stoppini, G., Gazzani, G., eta Mazza, P. (1988). Influence of water activity and reaction temperature of ribose-lysine and glucose-lysine Maillard systems on mutagenicity, absorbance and content of furfurals. *Food Chem Toxicol*, 26, 815-822.

Da Silva, B.V., Barreira, J.C.M., eta Oliveira, M.B.P.P. (2016). Natural phytochemicals and probiotics as bioactive ingredients for functional foods: extraction, biochemistry and protected-delivery technologies. *Trends Food Sci Technol*, 50, 144-158.

Da Silva, G.P., Mack, M., eta Contiero, J. (2009). Glycerol: a promising and abundant carbon source for industrial microbiology. *Biotechnol Adv*, 1, 30-39.

Deligianni, D.D., Katsala, N., Ladas, S., Sotiropoulou, D., Amedee, J., eta Missirlis, Y.F. (2001). Effect of surface roughness of the titanium alloy Ti-6Al-4V on human bone marrow cell response and on protein adsorption. *Biomaterials*, 22, 1241-1251.

Deng, Y., Achten, W.M.J., Van Acker, K., eta Duflou, J.R. (2013). Life cycle assessment of wheat gluten powder and derived packaging film. *Biofuels Bioprod Biorefin*, 7, 429-458.

Deyl, Z., Mikšík, I., Zicha, J., eta Jelínková, D. (1997). Reversed-phase chromatography of pentosidine-containing CNBr peptides from collagen. *Anal Chim Acta*, 352, 257-270.

Díaz-Visurraga, J., Meléndrez, M.F., García, A., Paulraj, M., eta Cárdenas, G. (2010). Semitransparent chitosan-TiO_2 nanotubes composite film for food package applications. J *Appl Polym Sci*, 116, 3503-3515.

Djilani, A. eta Dicko, A. (2012). The therapeutic benefits of essential oils. INTECH.

Duconseille, A., Astruc, T., Quintana, N., Meersman, F., eta Sante-Lhoutellier, V. (2015). Gelatin structure and composition linked to hard capsule dissolution: A review. *Food Hydrocolloids*, 43, 360-376.

Duncan, S.E. eta Chang, H.H. (2012). Implications of light energy on food quality and packaging selection. In *Advances in Food and Nutrition Research.* Taylor, S. (Ed.). Elsevier, San Diego, pp. 25-73.

El Asbahani, A., Milada, K., Badri, W., Sala, M., Addi, E.H.A., Casabianca, H., El Mousadik, A., Hartmann, D., Jilale, A., Renaud, F.N.R., eta Elaissari, A. (2015). Essential oils: From extraction to encapsulation. *Int J Pharm*, 483, 220-243.

Embuscado, M.E. (2015). Spices and herbs: natural sources of antioxidants - a mini review. *J Funct Foods*, 18, 811-819.

Etxabide, A., Guerrero, P., eta de la Caba, K. (2016). A novel approach to manufacture porous biocomposites using extrusion and injection moulding. *Eur Polym J*, 82, 324-333.

Etxabide, A., Leceta, I., Cabezudo, S., Guerrero, P., eta de la Caba, K. (2016a). Sustainable fish gelatin films: from food processing waste to compost. *ACS Sustainable Chem Eng*, 4, 4626-4634.

Etxabide, A., Uranga, J., Guerrero, P., eta de la Caba, K. (2015a). Improvement of barrier properties of fish gelatin films promoted by gelatin glycation with lactose at high temperatures. *LWT-Food Sci Technol*, 63, 315-321.

Etxabide, A., Uranga, J., Guerrero, P., eta de la Caba, K. (2016). Development of active gelatin films by means of valorisation of food processing waste: a review. *Food Hydrocolloids*, 68, 192-198.

Etxabide, A., Urdanpilleta, M., Guerrero, P., eta de la Caba, K. (2015b). Effects of cross-linking in nanostructure and physicochemical properties of fish gelatin for bio-applications. *React Funct Polym*, 94, 55-62.

Fabian, H. eta Mäntele, W. (2002). Infrared spectroscopy of proteins. In *Handbook of Vibrational Spectroscopy*. Chalmer, J.M. eta Griffiths, P.R. (Eds.). John Wiley eta Sons, Chichester, UK, pp. 3399-3426.

Fakhouri, F.M., Costa, D., Yamashita, F., Martelli, S.M., Jesus, R.C., Alganer, K., Collares-Queiroz, F., eta Innocentini-Mei, L.H. (2013). Comparative study of processing methods for starch/gelatin films. *Carbohydr Polym*, 20, 681-689.

Farris, S., Song, J., eta Huang, Q. (2010). Alternative reaction mechanism for the cross-linking of gelatin with glutaraldehyde. *J Agric Food Chem*, 58, 998-1003.

Freile-Pelegrín, Y. eta Robledo, D. (2014). Bioactive phenolic compounds from algae. In *Bioactive compounds from marine foods: plant and animal sources*. Hernández-Ledesma, B. eta Herrero, M. (Eds.) John Wiley eta Sons, Ltd., Chichester, UK, pp. 131-152.

Garrido, T., Etxabide, A., Leceta, I., Cabezudo, S., de la Caba, K., eta Guerrero, P. (2014). Valorization of soya by-products for sustainable packaging. *J Cleaner Prod*, 64, 228-233.

Garrido, T., Etxabide, A., Peñalba, M., de la Caba, K., eta Guerrero, P. (2013). Preparation and characterization of soy protein thin films: processing-properties correlation. *Mater Lett*, 105, 110-112.

Ghanbarzadeh, B. eta Oromiehi, A.R. (2009). Thermal and mechanical behavior of laminated protein films. *J Food Eng*, 90, 517-524.

Ghoshal, S., Stapf, S., eta Mattea, C. (2014). Protein renaturation in the gelatin film formation process. *Appl Magn Reson*, 45, 145-154.

Gibson, L.J. eta Ashby, M.F. (1999). Cellular solids: structure and properties. Cambridge University Press, Cambridge.

Giménez, B., Gómez-Guillén, M.C., López-Caballero, M.E., Gómez-Estaca, J., eta Montero, P. (2012). Role of sepiolite in the release of active compounds from gelatin-egg white films. *Food Hydrocolloids*, 27, 475-486.

Giménez, B., López de Lacey, A., Pérez-Santín, E., López-Caballero, M.E., eta Montero, P. (2013). Release of active compounds from agar and agar-gelatin films with green tea extract. *Food Hydrocolloids*, 30, 264-271.

Gómez-Estaca, J., Giménez, B., Gómez-Guillén, C., eta Montero, P. (2010a). Influence of frozen storage on aptitude of sardine and dolphinfish for cold-smoking process. *LWT-Food Sci Technol*, 43, 1246-1252.

Gómez-Estaca, J., Gómez-Guillén, M.C., Fernández-Martin, F., eta Montero, P. (2011). Effect of gelatin origin, bovine-hide and tuna-skin, on the properties of compound gelatin-chitosan films. *Food Hydrocolloids*, 25, 1461-1469.

Gómez-Estaca, J., López de Lacey, A., López-Caballero, M.E., Gómez-Guillén, M.C., eta Montero, P. (2010b). Biodegradable gelatin-chitosan films incorporated with essential oils as antimicrobial agents for fish preservation. *Food Microbiol*, 27, 889-896.

Gómez-Guillén, M.C., Giménez, B., López-Caballero, M.E., eta Montero, M.P. (2011). Functional and bioactive properties of collagen and gelatin from alternative sources: a review. *Food Hydrocolloids*, 25, 1813-1827.

Gómez-Guillén, M.C., Pérez-Mateos, M., Gómez-Estaca, J., López-Caballero, E., Giménez, B., eta Montero, P. (2009). Fish gelatin: a renewable material for developing active biodegradable films. *Trends Food Sci Technol*, 20, 3-16.

Gómez-Guillén, M.C., Turnay, J., Fernandez-Diaz, M.D., Ulmo, N., Lizarbe, M.A., eta Montero, P. (2002). Structural and physical properties of gelatin extracted from different marine species: a comparative study. *Food Hydrocolloids*, 16, 25-34.

Guadipati, V. (2013). Fish gelatin: a versatile ingredient for the food and pharmaceutical industries. In *Marine Proteins and Peptides-Biological activities and applications*. Kim, S.K. (Ed.). John Wiley eta Sons, Ltd, West Sussex, UK, Chapter 13.

Guerrero, P., Beatty, E., Kerry, J.P., eta de la Caba, K. (2012). Extrusion of soy protein with gelatin and sugars at low moisture content. *J Food Eng*, 110, 53-59.

Guerrero, P., Etxabide, A., Leceta, I., Peñalba, M., eta de la Caba, K. (2014). Extraction of agar from *Gelidium sesquipedale* (*Rodhopyta*) and surface characterization of agar based films. *Carbohydr Polym*, 99, 491-489.

Guerrero, P, Kerry, J.P., eta de la Caba, K. (2014). FTIR characterization of protein-polysaccharide interactions in extruded blends. *Carbohyd Polym*, 111, 598-605.

Guerrero, P., Nur Hanani, Z.A., Perry, J.P., eta de la Caba, K. (2011a). Characterization of soy protein-based films prepared with acids and oils by compression. *J Food Eng*, 107, 41-49.

Guerrero, P., Stefani, P.M., Ruseckaite, R., eta de la Caba, K. (2011b). Functional properties of films based on soy protein isolate and gelatin processed by compression molding. *J Food Eng*, 105, 65-72.

Günkaya, Z. eta Banar, M. (2016). An environmental comparison of biocomposite film based on orange peel-derived pectin jelly-corn starch and LDPE film: LCA and biodegradability. *Int J Life Cycle Asses*, 21, 465-475.

Gupta, R.K., Kumar, P., Sharma, A., eta Patil, R.T. (2011). Color kinetics of aonla shreds with amalgamated blanching during drying. *Int J Food Prop*, 14, 1232-1240.

Haddar, A., Sellimi, S., Ghannouchi, R., Alvarez, O.M., Nasri, M., eta Bougatef, A. (2012). Functional, antioxidant and film-forming properties of tuna-skin gelatin with a brown algae extract. *Int J Biol Macromol*, 51, 477-483.

Hammann, F. eta Schmid, M. (2014). Determination and quantification of molecular interactions in protein films: a review. *Materials*, 7, 7975-7996.

Haq, M.A., Hasnain, A., eta Azam, M. (2014). Characterization of edible gum cordia film: effects of plasticizers. *LWT-Food Sci Technol*, 55, 163-169.

Hernández-Izquierdo, V.M. eta Krochta, J.M. (2009). Thermal transitions and heat-sealing of glycerol-plasticized whey protein films. *Packag Technol Sci*, 22, 255-260.

Hong, P.K., Gottardi, D., Ndagijimana, M., eta Betti, M. (2014). Glycation and transglutaminase mediated glycosylation of fish gelatin peptides with glucosamine enhance bioactivity. *Food Chem*, 142, 285-293.

Hoque, S. (2011). Improvement of properties of edible film based on gelatin from cuttlefish (*Sepia pharaonis*) skin. PhD. Dissertation, Prince of Songkla University.

Hoque, S., Benjakul, S., eta Prodpran, T. (2011). Properties of film from cuttlefish (*Sepia pharaonis*) skin gelatin incorporated with cinnamon, clove and star anise extracts. *Food Hydrocolloids*, 25, 1085-1097.

Hu, X., Lu, Q., Sun, L., Cebe, P., Wang, X., Zhang, X., eta Kaplan, D.L. (2010). Biomaterials from ultrasonication-induced silk fibroin-hyaluronic acid hydrogels. *Biomacromolecules*, 11, 3178-3188.

Iahnke, A.O.S., Costa, T.M.H., Rios, A.O., eta Flôres, S.H. (2015). Residues of minimally processed carrot and gelatin capsules: potential materials for packaging films. *Ind Crops Prod*, 76, 1071-1078.

Ingrao, C., Lo Giudice, A., Bacenetti, J., Khaneghah, A.M., Sant'Ana, A.S., Rana, R., eta Siracusa, V. (2015). Foamy polystyrene trays for fresh-meat packaging: life-cycle inventory data collection and environmental impact assessment. *Food Res Int*, 76, 418-426.

Islam, M.I.U. eta Langrish, T.A.G. (2010). An investigation into lactose crystallization under high temperature conditions during spray drying. *Food Res Int*, 43, 46-56.

Isleroglu, H., Kemerli, T., Sakin-Yilmazer, M., Guven, G., Ozdestan, O., Uren, A., eta Kaymak-Ertekin, F. (2012). Effect of steam baking on acrylamide formation and browning kinetics of cookies. *J Food Sci*, 77, 257-263.

ISO 10993-5 (2009). Biological evaluation of medical devices - Part 5: Tests for in vitro cytotoxicity.

ISO 14040 (2006). Environmental Management - Life Cycle Assessment - Principals and Framework.

Iturriaga, L., Olabarrieta, I., eta de Marañón, I.M. (2012). Antimicrobial assays of natural extracts and their inhibitory effect against *Listeria innocua* and fish spoilage bacteria, after incorporation into biopolymer edible films. *Int J Food Microbiol*, 158, 58-64.

Jayasundera, M., Adhikari, B., Aldred, P., eta Ghandi, A. (2009). Surface modification of spray dried food and emulsion powders with surface-active proteins: a review. *J Food Eng*, 93, 266-277.

Jiang, Z. eta Brodkorb, A. (2012). Structure and antioxidant activity of Maillard reaction products from α-lactalbumin and β-lactoglobulin with ribose in an aqueous model system. *Food Chem*, 133, 960-968.

Jiménez, N., Bohuon, P., Donier, M., Bonazzi, C., Pérez, A.M., eta Vaillant, F. (2012). Effect of water activity on anthocyanin degradation and browning kinetics at high temperatures (100-140 ºC). *Food Res Int*, 47, 106-115.

Kadam, S.U., Pankaj, S.K., Tiwari, B.K., Cullen, P.J., eta O'Donnell, C.P. (2015). Development of biopolymer-based gelatin and casein films incorporating brown seaweed *Ascophyllum nodosum* extract. *Food Packing and Shelf Life*, 6, 68-74.

Kaewprachu, P. eta Rawdkuen, S. (2016). Application of active edible films as food packaging for food preservation and extending shelf life. In *Microbes in food and health*. Garg, N., Abdel-Aziz, S.M., eta Aeron, A. (Eds.). Springer-Verlag, Berlin, Germany, pp. 185-205.

